

Zuzenbide Zibila I

Ibon Viteri Zubia irakaslea(k)

**EUSKARA ETA ELEANIZTASUNeko
ERREKTOREORDETZAREN SARE ARGITALPENA**

I. IKASGAIA

SARRERA

AURKIBIDEA. 1. Zuzenbidearen kontzeptua. 2. Zuzenbide Pribatua eta Zuzenbide Publikoa. 3. Zuzenbidearen adarrak. 4. Zuzenbide Zibila eta Betebehar Zuzenbidea

1. ZUZENBIDEAREN KONTZEPTUA

Zuzenbidea zer den ulertzeko, ustekizun hauetatik abiatu beharra dago:

- (1) Pertsona izateko, gizartean bizi behar du norbanakoak; bestela, gizaki hutsa litzateke, eta ez, pertsona. Bizitza, funtsean, harremana edo erlazioa da.
- (2) Gizarteratu ostean, zera erabaki behar da: (a) bizirik irauteko grinari jarraiki, naturako baliabideak nork administratu eta nola banatu; (b) ugaltzeko beharrari jarraiki, umea izateak sortzen duen erantzukizuna nola antolatu. Alegia, lurralde bateko gizaki multzoak, taldea osatzen duten familien eta giza taldearen beraren barne-egitura antolatu behar du, eta, gainera, beste lurraldeetako giza taldeekin izan beharreko harremanak zehaztu.


Ubi societas, ibi ius: gizartea non, zuzenbidea han; *ubi ius, ibi societas:* zuzenbidea non, gizartea han.

Horrela, gizabanakoaren barne-eskakizunak kontuan hartuz, gizartearen elkarbizitza arautzen duen erregela multzoa da zuzenbidea. Beraz, sistema edo ordenamendua osatzeko poliki-poliki sortu diren arau eta printzipio juridikoek beti dute kausa bat, zuzenbidearen ustekizuna edo *prius* dena: gizartean konpondu beharreko arazo bat. Horregatik, zuzenbidea gizartearen atzetik doa ezinbestez, eta gizarteko arazoen konplexutasunak berak ekartzen du zuzenbidea ere konplexua izatea.

Ordenamendu juridikoak bi alderdi ditu: alderdi objektiboa eta subjektiboa.

(1) Alderdi objektiboa edo *zuzenbidea*. Arau edo lege multzoarekin identifikatzen da. Beraz, konstituzioak, estatutuak, Europar Batasuneko araudiak, legeak, erregelamenduek eta gainerako arau guztiek osatzen dute zuzenbidea.

(2) Alderdi subjektiboa edo *eskubidea*. Norbaitek norbaiten aurrean baliaz dezakeen ahalmena da, bidezkoa delako eskatzea. Esate baterako, intimitatea izateko eskubidea edo zorra ordaintzeko eskatzeko eskubidea.

Gizakia	+ Gizartean	= Pertsona	Natura
Ondarea	baliabideak banatzea	bizirik irauteko	
Familia	beste norbaitekin	ugaltzeko	
Zuzenbidea		= antolatzeko	Eskubidea
ESKUBIDEA gizakiaren subiranotasuna		TITULARTASUNA baliatu - defendatu 	SUBJEKTUA pertsona
Pertsona vs GAUZAK		Animaliak	Higigarriak Higiezinak

Bi ikuspegi horiek erabat uztartuta daude, zuzenbideak —arau juridikoez— eskubideak biltzen eta babesten baititu. Hartara, ordenamendu juridikoa gizabanakoen barne-eskakizunetara egokitzen da.

Azaldutako ikusmoldearen arabera, zuzenbidearen idearen inguruan dagoen eztabaidan parte hartzen da. Alegia, ordenamendu juridikoa —estatu batean indarrean dauden arauak— *gizabanakoaren eskakizunetara* egokitu behar dela defendatzea da arau multzotik (zuzenbidetik) at dagoen ideia (helburua) sistema juridikoaren oinarrian jartzea.

Bada, ordea, beste ikusmolde bat zera defendatzen duena: ordenamendu juridikoaren legitimazioa ez dela oinarritzen kanpoko eskakizunetan, ordenamendu juridikoa legitimatzeko iturria ordenamendua bera baita. Arauak baliagarriak dira arau direlako, horretarako eskuduntza duten organoek, aurrez ezarritako formalitateei jarraituz, eman dituztelako. Horregatik, ezin da bidezkoak ez diren arauetaz hitz egin, arau oro, modu zuzenean emana den neurrian, legitimoa baita (*dura lex, sed lex*: legea gogorra da, baina legea da).

Zuzenbidea arau zehatzetik at dagoen ideia batean oinarritzen duten teoriak *iusnaturalista* deritze; bigarrengei, berriz, *positibista* deritze. Aldi berean, iusnaturalismoak oinarri oso desberdinak biltzen ditu zuzenbidearen sustraiak zein diren adierazteko: zuzenbide naturala, ordena naturala, justizia, gizakiarentzat onuragarri diren helburuak edo aberastasunik handiena lortzea.

Idea positibista	Idea iusnaturalista
ZUZENBIDEA Legeak / arauak	ZUZENBIDEA: oinarriak <hr/> zuzenbide naturala <hr/> justizia <hr/> duintasuna

2. ZUZENBIDE PRIBATUA ETA ZUZENBIDE PUBLIKOA

Kontuan hartzen diren interesen arabera, bereizten dira:

- (1) *Zuzenbide Pribatua*. Partikularren arteko harremanak arautzen dituen zuzenbideari deritzo. Eremu honetan, hauxe da erregela nagusia: alderdiek beren arteko harremanen edukia ezartzeko askatasuna dute.
- (2) *Zuzenbide Publikoa*. Gizabanako bakoitzak gizartea ordezkatzeko duten erakundeekin dituen harremanak arautzen dituen zuzenbidea da. Alor honetan, erregela nagusiak derrigorrezkotasunaren ideian du oinarria, gizartearen interesari nagusitasuna emateko.

Botere publikoak	
Legegilea	Bat baino gehiago
Exekutiboa	Bat baino gehiago
Judiziala	Bakarra

Bien arteko desberdintasunak eremu hauetan agertzen dira:

- (1) *Subjektuak*. Zuzenbide Publikoan, alderdi bat, botere publikoa izaten da —jaurlaritza, udala, aldundia, estatua edo beste edozein herri-erakunde—. Zuzenbide Pribatuan, aldiz, subjektuak partikularrak dira beti: norbanakoak, elkarteak, enpresak. Hala ere, kontuan izan behar da botere publikoko entitateak, harreman juridikoetan, partikular moduan parte har dezakeela, esate baterako bulegorako papera erosten badu. Beraz, irizpide hura ez da behin betikoa, eta beste hau ere kontuan hartu behar da: botere publikoa gizartearen antolakuntzarekin zerikusia duen zeregin batean ari bada —horretarako eman baitzaio ahala—, zuzenbide publikoaren eremuan ari da; bestela, partikular gisa ariko da.
- (2) *Xedea*. Zuzenbide Publikoaren xedea da zerbitzu publikoa aurrera eramatea. Pribatuak, ordea, harremanetan dauden partikularren interesak zaintzeko arauak zehaztu baino ez du egiten.
- (3) *Subjektuen arteko harremana*. Zuzenbide Publikoan, Estatua partikularren aurrean nagusitu egiten da. Estatuak interes orokorraren arabera jarduten du, eta, horregatik, partikularrari erregela batzuk ezartzeko ahalmena du. Zuzenbide Pribatuko harremanetan, berriz, berdintasun-mailan jartzen eta aritzen dira. Horregatik, beren jarduera ez da inposatzearen ondorio, akordioaren emaitza baizik.
- (4) *Arauen itzaera*. Zuzenbide Publikoan, oro har, arauak derrigorrezkoak dira, eta ez da onartzen kontrako hitzarmenik. Zuzenbide Pribatuan, berriz, arauak xedapenezkoak dira; alegia, alderdien arteko hitzarmenik ezean dute indarra.

Bereizketa horrek, zuzenbideko alor bakoitzaren xede eta printzipioetan du oinarria:

- (1) Zuzenbide Pribatuak pertsona bakoitzaren interes eksklusibo eta partikularra asetzea du xedetzat. Hitzarmen askearen eremua da, eta, esparru horretan, ez da komeni erregelak inposatzea.
- (2) Zuzenbide Publikoak, aldiz, gizartearen interesa asetzeko, erkidegoarentzat onena lortzea du xedetzat. Beraz, inposatzearen eremua da, erregelak denentzat berdinak izan daitezen.

Hala ere, planteamendu horrek bidezkoak ez diren hainbat egoera ekartzen ditu; esate baterako, lan-baldintzak zailtzea, enpresaburua eta langilea maila berdinean jartzen badira. Hori gertatzen zen, interes partikularra eta orokorra kontzeptu kontrajarri gisa ulertzen zirelako. Gaur egun, berriz, interes partikularra eta orokorra beti batera ulertzen dira. Partikular batek ezin dio beste bati eskatu, justiziaren ikuspegitik, erkidegoak eska diezaiokeen baino gehiago.

Batasun-irizpide horretatik abiatuta ere, badaude arazo batzuk partikularrak direnak —hala nola, salmenta baten prezioa edo errentamenduaren errenta—, eta horiek zehaztea partikularren esku utzi beharko da. Badaude hain partikularrak ez diren hainbat arazo ere, partikularren erkidegoarekin harreman zuzena izan eta denontzat berdinak direlako eta aldez aurretik aurreikusita egotea eskatzen dutelako. Hori dela eta, gaur egun Zuzenbide Pribatuak bere izaeran publikotasun-kutsua hartu du. Horrenbestez, Zuzenbide Pribatuan interes orokorra gero eta gehiago hartzen da kontuan, eta, ondorioz, gero eta gehiago ematen dira derrigorrezko arauak, partikularren arteko harremanak arautzeko. Horren adibide dira jabetza-eskubideari funtzio soziala betetzeko eskatzea, kontratuetak baldintza orokorrak neurritz kanpokoak ez izateko erabakiak hartzea, edo finantza-entitateek beren betebeharrei aurre egiteko nahiko diru erreserbatuta izateko agintzea.

3. ZUZENBIDEAREN ADARRAK

Zuzenbidea bere osoan ulertu behar da. Hala ere, oso zaila da gizakiaren adimenarentzat zuzenbidea bere osoan atzematea. Horregatik, ezagutu ahal izateko banatu egiten da, xede didaktikorako. Zati bakoitzari *zuzenbidearen adar* deitzen zaio. Hala ere, adar bakoitza ez da erabat autonomoa, ordenamenduaren enberrari lotua baitago.

- (1) Zuzenbide Pribatuan hiru adar nagusi bereizten dira:
 - (a) Zuzenbide Zibila: pertsona bera, inolako berezitasunik gabe, hartzen du ikasgaitzat, eta, bereziki, beste pertsonekin dituen harremanak.
 - (b) Merkataritzako Zuzenbidea: pertsonak produktu eta zerbitzuen merkatuan

duen ekonomia-jarduera du hizpidetzat.

(c) Lan Zuzenbidea: langilearen eta enpresaburuaren arteko harremana arautzen du, bai eta, gainera, gizarte-segurantzari buruzko gorabeherak ere.

(2) Zuzenbide Publikoan bereizten dira:

(a) Konstituzio Zuzenbidea: Estatuaren erregimen konstituzional eta politikoa azaltzen du.

(b) Administrazio Zuzenbidea: herri-administrazioaren eta administratuaren arteko harremanerako erregelak ezartzen ditu.

(c) Prozedurei buruzko zuzenbidea: eskubideak babesteko eta baliarazteko jarraitu behar diren prozedura judizialak arautzen ditu.

(d) Zigor Zuzenbidea (edo penala): erkidegoaren kontrakoak diren egintzak ekiditen saiatzen da, zuzenbidearen aurkako portaerak zigortzeko.

(e) Finantza eta Zerga Zuzenbidea: Estatuaren finantza-jarduera arautzeko.

(f) Nazioarteko Zuzenbide Publikoa: Estatuaren arteko harremanak bideratzen ditu.

ZUZENBIDEA			
Ikuspegi <i>objektiboa</i> : arau multzoa		Ikuspegi <i>subjektiboa</i> : eskubidea	
BEREIZI	ZUZENBIDE PUBLIKOA		ZUZENBIDE PRIBATUA
	Botere publikoa	<i>Subjektuak</i>	Partikularrak
	Zerbitzu publikoa	<i>Objektua</i>	Interes pribatuak
	Mendekotasuna	<i>Harremana</i>	Berdintasuna
Derrigorrezkotasuna	<i>Arauen izaera</i>	Xedapenezkoak	
A D A R R A K	Konstituzionala Administratiboa Prozesala Penala Fiskala Nazioartekoa		Zibila Merkataritzakoa Lan Zuzenbidea

Zuzenbide Zibila berez *komuna* dela esan ohi da, zuzenbide osoa argitzen duten printzipioak eta zuzenbide osoaren kontzeptu orokorrak jasotzen dituelako. Zergatik eta zuzenbidea, hein handi batean, gaur egun Zuzenbide Zibilari dagokion alorretik garatu zelako. Horregatik, Zuzenbide Zibilean aurkitzen dira oinarrizko kontzeptuak; horiek geroago garatuko dira zuzenbidearen gainerako adarretan.

Zuzenbide komunaren ondoan agertzen diren zuzenbideak berez *berezikiak* dira, pertsonen arteko harremanetan berezitasunen bat arautzen dutelako: langile/enpresaburua, zerga-administrazioa/zergaduna,

merkataria/partikularra, eta abar. Zuzenbide horiek irizpide berezien inguruan batu diren arauak jasotzen dituzte, baina haien printzipioek ez diete gaina hartzen zuzenbide komunaren printzipioei.

Gainera, badaude *ezohiko* zuzenbide-adarrak ere, haien printzipioek gaina hartzen dietelako zuzenbide komunaren printzipioei. Ez dira zuzenbide bereziak, baizik eta irizpide erabat desberdinetan oinarritutako zuzenbideak. Horrelakoak dira, esaterako, Zuzenbide Militarra eta Noblezia Zuzenbidea; zenbait garai historikotan, baita Eliza Zuzenbidea ere.

Gauzak horrela, zuzenbide berezian interpretazio zabaletara jo daiteke, baita analogiara ere, zuzenbide komunaren printzipioetan oinarritzen baita eta zain komunetik edan baitezake. Ezohiko zuzenbidea, aldiz, modu murriztailean interpreta eta aplikatu daitekeen ezohiko egoeretan bakarrik aplikatu behar da, ezin da hedatu beste ustekizun batzuetara, alegia.

4. ZUZENBIDE ZIBILA ETA BETEBEHAR ZUZENBIDEA


Zuzenbide Zibilaren eremuan aritzeko, bi erreferentzia izan behar dira kontuan:

(1) Lurraldearen arabera, sistema zibil desberdinak daude Espainian: batetik, lurralde osoan aplikatzen den *zuzenbide zibil orokorra* eta, bestetik, *zuzenbide zibil autonomikoak*. Azken horiek, zenbait lurraldetako sistema zibil bereziak dira, Konstituzioak babestu dituenak arrazoi historikoengatik. EKren 149.1.8 artikulua zera dio: *derecho de conservación, modificación y desarrollo por las Comunidades Autónomas de los derechos civiles, forales o especiales, allí donde existan*. Lurralde horiek honako hauek dira: Galizia, Nafarroa, Euskal Autonomia Erkidegoa, Aragoi, Katalunia, Balearrak eta Baylioko Foruaren eremua (Extremadurako hainbat udalerrri). Horiei gehitu zaizkie Asturiaseko Printzerria eta Valentiako Erkidegoa.

Berez, autonomia-erkidego guztiek dute beren zuzenbide autonomikoa, baina hura, batez ere, administrazio-zuzenbidea da. Aldiz, sistema zibil autonomikoa bakarrik aitortzen zaie, Konstituzioa argitaratu zenean zuzenbide zibil berezia indarrean zuten lurraldeei.

Lurraldeak	Gaiak	
Autonomia-erkidegoak	<i>Zuzenbide komuna</i>	<i>Tokiko zuzenbidea</i>
	Gutxienekoa	Lehendik eratorria
	Gai guztiak	Gai jakinak

(2) Zuzenbide Zibilean, pertsona da ardatz nagusia, eta pertsona orok duen ondareaz ere arduratzen da. Bestalde, pertsona fisikoa (a) eskuarki familia baten barruan dago jaiotzez —familiari buruzko arauak ematen dira (Familia Zuzenbidea)—; eta (b) noizbait hil egingo da eta haren ondarearen titular nor izango den zehatzeko arauak aurreikusi behar dira (Oinordetza Zuzenbidea). Gainera, pertsona orok, hala fisikoak nola juridikoak, duen ondareari buruzko arauaz ere arduratzen da (Ondare Zuzenbidea).



Bada, ondareari buruzko zuzenbidean, bi ikuspegitatik ematen dira arauak: (a) batetik, elementu estatiko gisa hartuz, ondareko ondasunen estatutu juridikoaz arduratzeko (Gauza Zuzenbidea): eskubide *errealak*; eta, (b) bestetik, elementu dinamiko gisa hartuz, ondasunak ekonomia-harremanetan murgilarazteko (Betebehar Zuzenbidea): eskubide *pertsonala* edo kreditu-eskubidea.

Gaur egun, gizartean bizi den pertsonak oso zail du buruaski izatea, norberak bere premia guztiak asetzeko gaitasuna izatea, alegia. Beti izango da nahitaezkoa gainerako pertsonekin harremanetan jartzea, gutxienik elikagaiak, gauzak eta zerbitzuak lortzeko eta bizitzako beharrak asetzeko. Horretarako, ordenamenduak babestutako instrumentua da *betebeharrezko harreman juridikoa*; hitz batean esanda, betebeharra edo *kreditu-eskubidea* (eskubide *pertsonala*). Pertsonen artean, ondasun eta zerbitzuen eskualdaketa egiten da betebeharraren bidez. Eguneroko bizitzan, sortutako betebeharrak baliatzen edo betebehar berriak hitzartzen dira une orotan: argia piztea, iturria irekitzea, sakelako telefonoa erabiltzea, autobusa hartzea, ikastegira etortzea, kafea hartzea, liburutegitik liburua hartzea, autoari gasolina botatzea, praktikak erostea, negozio-lokala errentan hartzea, eta abar.

Aldi berean, betebeharrei buruzko zuzenbidean, badira betebeharrak sorrarazten dituzten bi instrumentu nagusi: kontratua eta erantzukizun zibila. Lehena, Kode Zibilaren (KZren) IV. liburuan arautzen da: *betebeharrak eta*

kontratuak; bigarrena, berriz, Kode Zibilaren 1902. artikuluan eta hurrengoetan.

Programaren eskema		
Sarrera	Zuzenbide Zibila – Betebehar Zuzenbidea	
Betebeharrak sortzea —iturri nagusiak—	Erantzukizun zibila	
	Kontratuak	Banaka
		Arau orokorrak
Betebeharra	Oinarrizko zelula	

II. IKASGAIA

BETEBEHARRA

AURKIBIDEA. 1. Kontzeptua. 2. Elementuak. 3. Betebeharren iturriak.

1. KONTZEPTUA

Ikuspuntu etimologikotik, betebehar hitza latineko *obligatio* hitzetik dator: *obligatio*, lotura zerbaiten inguruan, kausa batengatik lotzea, lotuta egotea, azken batean «ligatzea».

Lotzeko edo ligatzeko arrazoiak edozein direlarik ere, betebeharrezko lotura sortuko da betebehar moral batetik (esaterako, amaren urtebetetzea edo turistari laguntzea) edo betebehar juridiko batetik (ordenamenduak aurreikusitako iturrietatik). Baina, betebeharra juridikoa bada —ordenamenduaren magalean dagoena—, orduan kreditu-eskubidearen titularrak aukera du eskubidea baliarazteko, eta betebeharra betearazteko bideak ematen dizkio ordenamenduak. Hartara, egitate erabat berdina esanahi eta babes desberdina izan dezake ordenamendu eta inguruabar desberdinetan; esaterako, dirua mahai gainean edo mostradorean uztea (eskupekoa) New Yorken (nahitaezkoa), Donostiako jatetxe batean (borondatezkoa) edo banketxe batean (ahaztuta, seguruenik).

Aldi berean, betebehar juridikoen artean bereiz daitezke: (a) alde batetik, gizartearen antolaketa orokorra ezartzera zuzenduta dauden betebeharrak (Zuzenbide Publikokoak; esaterako, zergak ordaintzea); eta (b) bestetik, gainerako betebeharrak, zeinetan betebeharra borondatezko, kontratuzko edo kontratuz kanpoko harremanetatik sortzen baita.

Kode Zibilak IV. liburuan arautzen du betebehar-zuzenbidea: *Betebeharrak eta kontratuak*; eta hauxe da bere I. tituluaren izenburua: *Betebeharrak* (KZren 1088.-1253. art.).

Hain zuzen ere, zera dio lehen arauak: *betebehar oro zerbait eman, egin edo ez egite horretan datza* (KZren 1088. art.). Artikuluak ez du jasotzen betebeharraren definiziorik; betebeharraren edukia zer-nolakoa izan daitekeen besterik ez du esaten. Eduki hori da betebeharraren objektua, zordunak hartzekodunari zor diona —zorra—, beste modu batera esanda, zordunaren betebeharra —prestazioa—: norbait *prest* dago portaera jakin bat *gauzatzeko* eta, gainera, horren *erantzukizuna hartzeko*. Legearen definizio horrek, ordea, ez du jasotzen ez-betetze kasuan zordunak duen erantzuteko beharrari —erantzukizunari— buruzko aipamenik. Erantzukizuna gero arautzen da: *betebeharren betetzearen*

gain, zordunak erantzukizuna du bere ondasun guztiekin, oraingoekin nahiz etorkizunekoekin (KZren 1911. art.).

Horrela, ordenamenduak *babesa* ematen dio hartzekodunari bere kreditu-eskubidea baliarazteko eta asetzeko, zordunari betebeharreko zorra betetzea galdatzeko ahalmena ematen baitio; eta, azken batean, zordunak betebeharra ez badu betetzen, hartzekodunak haren ondarea baliaraztea eska dezake. Alegia, subjektu juridikoak betebeharra betetzera lotzen badu bere burua, zerbait emateko, egiteko edo ez egiteko erantzukizuna hartuko du; garai batean baita bere buruarekin ere (zorreatatik espetxeratzea), egun, ordea, ondarearekin bakarrik.

Beraz, betebeharraren harreman juridikoan elementu hauek agertzen dira beti:

- (1) Zorra; zor den prestazioa, hau da, zordunaren betebeharra.
- (2) Kreditua, hau da, hartzekodunaren eskubidea.
- (3) Erantzukizuna, hau da, ez-betetze kasuan zordunaren ondarea (ondasunak) baliatzeko aukera.

Hortik sortzen da betebeharraren kontzeptu teknikoa: betebeharra harreman juridiko bat da, non hartzekodunak kreditu-eskubidea baitu zordunari zerbait eman, egin edo ez-egiteko betebeharra eskatzeko; bestela, zordunaren ondare osoa berme izan eta baliaraz dezake hark.

Harremanak: beti pertsonen artean	
Juridikoak	Ez-juridikoak
Betebeharrezkoak	Lagun artekoak
Filiaziozkoak	
Ezkontzakoak	

2. ELEMENTUAK

Betebeharraren harremanean, elementu hauek agertzen dira: subjektuak, objektua eta lotura juridikoa.

BETEBEHARRA				
Sub- jektu juri- dikoa	Alderdi hartzekoduna (1) (2) (3) ... (n) mankomunitatea / solidaritatea	Kreditua: eskubidea →	Alderdi zorduna (1) (2) (3) ... (n) mankomunitatea / solidaritatea	Sub- jektu juri- dikoa
		Objektua Prestazioa: portaera		
		← Zorra: betebeharra		
ERANTZUKIZUNA				

(1) *Subjektuak*

(1.1) *Kopurua*. Betebeharrezko harreman orotan bi subjektu juridiko daude:

(a) Subjektu juridiko aktiboa edo *hartzekoduna*. Kreditu-eskubidearen titularra da. Eskubideak zordunari betebeharraren objektua den portaera —prestazioa— galdatzeko *abalmena* ematen dio.

(b) Subjektu juridiko pasiboa edo *zorduna*. Zor den prestazioa *bete behar* duena da, alegia, betebeharrean aurreikusten den portaera aurrera eramane behar duena.

Esanahi hertsian, subjektuez baino egokiagoa da alderdiei buruz hitz egitea: hartzekodun alderdia —aktiboa— eta zordun alderdia —pasiboa—. Alderdi bakoitzean pertsona bakar bat edo pertsona asko egon daitezke, alderdi batean edo alderdi bietan. Kasu horietan, alderdi bereko subjektuen arteko harremanak arautu behar dira eta, horretarako, bi irizpide daude: solidaritatea («edonork») eta mankomunitatea («bakoitzak berea»).

(1.2) *Gaitasuna*. Betebeharraren subjektua izateko ez da eskatzen gaitasun berezirik, nahikoa baita pertsona orok duen gaitasun *juridikoa*. Baina, beste gauza bat da betebeharra eratzeko eta garatu ahal izateko gaitasun berezia eskatzea: *jarduteko* gaitasuna. Hartara, adingabea edo ezgaitua betebeharraren titular izan liteke, baina betebeharra egikaritu —eskubidea egikaritu edo zorra bete—, legezko ordezkari bidez egikaritu beharko du hark, ez bere kabuz.

(1.3) *Zehaztua*. Betebehar baten subjektuek erabat *zehaztuta* egon behar dute, hau da, hasiera batetik jakin behar da zein den harreman juridikoan hartzekoduna eta zein zorduna. Horrela ez balitz, ezinezkoa litzateke betebeharra betetzea; hartzekodunak ez badaki nor den zorduna, ezingo du ase bere interesa, edo hartzekoduna nor den jakin ezean, ezinezkoa da prestazioa betetzea.

Hala eta guztiz ere, hasiera batean subjektu bat zehaztu gabe egonda ere, izan liteke betebeharririk, beti ere gero zehazteko aukera ematen duen *irizpidea* ezartzen bada. Esate baterako, saria emateko promesa publikoa egiten denean, zehaztu gabe dago nor izango den hartzekoduna; horixe gertatzen da galdu den txakurra aurkitzen duenari 50 euro emango zaizkiola jakinarazten bada. Kasu horretan, txakurra aurkitzen duena izango da diru-sari horren hartzekoduna. Antzekoa gertatzen da eramaile-tituluetan: hartzekoduna izango da tituluaren edukitza duena; jabetza horizontalean erkidegoko gastuak ordaindu behar dituen zehazteko, berriz, jabetza-eskubidearen titularra.

(2) Objektua

Betebeharraren objektua prestazioak osatzen du, hau da, hartzekodunak zordunari eska diezaiokeen portaerak. Lehen adierazi denez, legeak zera dio: *Betebehar oro zerbait eman, egin edo ez egite horretan datza* (KZren 1088. art.). Horrela, prestazioa edo portaera izan daiteke zerbait ematea (saldutako gauza edo maileguan hartutako dirua), zerbait egitea (autoa konpontzea edo aholkua ematea), edo zerbait ez egitea (lan-alor jakinean ez aritzea aldi batean).

Prestazioak, baliozkoa izateko, betekizun batzuk bete behar ditu:

(a) Betetzeko modukoa izatea. Hartara, betetzea ezinezko den portaera ez da betebeharraren objektu izango (KZren 1272. art.); beraz, objekturik ezean ezinezkoa da betebeharririk egotea. Esaterako, gizakiaren eskura ez dagoen zerbait emateko betebeharra —Eguzkiko edo Ilargiko lursaila—, edo bete ezinezko zerbitzua eskaintzea —Artizarrera bidaia—.

Ezintasun hori izan daiteke:

(a') Sorreraren arabera, *jatorrizkoa* edo berehalakoa —betebeharra sortu den unean badago eta, ondorioz, betebeharra sortzea eragozten badu—; edo *eratorria* —hasieran portaera posible zen eta betebeharra sortu da, baina gero ezinezko bihurtu eta betebeharra desagertu egin da—.

(b') Edukiaren arabera, *erabatekoa* —betebeharraren prestazio osoa hartzen du—; edo *partziala* —betebeharraren prestazioaren zati bati eragiten dio—.

Esaterako, margolan edo irudi bat emateko betebeharra hitzartu eta gero, margolan edo irudi hori suntsitu edo desagertu egiten da. Kasu horretan, betebeharra sortu da, baina ematea ezinezko bilakatu da. Beste kontu bat da ezintasun hori zordunak sortzea eta, horren ondorioz, ez betetzetik eratortzen diren kalte-galeren ordaina ordaintzeko betebehar berria sortzea. Ezintasuna partziala izan daiteke, erosi behar genuen liburu-bildumako bi ale suntsitu egin badira. Kasu horretan, ikusi beharko da hartzekodunak oraindik interesik baduen ala ez.

(b) Zilegia izatea. Prestazio bat ez da zilegia legezko manamendu baten, moralaren edo ohitura onaren kontrakoa bada. Hain zuzen, legeak zera dio: *gizakien merkataritzatik kanpo ez dauden gauza guztiak, baita etorkizunekoak ere* (KZren 1271.1 art.).

Zenbait gauza komertzioetik kanpo daude, hala nola jabari publikoa edo ondasun komunalak; beste zerbait da merkataritza mugatua eta kontrolatua izatea. Gainera, zenbait zerbitzu legearen kontrakoak dira; esaterako, delitutzat hartzen diren portaerak (zerbait lapurtzea, norbait hiltzea).

(c) Zehaztua edo zehazgarria izatea. Prestazioa zertan datzan jakin behar da edo, gutxienez, hura zehazteko irizpideek ezarrita egon behar dute.

Horrela ez balitz, betebeharra ez da existituko, alderdiek ez baitakite zein den betebeharraren edukia, eta ez dago modurik zordunari inolako portaerarik galdatzeko: *kontratu ororen objektua gauza zehatza izan behar da horren espeziari dagokionez. Kopuruaren zehaztugabetasuna ez da oztopo izango kontratua izan dadin, kopuru hori zehaztu ahal bada kontratugileen artean beste hitzarmen bat egin gabe* (KZren 1273. art.).

Hasiera batean zehaztu gabe dagoen prestazioa beste gauza batekin erlazionatuz zehaztu daiteke; adibidez, ordaindu beharrekoa Londreseko merkatuan urreak gaur balio duenaren arabera zehazten bada. Posible da hirugarren bat izendatzea ere prestazioa zehazteko (KZren 1449. art.), baina ez da onartzen prestazioa zehaztea alderdi baten esku uztea (KZren 1256. art.).

(d) Izaeraz ondarekoa izatea. Prestazioak ekonomikoki baloragarria izan behar du. Zordunak, ez-betetze kasuan, bere ondarearekin erantzun ahal izateko, beharrezkoa da prestazioak dirutan adieraz daitekeen balioa izatea. Esate baterako, mendira elkarrekin joateko hitza emateak ez du balio ekonomikorik, eta berez ez da ondarekoa; gauza bera kasu hauetan ere: ezkontideek elkar errespetatzeko duten betebeharra (ezkontzako), edo umeak hezteko betebeharra (filiaziozkoa). Arrazoi horrengatik, ezkontza ezin da kontratutzat hartu, kontratutik sortutako betebeharrak guztiak berez ondarezkoak baitira eta kontratuaren ezaugarria ere ondarezkotasuna baita; eta ezkontza, alderdien arteko akordiotik sortu bada ere, ez da ondarezko trukaketak gauzatzeko egiten, ezkontzako betebeharrak ezin dira ekonomikoki balioztatatu.

(3) *Lotura*

Lotura juridikoaren bidez, zorduna eta hartzekoduna loturik gelditzen dira; alegia, prestazio zehatza betearaz daiteke kreditua asetzeko. Betebeharraremanean, zorraren (zordunak hartzekodunaren alde bete beharraren) eta kredituaren (hartzekodunak zordunari eska diezaiokeenaren) artean ematen den korrelazioa da.

Harreman juridiko berean, betebeharezko lotura juridiko anitz egon daitezke. Esaterako, salmentako harreman juridikoan, alderdi bakoitza hartzekodun eta zordun da aldi berean, alderdi bakoitza bestearekiko behartuta baitago: erosleak gauza emateko eska dezake, baina prezioa ordaindu behar du; saltzaileak, berriz, prezioa eska dezake, baina gauza eman behar du.

Harreman juridikoak	
Kontratuak (betebehar-iturria)	Betebeharrezkoa
Salerosketa	Betebehar 1: gauza ematea
	Betebehar 2: dirua ematea
	Betebehar 3

3. BETEBEHARREN ITURRIAK

Betebeharren iturriak zera adierazi nahi du: betebeharrak zerk sorrarazten dituen, alegia, zordunaren eta hartzekodunaren arteko lotura juridikoa. Badaude egoerak eta egintzak zordunari prestazioa bete beharra ezartzen diotenak, hartzekodunak galdatzeko moduan gainera —betebehar juridikoa—.

Iturri horiek hauek dira: *Betebeharrak sortzen dira legetik, kontratu eta kuasikontratuetatik, eta zilegi ez diren egite nahiz ez-egiteetatik, eta edozein motatako erru nahiz zabarkeriaren burututako egite eta ez-egiteetatik ere bai* (KZren 1089. art.). Zerrenda hori, dena den, ez da zehatza eta ordenamenduan badaude betebeharrak sorrarazteko beste modu batzuk ere.

Arau hori legeak eman duenez, iturri guztiak legezkoak direla defenda daiteke. Hala ere, betebeharra sortzeko subjektuek betetzen duten papera kontuan hartuta, bereiz daitezke:

- (1) Jatorria alderdien borondatean duten iturriak: esate baterako, kontratua edo testamentua (*ex voluntate* iturriak).
- (2) Legeak xedatzen dituen iturriak, bidezkoa ez den kaltea saihesteko edo konpontzeko asmoz, alderdien borondatea kontuan hartu gabe: esate baterako, erantzukizun zibila edo legezko interesak ordaindu beharra (*ex lege* iturriak).

BETEBEHARREN ITURRIAK	
Kode Zibila 1089. art.	Legea
	Kontratua
	Kuasikontratua
	Delitua
	Kuasidelitua
Besteak	Aldebakarreko borondatea
	Bidegabeki aberastea

(1) *Legea*

Betebehar batzuek legezko xedapenetan dute beren jatorria; hau da, legeak

berak ezartzen ditu, betebeharez lotzen diren subjektuen borondateak edo adostasunak parte hartu gabe. Esate baterako, KZren 142. artikulua eta hurrengoek ahaideen arteko mantenu-betebeharra ezartzen dute; ikasle denari buruz bereziki irakurri KZren 142., 143., 146., 149., 152.3 eta 152.5 artikulua.

Legezko betebeharek buruz, kontuan izan behar da arau garrantzitsu hau. Legetik eratorritako betebeharek buruz ez dago presuntziorik. Kode horretan edo lege berezietan beren beregi zehaztutako betebeharrak bakarrik dira eskatzeko modukoak, eta betebeharrak ezartzen dituen legearen manuek arautuko dituzte horiek; eta, legeak ezartzen ez dituen gaietan, liburu honetako xedapenek arautuko dituzte (KZren 1090. art.).

(2) *Kontratua*

Betebeharren iturririk garrantzitsuena, partikularren borondatea da eta, bereziki, partikularrek beren premiak asetzeko ezartzen dituzten akordioak. Hitzartutako kontratuetatik sortzen dira betebehar gehienak eta arruntenak. Horregatik, zera xedatzen du legeak: *Kontratuetatik sortzen diren betebeharrak legeindarra dute alderdi kontratugileen artean, eta betebeharrak kontratu horien arabera bete behar dira* (KZren 1091. art.).

(3) *Kuasikontratua*

Honela definitzen du kuasikontratua legeak: *kuasikontratuak egitate zilegi eta borondate hutsekoak dira; horien ondorioz, beren egilea betebeharpean geratzen da hirugarren bati begira, eta, batzuetan, elkarrekiko betebeharra sortzen da interesdunen artean* (KZren 1887. art.). Gero, bi kuasikontratu jasotzen ditu:

(a) *Negozia ofiziosoki kudeatzea. Norbaitek bere borondatez hartzen badu inoren negozioak agentziatu edo administratzeko ardura, horren mandaturik izan gabe, kudeaketari eusteko betebeharra du, harik eta arazoari eta horren gorabeherari amaiera eman arte; edo, interesduna zuzenean ardura badaiteke kudeaketa, interesdun horri haren ordezkari jar dadin eskatzeko betebeharra* (KZren 1888. art.). Modu horretan jarduten duenak kudeaketa jarraitzeko betebeharra du negozioa amaitu arte. Hala ere, interesduna bera gai bada negozioaren kudeaketa hartzeko, kudeatzaileak kudeaketan ordezkatzeko eska diezaioke. Kudeatzaile ofiziosoak familiako guraso on baten arretarekin jardun beharko du kudeaketan. Negozioa ofiziosoki kudeatzea mandatu-kontratu bihurtuko da, baldin eta negozioa kudeatua izan zaionak berresten badu. Horrelakoak dira, adibidez: *kanpoko batek mantenua ematen duenean, hori egiteko betebeharra duenak ezer jakin gabe, kanpoko horrek eskubidea izango du betebeharra duenari mantenua eskatzeko, salbu eta agertzen denean mantenua errukiz eta hori erreklamatzeko asmorik*

gabe eman zela. Hileta-gastuak, pertsona-izaeraren eta herriko usadioen arabera, ordaindu behar dituzte, hildakoak ondasunik utzi ez arren, hildakoa bizirik egon balitz horri mantenua emateko betebeharra izango zuketenek (KZren 1894. art.). Esate baterako, kalean norbait zauritu eta inguruko jendeak gertuen dagoen medikuarengana eramatea hura; elkartean hartzen den eguberrietako loteria lagunari hartzea; edo zinera joateko plana egin ostean, lagunari sarrera erostea, berandu datorrelako.

(b) Zor ez zaiona kobratzea. *Gauza bat jasotzen denean, hori kobratzeko eskubiderik izan gabe eta zor ez dena okerraren ondorioz ematen denean* (KZren 1895. art.); aldi berean, legezko interesak ordaintzeko eta sortutako fruituak emateko betebeharrak ere sortuko dira legez. Ustekizun hori gertatzeko, beharrezkoak dira: lehenik, zor edo betebeharrak betetzeko ordainketa egitea; gainera, ordaintzen duenaren eta jasotzen duenaren artean betebeharririk ez egotea — ordaintzeko kausarik ez egotea—; eta, azkenik, ordainketa errakuntzaz egin izana. Esaterako, banketxeak errorez norbaiten kontu-korrontean dirua jartzea.

Kontratuaren eta kuasikontratuaren arteko desberdintasuna borondatezko akordioan dago: bigarrenetan, lehenengoan ez bezala, ez dago akordiorik. Kontratuan, alderdien adostasunak sortzen du betebeharra; kuasikontratuan, aldiz, borondateak ez du parte hartzen eta legeak agintzen du betebeharra egitate horretatik sortzea.

(4) *Delitua eta kuasidelitua: ez-zilegia den egintza edo ez-egiteak sortzen den betebeharra, eta erruzko egintza edo ez-egiteak sortzen dena*

Zilegi ez diren egintza eta ez-egiteak izan daitezke penalak edo zibilak, baina batean zein bestean betebeharra sortzen da:

(a) Zilegi ez den egintza edo ez-egitea penala bada, hau da, Zigor Kodean jaso eta zigortutako egitatea —delitua edo falta—, beti sortuko da hark sortutako kalteak ordaintzeko betebeharra: *Zigor Kodearen xedapenek arautuko dituzte delitu edo faltetatik sortutako betebeharrak zibilak* (KZren 1092. art.). Delitu edo falta bat gauzatzeak, erantzukizun penalaz gainera, sortutako kaltea konpontzeko betebeharra dakar berekin. Hala nola, lapurtutako gauza itzultzeko betebeharra eta eratorritako kalteak ordaintzeko betebeharra.

(b) Zilegi ez diren gainerako egintzak edo ez-egiteak zibilak dira. Egintza edo ez-egite horiek, Zigor Kodeak zigortu ez baina, hirugarrenei kalterik sortzen badie, eta egilearen errua edo arreta gabezia badago, eragindako kalteak ordaintzeko betebeharra sortzen da (KZren 1093. art.). Esaterako, ibilgailu baten gidariak bazterra jo eta bide ondoko seinaleak apurtzea, zirkulatzean beharrezko arretarik gabe gidatzeagatik.

(5) *Beste iturri batzuk*

Arestian aipatu da Kode Zibilaren 1089. artikulua ez dituela betebeharren iturri guztiak aipatzen. Betebeharren iturri dira, baita ere:

(a) *Aldebakarreko borondate-adierazpena*. Aldebakarreko borondate-adierazpena izan liteke betebeharraren iturri. Esate baterako, saria emateko promesa publikoa egiten bada zerbait egiten duenaren alde edo lehiaketa-irabazlearen alde.

(b) *Bidegabeki aberastea*. Norbait, kausarik gabe, bidegabeki aberasten bada —ondarea modu positiboan handitu zaio— beste norbaiten kontura —ondarea modu negatiboan gutxitu zaio—, irabaziaren zenbatekoa itzultzeko betebeharra izango du. Noski, aberaste-pobretze harreman horrek bata bestearekin zerikusia izan behar du. Arau hori Auzitegi Gorenak ezarri du zuzenbidearen printzipio orokor gisa: inor ezin da arrazoirik gabe aberastu beste baten ondarearen kontura. Aipatu bezala, beharrezkoa da betekizun hauek betetzea: batetik, ondarean aberastea edo abantailak lortzea; bestetik, beste alderdia pobretzea neurri berean jasan izana; eta, azkenik, aberastea eta pobretze hori justifikatzeko kausarik ez egotea. Esate baterako, izatezko bikote batean, bata etxea zaintzen geratzen da, eta besteak lanera joan eta irabaziak lortzen ditu.

III. IKASGAIA

BETEBEHAR MOTAK

AURKIBIDEA. 1. Betebehar positiboa eta negatiboa. 2. Betebehar espezifikoa eta generikoa. 3. Betebehar zatigarria eta zatiezina. 4. Betebehar bateragarriak, alternatiboak eta ahalmenezkoak. 5. Diruzko betebeharra: interesak ordaintzea, diruak balioa galtzea, printzipio nominalista eta egonkortze-klausulak. 6. Betebehar mankomunatuak eta betebehar solidarioak. 7. Aldebakarreko eta aldebiko betebeharra. Betebehar elkarkariak. 8. Betebehar nagusia eta osagarria. 9. Betebehar hutsa, baldintzapekoa eta epeduna.

Ikasgai honetan betebehar motak aztertuko dira, kontuan izanda betebehar motaren arabera sortzen diren efektu juridikoak desberdinak direla.

Betebeharrak sailkatzeko hainbat irizpide erabil daitezke. Hemen, erabilera praktikorako interesgarriak direnak azalduko dira. Horrela, betebeharrak sailkatzeko kontuan hartuko dira betebeharraren elementuak: objektua, subjektuak eta lotura.

BETEBEHAR MOTAK			
OBJETUA	Positiboa		Negatiboa
	Espezifikoa		Generikoa
	Zatigarria		Zatiezina
	Bateragarria	Alternatiboa	Ahalmenezkoa
	Diruzkoa		
SUBJEKTUAK	Mankomunatuak		Solidarioak
LOTURA	Aldebakarrekoa		Aldebikoa - Elkarkaria
	Nagusia		Osagarria
	Hutsa	Baldintzapekoa	Epeduna

1. BETEBEHAR POSITIBOA ETA NEGATIBOA

Lehen aditzera eman denez, *Betebehar oro zerbait eman, egin edo ez-egite horretan datza.*

(1) Betebeharra berez positiboa da, bere objektua zerbait ematea edo egitea bada.

(a) Emateko betebeharra berez beti da positiboa: zerbait ematea da. Emate horren *helburua* izan liteke *jabetza-eskubidea* eskualdatzea —esaterako, erositakoa— edo *edukitzeko eskubidea* eskualdatzeatzea —esaterako, errentan edo maileguan hartutakoa—. Emateko betebeharra positiboa izan eta gauza zehatza eta espezifikoa den kasuetan, erregela hauek izan behar dira kontuan:

(a') Gauza zehatz bat emateko betebeharrak bere osagarri guztiak emateko

betebeharra barneratzen du, nahiz eta aipatuak ez izan (KZren 1097. art.).

(b') Gauza baten jabetza eman behar denean, hartzekodunak jaiotzen den unetik eskubidea du sortutako fruituak eskuratzeko (KZren 1095. art.).

(c') *Gauza bat emateko betebeharra duenak gauza hori artatzeko betebeharra ere badu, familiako guraso on batek egingo lukeen moduan* (KZren 1094. art.).

(b) Egiteko betebeharra berez positiboa da, zordunak hartzekodunaren aldeko jarduerarik bete behar badu. Betebehar mota horren efektuak, batez ere, KZren 1098. artikulutik eratortzen dira: zordunak betebeharraren arabera gauzatu behar du bete beharreko zerbitzua edo lana; zordunak ez badu betetzen, hartzekodunak galda dezake zordunak egin ez duena zordunaren kontura beste batek egitea, edo gaizki egin dena desegitea zordunaren kontura. Hala ere, betebehar mota horietan bereizi behar da prestazioa suntsigarria den ala ez; hau da, betebeharra zordunak berak bakarrik egin dezakeen —norberak konplitu beharreko betebeharra— edo beste norbaitek egin dezakeen. Zorduna ordezkazina den ustekizunetarako, hartzekodunak ez betetzetik eratorritako kalteen eta galeren ordaina eskatu ahal izango du (KZren 1161. eta 1101. art.). Halaber, betebehar mota honen barnean bereiz daitezke:

(a') Ahalbide-betebeharra: betebeharraren prestazioa jarduera bat aurrera eramatea da; esaterako, medikuaren zerbitzuak.

(b') Emaidza-betebeharra: betebeharraren prestazioa izango da emaitza zehatza lortzera zuzenduta dagoen jarduera; esaterako, etxea eraikitzea. Kasu horretan, azken batean, egiteko betebeharra emateko betebehar bihurtzen da.

(2) Betebeharra berez negatiboa da, bere objektua zerbait ez egitea bada: betebeharra ez egiteko jarduera da. Betebeharrak egongo ez balitz, zordunak ezingo luke egin dezakeen zerbait egin. Hala nola, ez eraikitzeke betebeharra edo lan-eremu jakin batean ez aritzeko betebeharra. Zordunak debekatua duena egiten badu, betebeharra ez du betetzen eta, orduan, hartzekodunak ahalmena izango du gaizki egin dena desegitea eskatzeko (KZren 1099. art.). Desegitea posible izango ez balitz, kalteak ordaintzeko betebeharra sortuko da (KZren 1101. art.).

2. BETEBEHAR ESPEZIFIKOA ETA GENERIKOA

Betebeharrak objektua zehaztua izan behar du, lehen esan den moduan. Baina prestazioaren zehaztasunak duen graduaren arabera, betebeharra izan liteke espezifikoa edo generikoa.

(1) Betebehar espezifikoa. Prestazioa zehatz-mehatz finkatuta eta indibidualizatuta dagoen zerbait da, hala nola zerbait jakina ematea —

esaterako, antigoaleko auto jakin bat—. Horren arira, legeak zera dio: *gauzaren zordunak ezin du bere hartzekoduna behartu beste gauza bat jasotzera, nabiz eta gauza horren balioa zor den bestekoa izan* (KZren 1166. art.). Eta gero hauxe agintzen du: *gauza zehatza emateko betebeharra iraungita geratuko da, gauza galdu edo suntsitzen denean zordunaren errurik gabe eta zorduna berandutza-egoeran jarri aurretik* (KZren 1182. art.). Izan ere, prestazioa zehatza bada, ez da posible hura ordezkatu duen beste zerbaiten bidez zorra betetzea. Gainera, zordunak ez du zertan arriskurik jasan, gauza desagerrarazi duen kausa berari ezin bazaio egotzi.

(2) Betebehar generikoa. Prestazioa ez dago erabat indibidualizatuta, izendatu baita genero bati aipamen eginez —adibidez, *Renault Megane* autoa erostea—. Zordunak betebeharra bete dezake hitzartu den genero horretako edozein gauzarekin. Kasu horietan, arriskuek beste trataera bat dute; izan ere, oso zaila da genero osoa galtzea. Zordunak bete ahal izango du, genero horretako gauzarik dagoen bitartean.

Zorra betetzeari begira, legeak hau agintzen du: *betebeharra gauza zehaztugabea edo generikoa ematea denean, eta gauza horren kalitatea eta inguruabarrak ez direnean adierazi, hartzekodunak ezin izango du kalitate handiagoko gauzarik eskatu, ezta zordunak kalitate txikiagorik eman ere* (KZren 1167. art.). Beraz, alderdiek ez badute ezer hitzartu betebeharraren objektu den gauzaren kalitateari buruz, kalitate normalekoarekin beteko da zorra.

Betetzeko unean, betebehar generikoa espezifikiko bihurtuko da, nahitaez. Eragiketa horri gauza generikoa *espezifikatzea* edo *indibidualizatzea* deritzo.

3. BETEBEHAR ZATIGARRIA ETA ZATIEZINA

Objektuaren eremuan, prestazioa partzialki betetzeko aukeratik edo ezintasunetik sortzen da betebeharraren zatigarritasuna edo zatiezintasuna:

(1) *Betebehar zatigarria*. Prestazioa zatika bete badaiteke, horregatik izaerarik aldatu gabe eta balioan galerarik jasan gabe. Esate baterako, sukaldeko altzairuak jartzeko betebeharra; edo dirua ematea. Hala ere, prestazioa berez zatigarria izateak ez du esan nahi prestazioa beti zatika bete behar denik. Beharrezkoa da aipatze bidez onartzea ordaintzeko modu hori (KZren 1169. art.).

(2) *Betebehar zatiezina*. Prestazioa modu bateratuan bete behar bada. Ezin da zatika bete, betebeharrak osorik eta batera betetzea eskatzen duelako, hala hitzartu delako, edo prestazioaren izaerak hala eskatzen duelako. Esaterako, automobila eskuratzea edo esnetarako behia erostea.

Betebeharra zatigarria edo zatiezina den zehazteko irizpideak aurreikusten ditu Kode Zibilak 1151. artikuluan, kontuan hartuta betebeharra zerbait ematekoa, egitekoa edo ez egitekoa den:

- (1) Emateko betebeharretan, gorputz jakina ematea (adibidez, motorra edo soinekoa) berez zatiezina da.
- (2) Egiteko betebeharretan, prestazioaren objektua lan-egunak badira (esaterako, detektibearen zerbitzuak), obra unitatez unitate egitea bada (etxea egitea, adibidez) edo antzeko zerbait bada, betebeharra izaeraz zatigarria da, zatika bete baitaiteke.
- (3) Ez egiteko betebeharretan, kasu bakoitzean prestazioak duen izaeraren arabera erabakiko da zatigarritasuna eta zatiezintasuna. Hala ere, eskuarki, zerbait ez egiteko betebeharrak nekez onartzen du mailaketa edo graduaziorik.

Betebeharraren zatiezintasunak jatorri desberdina izan dezake:

- (1) *Zatiezintasun naturala*. Prestazioaren izaerak betetze partziala galarazten du (KZren 1151. art.). Esaterako, txakurra ematea.
- (2) *Zatiezintasun hitzartua*. Prestazioa berez zatigarria bada ere, alderdiek zatiezintasuna hitzartzen dute (KZren 1255. art.). Adibidez, diru kopurua osorik ordaintzea edo etxe osoa margotzea.
- (3) *Zatiezintasun legala*. Legearen manamendu batek ezartzen badu prestazioaren zatiezintasuna. Hala, KZren 1149. artikulua dioenez, betebeharrean zordun eta hartzekodun bakarrak baldin badaude, prestazioaren izaera zein den kontuan hartu gabe, beti zatiezina izango da prestazioa eta, ondorioz, ezingo da zatika bete, alderdiek ez badute aipatze bidez baimentzen behintzat (KZren 1169. art.). Arazoa sortzen da betebehar-harremanean hartzekodun edo zordun anitz egon eta prestazioa zatiezina bada. Orduan, beharrezkoa izango da hartzekodun eta zordun guztien jarrera bateratua. Arazoa gero azalduko da berriz, subjektu-aniztasuna duten betebeharrak aztertzerakoan (solidaritatea eta mankomunitatea).

4. BETEBEHAR BATERAGARRIAK, ALTERNATIBOAK ETA AHALMENEZKOAK

Objektua kontuan harturik, betebeharra bakuna edo konplexua izan daiteke: bakuna bada, prestazio bakar batek osatuko du betebeharraren objektua; konplexua bada, berriz, prestazio anitzek osatuko dute betebeharraren objektua. Azken kasu horretan, prestazioko objektuak izan daitezke bateragarriak, alternatiboak edo ahalmenezkoak.

- (1) *Betebehar bateragarria*. Betebehar-prestazioak bi edo gehiago izan eta, betebeharra betetzeko, denak bete behar dira —hartzekodunak denak galda ditzake—. Esaterako, betebeharra berez ematekoa izan, eta eman behar dira

ordenagailua, inprimagailua eta eskanerra (tresneria informatiko osoa).

(2) *Betebehar alternatiboa*. Betebeharra prestazio anitzek osatzen dute, baina zordunak nahikoa du bakarra betetzea betebeharra betetzat jotzeko — hartzekodunak bakarra galda dezake— (KZren 1131. art.). Esaterako, betebeharra berez ematekoa da, baina liburu hau edo beste hau eman behar da.

Beraz, beharrezkoa da zein prestazio beteko den aukeratzea; teknikoki esanda, prestazioa *kontzentratzea*. Zehaztu egin behar da aukera *nork* egin lezakeen ere; alde horretatik, legeak zordunari egozten dio aukeratzeko ahalmena, beti ere hartzekodunari ez bazaio ahalmen hori eman aipatze bidez (KZren 1132. art.). Halaber, alderdiek horrela hitzartu badute, hirugarren baten esku ere utz daiteke aukeraketa.

Behin *aukera* egin eta beste alderdiari jakinarazten zaionetik, eraginkorra da (KZren 1133. eta 1136. art.); alegia, betebeharrak berez alternatibo izateari utzi eta betebehar bakun bihurtu da (KZren 1136. art.).

Baina, *bien bitartean*, aukeratzeko eskubidea —ahalmena— baliarazi baino lehenago alegia, gerta liteke prestazioren bat edo batzuk galtzea edo ezinezko bihurtzea. Orduan, erabaki behar da *nork* jasango dituen galera horretatik eratorritako ondorioak. Kode Zibilak hainbat arau ematen ditu, honako hauek kontuan izanik:

(a) Aukeratzea zordunaren ahalmena bada, zera agintzen du: *zordunak aukera- eskubidea galduko du, berak hautabidez bete behar dituen prestazioetatik bat bakarrik gauza daitekeenean* (KZren 1134. art.). Kasu horretan ez du axolarik galera edo ezintasuna zordunaren erruz sortu den edo ezustekoa izan den, aukeratzeko ahalmena berea baita. Baina, zera gehitu behar da: zordunaren erruz prestazio guztiak ezinezko bihurtzen badira, orduan hartzekodunak eskubidea izango luke kalte-galeren ordaina eskatzeko (KZren 1135. art.). Ordainaren zenbatekoa zehazteko, kontuan hartuko da desagertu den azken gauzaren balioa edo ezinezko bihurtu den azken zerbitzuarena.

(b) Aukeratzea hartzekodunaren ahalmena bada:

(a') Prestazioa ustekabean galdu bada, hartzekodunak bere aukera- eskubidea gainerako prestazioen artetik egikaritu ahal izango du.

(b') Prestazioa zordunaren erruz galdu bada, hartzekodunak aukera dezake gainerako prestazioen artetik edo zordunaren erruz galdu den gauzaren balioa.

(c') Zordunaren erruz prestazio guztiak galdu badira, aukerak prezioari eragiten dio.

(3) *Abalmenezko betebeharra*. Prestazio bakarrak osatzen du zorra eta, beraz, hartzekodunak prestazio hori bakarrik galda dezake; baina, aldi berean, aurreikusi ez den beste prestazio batekin betebeharra betetzeko ahalmena ematen zaio zordunari eta, ondorioz, hartzekodunak galdatu ezin duen prestazioa betetzeko du betebeharra zordunak. Esaterako, bidaiarako bide jakin bat hitzartu da agentziarekin, baina agentziak norabidea aldatzeko ahalmena jasotzen du. Horrela, zordunak beti aukera dezake prestazio bat edo beste betetzea, baina hartzekodunak prestazio zehatza galdatzeko ahalmena besterik ez du.

Gainera, horrelako kasuetan, prestazio bakarra ezustean suntsitzen bada, betebeharra iraungi egiten da. Beraz, hartzekodunak ezin du galdatu betebeharra betetzerik, zordunak beste prestazio bat betetzeko aukera bazuen ere. Betebehar alternatiboetan, ordea, prestazio bat ezustean galtzeak ez du eragozten beste prestazio batekin bete beharra.

5. DIRUZKO BETEBEHARRA: INTERESAK ORDAINTZEAK, DIRUAK BALIOA GALTZEAK, PRINTZIPIO NOMINALISTA ETA EGONKORTZE-KLAUSULAK

5.1 Diruzko betebeharra

Diruzko betebeharrean, objektua —prestazioa edo zorra— diru kopuru bat ematea da. Betebehar mota horrek arreta berezia eskatzen du, trafikoko juridikoan garrantzitsuena baita; ezein gizarte modernotan, diruzko betebeharrak dira ohikoenak eta arruntenak.

Dirua ondasun bat da, berez higigarria, generikoa, suntsigarria, zatigarria eta likidoa. Gizartean eskualdatzeak eta ondasun-aldaketak bideratzeko baliabide orokorra da; ondasunak eta zerbitzuak eskuratzeko instrumentu erabilgarriena, hain zuzen. Horregatik, zerbait betetzeko garaian, partikularrek eta legeak ere biderik arruntena moduan hartzen dute.

Diruaren beste funtzioa neurri-unitatea izatea da; alegia, ondasunen balio ekonomikoa adierazten du. Eskuarki, zerbaiten balioak, erreferentzia gisa, moneta-unitate zehatz bat izango du.

Dirua, modu fisikoan (errealitate material gisa), moneta metalikoaren edo paperezko monetaren bidez agertzen da, eta balio bat ordezkatzeko du, hain zuzen, Estatuak egotzi diona. Horregatik, legez ordaintzeko baliabide orokorra gisa ezartzen denean, legezko erabilera duela esaten da.

Diruak balioa du, baina hiru ikuspegitatik begira daiteke:

(1) *Berezko balioa*. Monetak eta billeteak fabrikatzeko erabiltzen den materialaren balioa. Argi eta garbi dago berezko balioa beti izango dela monetak ordezkatzeko duen balioaren parekoa edo txikiagoa —euro txanpona fabrikatzeko erabiltzen den metalak moneta horretan agertzen den balioaren pareko balioa edo txikiagoa izan behar du—.

(2) *Balio nominala*. Monetak adierazten duen balioa da, Estatuaren araudiak egotzen diona. Adibidez, estatuak 500 euroko balioa esleitzen dionean billete bati, horrek ez du esan nahi billetearen berezko balioa 500 eurokoa denik, baizik eta billete horrekin 500 euroko balioko erosketak egin daitezkeela, esaterako.

(3) *Erabileran duen balioa, hau da, komertzioa edo trafikoko balioa*. Moneta mota bakoitzari komertzioan esleitzen zaion eskuratzeko boterea ordezkatzeko du. Halaber, kotizazio-neurria, beste sistema batzuen moneta-unitatearekiko.

Balio horien artean beti gertatzen da bat ez etortzea, bizi-mailaren gorabeherak direla eta; izan ere, monetak balio-galtzeak jasaten ditu inflazioaren ondorioz.

Diruzko betebeharra			
Nagusia	Kapitala	Zehaztea	
		Egonkortzea	
Osagarria	Interesak	Hitzartuak	Ordaintzailea
			Berandutzakoa
		Legezkoak	Ordaintzailea (konpentsatzailea)
			Berandutzakoa

5.2 Diruzko betebeharrak

Diruzko betebeharraren prestazioa diru kopuru bat ematean datza. Hala ere, dirua betebeharraren objektu izan daiteke, hiru ikuspuntutatik:

(1) *Moneta-zorra*. Zorraren objektua izan daiteke mota zehatz bateko monetak ematea. Zordunak, prestazioa betetzeko, mota horretako monetak eman behar ditu, eta ez beste batzuk. Esaterako, 500 dolar.

(2) *Moneta zehatz batean zorra*. Indibidualki zehaztuta dagoen moneta bat zor da, eta bereziki zehaztuta dagoen moneta hori emanez bete ahal izango da zorra. Adibidez, bildumazale bati Isabel II erreginaren moneta bat emateko betebeharra.

(3) *Diru kopuru baten zorra*. Diru kopuru edo kantitate bat zor da, beste inolako zehaztasunik gabe. Kasu horretan, diruaren generoaren barruan, edozein moneta emanez betetzen da zorra, legezko erabilerakoa bada eta kontuan izanik moneta horien balio nominala.

Azken mota hori da benetako diruzko betebeharrak gisa hartzen dena trafiko

ekonomikoan. Besteek trataera desberdina izan behar dute; moneta zehatz bateko zorrak betebeharrak espezifikoen eraentza jarraituko du, eta ez generiko eta suntsigarrien eraentza —esanahi hertsiko diru-zorrei aplikatzen zaiena—.

5.3 *Betetzera*

Diruzko betebeharrak badute ezaugarri nagusi bat: dirua emateko betebeharrak beti bete daitezke, dirua hiper-suntsigarria baita eta ez baita inoiz desagertzen.

Betetzeari dagokionez, legeak zera dio: *diru-zorren ordainketa hitzartutako espezieaz egin beharko da, eta, ezin bada espezie hori eman, Espainian legezko erabilera duen zilarrezko edo urrezko txanponaz* (KZren 1170. art.).

Artikulu bereko bigarren lerroaldeak onartzen ditu kanbio-letra, zor-agiriak, txekuek eta merkataritzako beste dokumentu batzuk ere, dirua ordaintzeko baliabide gisa. Hala ere, betebeharrak ez da betetzat joko, dokumentu horiek gauzatu —dirutu— arte, zordunak ezin baitu behartu hartzekoduna Espainian legezko erabilera duen diruaren ordean merkataritzako dokumentuak onartzera.

5.4 *Diruak balioa galtzea. Printzipio nominalista. Egonkortze-klausulak*

Diru-zorra betetzeko betebeharrak denboran zehar luzatzen bada, monetaren balioak, inflazioaren eraginez, aldaketak jasaten ditu eta, ondorioz, baita betebeharrak ere; eratzten den unetik bete behar den egunera arte, balioa askotan ez da berdina izaten.

Diruaren balioak handitzerik edo —arruntagoa dena— galerarik jasaten badu, betebeharrak harremanean parte diren subjektuek ere aldeko edo kontrako eraginak jasan beharko dituzte. Dena den, diruzko betebeharrak betetzeko *printzipio nominalista* jarraitzen da, abiapuntu gisa behintzat. Printzipio horren arabera, monetaren balioak edo eskuratzeko botereak jasan izan duen aldaketa edonolako izanik ere, betebeharrak sortzean zehaztutako diru kantitatea ordaindu beharko du zordunak. Beraz, betebeharrak diru-betebeharrak bada, zehaztu den moneta-unitate kopurua eman beharko da, kontuan izan gabe igaro den denbora eta monetak jasan dituen gorabeherak.

Merkataritza Kodeko 312. artikuluan jasotzen da printzipio nominalista: *consistiendo el préstamo en dinero, pagará el deudor devolviendo una cantidad igual a la recibida con arreglo al valor legal que tuviere la moneda al tiempo de la devolución*. Kode Zibilak 1170. artikuluan aurreikusten du.

Printzipio nominalistak ezartzen duen soluzioaren aurrean, bidezkoa ez den soluziotzat hartu izan baita, beste ideia bat defendatu eta garatu izan da:

balioaren tesia. Ideia horren arabera, diruzko betebeharra betetzeko, zordunak hartzekodunari ordaindu beharko dio betebeharra eratu zen unean diruak zuten eskuratze-botere beraren balioa.

Badirudi irtenbide hori bidezkoagoa dela, baina gatazka ugari sorraraziko lituzke, betebeharren balioa zehazteko alderdiek ados jarri beharko luketelako erabiliko diren irizpideetan. Legeak, horregatik, printzipio nominalistaren alde egiten du.

Hala ere, printzipio nominalistaren eragin negatiboa zuzentzeko, hainbat baliabide erabil daitezke. Mekanismo horien helburua da diruaren benetako balioa eta balio nominala egokitzea unean-unean. Horrela, monetaren gorabeherengatik, zordunak betebeharraren hasierako kantitatea ez baina beste bat ordaindu beharko du hurrengo kasuetan:

- (1) *Legeak* hala ezartzen badu: legez zuzentzeko erabakia salbuespenezko egoeretan hartzen da, esaterako Gerra Zibilaren osteko *Ley de Desbloqueo, de 7 de diciembre de 1939* delakoan, Errepublikako moneta zehaztutako diruzko betebeharrak eguneratzeko; edo nekazaritza-errentamendu berezietan, errenta eguneratzeko modua gariaren prezioaren arabera jakitea.
- (2) *Judizialki* ezartzen bada: diruak ezustean balioa galtzen badu, kaltetuak eska dezake kontratua berrikustea, desoreka konpontzeko; horri deritzo *rebus sic stantibus* klausula.
- (3) Alderdiek *egonkortze-klausulak* ezar ditzakete, betebeharra eratzen dutenean eta diruaren balio-galtzearen ondorio larriak saihesteko. Modu hori da, hain zuzen ere, merkatuan ohikoena.

Diruzko betebeharrean ordainketa atzeratzen bada eta monetaren eskuratze-boterea saihestu nahiko balitz, harremanean dauden alderdiek, beren borondatez, diru-zorra egonkortzeko klausula aurreikus dezakete. Horretarako, erreferentzia gisa jokatu duen modulu edo patroia bat ezartzen da, zeinaren arabera betebeharra asetzeko eman beharko den diru kantitatea zehaztu ahal izango baita. Helburu hori lortzeko, ahalik eta patroia aldagaitzena erabiltzea komeni da, prestazioaren balioa egoki egonkortu nahi bada behintzat.

Honako hauek dira diruzko prestazioa egonkortzeko klausula arruntenak:

- (1) *Urrearen edo zilarren arabeko balio-klausulak*. Urrearen edo zilarren balioa edo prezioa erabiltzen da, betebeharraren betetze-egunean bete beharko den diru kantitatea kalkulatzeko.
- (2) *Eskala mugikorra edo indize aldakorraren klausula*. Denboran zehar luzatzen diren betebeharretan erabiltzen da; esaterako, errenta ordaintzeko betebeharrean. Klausula horien arabera, ordaindu behar den diru-prestazioa produktu jakinen balio-aldaketaren proportzioan aldatuko da (petrolio, garia, olio, eta abar) edo balio-indize baten proportzioan (KPI).

(3) *Ordainketa merkantziak emanaz egiteko klausula.* Diruaren ordeaz beste zerbaitez ematen da. Betebeharra diruzkoa da baina, balio-galtzea ekiditeko, beste ondasun bat (garia, burdina, ikatza, eta abar) emanaz beteko da ordainketa. Berez, zorrak diru-zor izateari uzten dio, eta beste zor bat da —dirua ez den beste zerbaitez ematea—.

(4) *Atzerriko moneta-klausulak.* Nazioko monetak balioa galduko duela aurreikusten bada, ekonomikoki egonkorragoa den atzerriko moneta batekin ordaintzea hitzar daiteke. Atzerriko moneta hori erreferentzia moduan ere erabil daiteke, Espainian legezko erabilera duen nazioko monetan zenbat eman behar den zehazteko.

5.5 *Interesak ordaintzeko betebeharra*

(1) *Kontzeptua.* Interesa deritzo diru kopuru (kapital) batek ekonomikoki —ez fisikoki— sortzen duen ekoizpenari. Beraz, kapital bat emateko betebeharrari lotuta, interesak ordaintzeko betebeharra izango da kapital horrek sortutako ekoizpena —beste diru kopuru bat— emateko ere zorra jasotzen duen betebeharra.

(a) Interesak ordaintzeko betebeharra osagarria da berez. Betebeharraren objektua da beste norbaiten kapitala —dirua— erabiltzeagatik ordaindu behar den diru kopurua. Kapital hori erabiltzeko aukerak sortzen du, batetik, kapital hori itzultzeko betebeharra eta, horri lotuta, sor daiteke interesak ordaintzeko betebeharra ere: hura berez nagusia da, eta bestea, ordea, osagarria. Beraz, interesak ordaintzeko betebeharrak betebehar nagusiaren dinamikari jarraituko dio —izateko eta iraungitzeko—.

(b) Interesa izango da dirua edo berez suntsigarria den beste zerbaitez. Kopurua zehazteko, kapitalaren zenbatekoa eta erabili den denbora izango dira kontuan.

(c) Interesa, eremu juridikoan, egunez egun sortzen den fruitu zibila da (KZren 451. art.); beste epealdirik ere hitzar daiteke, noski.

(2) *Interes motak.*

(a) Hitzartutako interesak. Interesak ordaintzeko betebeharra alderdiek, beren borondatez, hitzartu badute. Interes horiei legeak muga jartzen die, kopuruaren ikuspegitik: *será nulo todo acuerdo en el que se estipule un interés notablemente superior al normal del dinero y manifiestamente desproporcionado con las circunstancias del caso (interés usurario) o en condiciones tales que resulte aquél leonino, habiendo motivos para estimar que ha sido aceptado a causa de una situación angustiosa, de inexperiencia o de una limitación de facultades mentales (Ley de usura –Ley Azcárate-, de 23 de julio de 1908).*

(b) Legezko interesak. Interesak legeak ezartzen baditu. Horien kopurua ere legeak berak ezartzen du: *el interés legal se determina aplicando el tipo básico del Banco*

de España vigente el día en que comience el devengo de aquél, salvo que la Ley de Presupuestos Generales del estado establezca uno diferente (art. 1, Ley de 29 de junio de 1984). Aldi berean, bi motatakoak izan daitezke:

(a') Berandutzako interesak. Betebeharra betetzeko garaian, zorduna berandutzan erortzen bada: *betebeharra bada diru-kopuru bat ordaintzea, eta zorduna berandutza-egoeran jarri bada, kalte-galeren ordaina izango da, aurkako itunik izan ezean, kasuan-kasuan hitzartutako interesak ordaintzea, eta, hitzarmenik ez badago, legezko interesak ordaintzea* (KZren 1108. art.).

(b') Interes konpentsatzaileak edo ordaintzaileak. Beste pertsona baten kapitala erabiltzeagatik erator daitekeen bidegabeko aberastea saihesteko ezartzen direnak: *interesak zor dira, gauzaren ematetik prezioaren ordainketa arteko denboran zehar saldu eta emandako gauzak fruituak edo errentak ematen baditu* (KZren 1501. art.).

Urtea	Legezkoa	Berandutzakoa	Urtea	Legezkoa	Berandutzakoa	Urtea	Legezkoa	Berandutzakoa
1986	10'50	13'125	1994	9	11	2002	4'25	5'50
1987	9'50	12	1995	9	11	2003	4'25	5'50
1988	9	11'50	1996	9	11	2004	3'75	5'75
1989	9	11	1997	7'50	9'50	2005	4	5
1990	10	12	1998	5'50	7'50	2006	4	5
1991	10	12	1999	4'25	5'50	2007	5	6'25
1992	10	12	2000	4'25	5'50	2008	5,5	7
1993	10	12	2001	5'50	6'50	2009	5,5	7

Vid. Estatuko aurrekontuoi buruzko Legea, urteko azken egunetako Buletin Ofizialean

Arau honek trataera berezia ematen die enpresen arteko edo enpresaren eta Administrazioaren arteko merkataritza-eragiketeki, berandutza automatikoa ezarri eta interes-tasa handiagoa aurreikusiz:

Ley 3/2004, de 29 de diciembre, por la que se establecen medidas de lucha contra la morosidad en las operaciones comerciales.

(3) *Anatozismoa edo interesen interesak.* Anatozismoaren (interes konposatuaren) arabera, dagoeneko zor izan eta oraindik ordaindu ez diren interesak gai dira legezko interesak edo hitzartutako interesak sortzeko: *mugaeguneratutako interesek legezko interesak sortzen dituzte haiek judizialki erreklamatzeko direnetik, nabiz eta betebeharrak horren inguruan ezer ez esan* (KZren 1109. art.).

6. BETEBEHAR MANKOMUNATUA ETA BETEBEHAR SOLIDARIOA

Ikasi denez, edozein betebeharratan bi alderdi daude: hartzekoduna eta zorduna. Alderdi bakoitzean, berriz, hartzekodun edo zordun bakarra egon daiteke (pertsona bakarreko betebeharra), edo hartzekodun edo zordun anitz

egon daitezke (pertsone anitzeko betebeharra).

Horrelako kasuetan, zehaztu beharra dago alderdi bereko bi pertsona edo gehiagoren arteko harremanak ahalbidetzeko eraentza. Legeak bi eraentza posible aurreikusten ditu: mankomunitatea eta solidaritatea. Horrelako betebeharretan, beraz, zehaztu beharko da bi eraentza horietatik zein aplikatzen zaien alderdi bereko subjektuei (KZren 1137.-1148. art.).

(1) *Betebehar mankomunitatea*. Betebeharra mankomunitatea bada, prestazioa zatitu egiten da bai bete behar duenarentzat, bai galda dezakeenarentzat; zordun bakoitzak prestazioaren zati bat bete behar du eta hartzekodun bakoitzak, beste aldean, bere zatia soilik galdatzeko ahalmena du. Horrela, harremanean parte hartzen duten subjektuak zenbat, hainbestetan zatituko da prestazioa; gainera, zati horiek betebeharrezko lotura berdinetik sortu arren, beren artean desberdinak diren kreditu eta zortzat hartuko dira. Esate baterako, Ak 3.000 euro zor badizkie bi hartzekodun desberdinei, prestazioa beteko du hartzekodun bakoitzari 1.500 euro ordainduz; eta, alderantziz, Ak eta Bk 3.000 euro zor badizkiote Cri, azken honek bakoitzari 1.500 euro eskatu ahal izango dizkio.

A	→	B1	+	B2	+	Bn
----------	----------	-----------	----------	-----------	----------	-----------

Alderdi bakoitzean dagoen subjektu kopurua kontuan izanda, betebehar mankomunitatea izan daiteke: mankomunitate aktiboa —hartzekodun anitz badaude—, pasiboa —zordun anitz badaude—, edo mistoa —zordun eta hartzekodun anitz baldin badaude—.

Betebehar mankomunitatuaren eraentzan, sortzen diren *efektuak* zehazteko, kontuan hartzen da ea prestazioa zatigarria edo zatiezina den:

(a) Prestazioa *zatigarria* bada (esaterako, errenta ordaintzeko hainbat maizter izatea), edozein hartzekodunek edo zordunek egikari dezake bere eskubidea edo bete dezake betebeharra, gainerakoak laguntzarik gabe. Gainera, zordun bat kaudimenik gabea bada, ez du zamatzen gainerako zordunen betebeharririk, ez baitaude behartuta besteen ez-betetzea ordezkatzera (KZren 1139. art.).

(b) Prestazioa *zatiezina* bada (esaterako, ebakuntza batean anestesistaren lana eta zirujauaren lana), alderdi bakoitzak betebeharraren eskaera edo betetzea batera egin beharko du, ezin baita prestazioa partzialki bete. Kasu honetan ere, alderdi baten ez-betetzeak ez ditu behartzen gainerakoak haren hutsunea betetzera. Hala ere, prestazioa zatiezina denez, legeak betebeharra betetzea posible egiteko, kalte-galeren ordaina ematea betebehar bihurtzea agintzen du, dirua zatigarria baita berez (KZren 1150. art.). Ez-betetzea sorrarazi ez duten zordunek kalte-galeren ordaina osatzeko egin beharko duten ekarpena, beti ere betetzeko prest agertu badira, gauzaren edo zerbitzuaren prezioetik zegokien proportziora murriztuko da, eta ez dute beste kalteen erantzukizunik hartu

beharrik izango.

Azkenik, *presuntzio* garrantzitsu hau ezartzen da: subjektu anitzeko betebeharra beti mankomunatua izango da eta ez solidarioa, aipatze bidez kontrakorik hitzartzen ez den bitartean (KZren 1137. art.).

(2) *Betebehar solidarioa*. Hartzekodun bakoitzak zor den prestazioa osorik eskatzeko eskubidea du, eta zordun bakoitzak osorik betetzeko betebeharra (KZren 1137. art.). Beste modu batera esanda, betebehar solidarioan subjektu bakoitza prestazio osoaren hartzekodun edo zordun da; edonork edonoren aurrean bete dezake prestazioa eta, alderantziz, edonork edonori eska diezaioke prestazioa osorik betetzeko.

A	→	B1	edo	B2	edo	Bn
----------	----------	-----------	------------	-----------	------------	-----------


Betebeharra solidarioa izateak hartzekodunari aukerak zabaltzen dizkio bere interesa asetzeko, zordun bakoitzak bere ondare osoarekin hartuko baitu betebeharra betetzeko erantzukizuna.

Lehen adierazi denez, betebeharra berez solidarioa dela ez da inoiz uste izango, aipatze bidez ezarri behar baita. Horregatik, eraentza hori aplikatuko da alderdiek hitzartu badute, edo legeak agintzen badu (esaterako, KZren 1084., 1731. edo 1748. art.).

Betebehar solidarioak betetzeari begira dituen ondorioak zehazteko, nahitaezkoa da bereiztea solidaritatea aktiboa edo pasiboa den:

(a) Solidaritate aktiboa (hartzekodun anitz). Hartzekodun bakoitzak edozein zorduni eska diezaioke prestazio osoa betetzeko. Baina, zorra kobratu duen hartzekodunak, jarraian eta hala badagokio, kobratutakoa besteen artean eta bakoitzari dagokion proportzioan banatu beharko du (KZren 1143.2 art.). Bestalde, zordunak, betebeharra betetzeko, nahikoa du hartzekodun bakar baten aurrean betetzea; gainerako hartzekodunen aurrean betetzeko betebeharririk ez du, bati ordainduz gero betebeharra jadanik iraungi baita.

(b) Solidaritate pasiboa (zordun anitz). *Hartzekodunak jo dezake zordun solidarioetatik edozeinen aurka edo horien guztien aurka aldi berean. Zordun baten aurka jarritako erreklamazioak ez dira oztopo izango geroago gainerako zordunen aurka jarritako erreklamazioetan, zorra oso-osorik kobratzen ez den bitartean* (KZren 1144. art.). Zordun batek betebeharra betetzen badu, betebehar-harremana iraungi egingo da (KZren 1145.1 art.); baina ordainketa egin duenak, hala badagokio, gainerako zordun kideei ordaindutakoa eskatu ahal izango die, bakoitzari dagokion proportzioan (KZren 1145.2 art.) —beste betebehar-harreman bat sortzen da, beraz, haien artean—.



Betebehar solidarioan, zordun bat kaudimenik gabea bada, gainerako zordun kideek hutsune hori bete beharko dute dagokien proportzioan (KZren 1145.3 art.).

Bukatzeko, betebehar solidarioetan erantzukizuna ere partekatu egiten da. Zera agintzen du legeak: zordun solidarioen errurik gabe gauza galdu egiten bada edo zerbitzua ezinezko bihurtzen bada, betebeharra iraungi egingo da; baina, edozein zordunen erruz gertatu bada, denek erantzungo dute hartzekodunaren aurrean (KZren 1147. art.). Horiek atzerabide-akzioa izango dute, errudunaren edo arretarik gabe jardun duenaren kontra.

7. ALDEBAKARREKO ETA ALDEBIKO BETEBEHARRA. BETEBEHAR ELKARKARIAK

Alderdien arteko harreman juridiko batean, betebehar bat edo gehiago egon litezke; eta, hala balitz, beren artean egon liteke harremanik ere:

(1) *Aldebakarreko betebeharra*. Lotura bakar bat dago eta, beraz, pertsona bakar bat behartzen da beste baten aurrean, azken horrek bere gain beste betebeharririk hartu gabe. Esaterako, lagun bati liburua uzten bazaio, liburua itzultzeko betebeharra du hark, eta liburua utzi dionak ez du harekiko inolako betebeharririk.

(2) *Aldebiko betebeharra*. Ez du adierazi nahi betebeharrean bi alderdi daudela, betebehar orotan baitaude bi alderdi; esan nahi da bi alderdien arteko harreman juridikoan betebehar anitz daudela, non subjektu bera betebehar batean hartzekodun baita eta bestean zordun. Gainera, eskuarki —ez beti—, betebehar horiek *elkarkariak* izango dira, alegia batak bestearekiko existentzian du izateko arrazoia. Esaterako, salerosketan bi betebehar daude: gauza ematea eta prezioa ordaintzea; lehena saltzaileak bete beharko du, eta bestea erosleak; gainera, betebehar horiek beren gain hartu dituzte beste betebeharrean hartzekodun direlako.

Aldebiko betebehar elkarkarietan, elkarrekikotasun-harremanetik eratortzen diren efektu edo ondorio bereziak daude:

(a) Nork bete aurrena bere zorra. Legeak kontrakorik ez badu agintzen edo alderdiek kontrakorik ez badute hitzartzen, prestazioak aldi berean bete behar dira (KZren 1100., 1124. eta 1466. art.). Horrela, alderdi batek ez badu berea betetzen, besteak ez du berea bete beharririk; edo alderdi batek betetzen badu, baina ez osorik, beste alderdiak akatsak konpondu arte ez betetzeko aukera izango du (*non adimpleti contractus* salbuespena).

(b) Berandutzako unea. *Elkarrekiko betebeharretan, betebeharpeko bat ez da*

berandutza-egoeran jartzen, besteak ez badu behar bezala betetzen berari dagokiona, edo, betetzeko beren beregi eskatua izan, hala egiteko adostasuna erakusten ez badu. Betebeharpeko adostasuna erakusten ez badu. Betebeharpeko batek bere betebeharra betetzen duenetik, berandutza hasten da bestearentzat (KZren 1100.3 art.).

(c) Suntsiarazteko ahalmena. Alderdi batek bere betebeharra ez badu betetzen, berea bete duenak edo betetzeko asmoa agertu duenak alternatiba bat du: besteari betetzeko eskatzea edo harreman juridikoa suntsiarazteko eskatzea (KZren 1124. art.). Gainera, kasu batean zein bestean, kalte-galeren ordaina ere eska dezake. Harremana suntsitzea bidezkoa izateko, ez da nahikoa edonolako ez-betetzea; auzitegiek eskatzen dute ez-betetze horrek garrantzi nabarmena izan behar duela alderdien interesentzat. Beraz, ez da nahikoa berandutza hutsa egotea, ez-betetze larria egotea ere eskatzen baita.

8. BETEBEHAR NAGUSIA ETA OSAGARRIA

Betebehar desberdinen artean sor daitekeen erlazio mota kontuan izanda, betebeharra nagusia edo osagarria izan daiteke, beste batekiko:

(1) *Betebehar nagusia*. Betebeharrak berez eta independenteki du existentzia, beste inolako betebeharren menpe egon gabe, betebeharreko bi alderdiek horren objektua osatzen duen prestazioan baitute interes garrantzitsuena.

(2) *Betebehar osagarria*. Betebeharraren dinamika edo bizitza bera —sortzea, eragina izatea, iraungitzea— beste betebehar nagusi baten menpe dago. Betebehar osagarriak beti jarraitzen du betebehar nagusiaren dinamika, eta hari gertatzen zaionak erabat eragingo dio; hala, betebehar nagusia deuseza deklaritzen bada, betebehar osagarria ere iraungi egingo da (KZren 1155. art.); alderantziz, berriz, inoiz ez. Esate baterako, zerbait emateko betebeharrak berekin darama gauza zaintzeko betebeharra ere, hura eman arte.

Kontuan izan betebeharreko subjektuak —eskuarki, zordunaren alderdian— desberdinak izan daitezkeela. Horrelakorik gertatzen da fidantzan: adibidez, banketxeak mailegua eman norbaiti eta hark dirua itzultzeko betebeharra hartzen du bere gain; aldi berean, beste norbaitek fidantzako betebeharra hartzen du banketxearekiko, dirua itzultzeko betebeharra betetzen ez badu fidatzaileak dirua eman beharra ezartzeko.

9. BETEBEHAR HUTSA, BALDINTZAPEKOA ETA EPEDUNA

Betebeharra galdagarri noiz izango den kontuan izanda, bereizi egiten dira:

(1) *Betebehar hutsa*. Betebeharraren dinamika —sortzea, eragitea eta

iraungitzea— ez dago kanpoko beste inguruabarren menpe. Eta hala, betebeharraren sortzen den unetik prestazioa galdagarria izango da (KZren 1113. art.). Beraz, betebeharraren hutsean, hartzekodunak galdatzen dionean bete beharko du prestazioa zordunak, lehenago bete badezake ere.

(2) *Baldintzapeko betebeharra*. Betebeharrak eraginak sortzea baldintzapean jar daiteke; hau da, etorkizuneko eta ezezaguna den zerbait gertatuko ote den har daiteke erreferentzia-puntutzat, betebeharraren eraginak moldatzeko. Bi dira baldintzapeko betebeharraren ezaugarriak: etorkizuneko eta ezezaguna den gertaera zehaztea; eta betebeharraren eragina baldintza osatzen duen gertaera gauzatzearen edo ez gauzatzearen menpe jartzea. Beraz, iraganeko zerbaiten berri izatea alderdiek ez ezagutzea da, eta beraz ez da baldintza (KZren 1113. art.).

Baldintzak betebeharraren gain duen eraginaren ikuspegitik, izan daiteke (KZren 1114. art.):

(a) *Baldintza esekitzaila*. Betebeharra sortu da baina haren eraginak esekita daude baldintza gertatu bitartean. Gertatuko balitz, orduan izango du eragina betebeharrak. Esate baterako, ikasturtea gainditzen badu, gurasoek bizikleta oparitzea umeari.

Baldintza gertatu bitartean betebeharra sortu da, baina ezin da betebeharra betetzeko eskatu. Horregatik, baldintza bete baino lehenago zordunak prestazioa betetzen badu (KZren 1121.2 art.), ordaindutakoa bueltatzeko eska dezake. Bien bitartean, baldintza gertatu aurretik, hartzekodunak bere balizko eskubidea babesteko erabakiak hartzeko eska dezake (KZren 1221.1 art.), subjektu pasiboa behartuta baitago prestazio posiblearen objektua babestera eta hura ezinezko bihurtu dezaketen egintzak ekiditera; esaterako, gurasoek bizikleta oparitzea agindu badiote umeari ikasturtea gaindituz gero, hark ezingo du bizikleta hori saldu. Prestazioaren objektua galtzeari, narriatzeari eta hobetzeari buruz erregela bereziak ematen dira, zordunaren errurik izan duen edo ez kontuan hartuta (KZren 1122. art.). Gero, baldintza betetzean, betebeharra berez hutsa bailitzan izango ditu eraginak, eta haren efektuak baldintzapeko betebeharra eratu zen unera arte atzeratuko dira (KZren 1120.1 art.).

(b) *Baldintza suntsiarazlea*. Betebeharra sortu da eta eraginak ditu; baina baldintza gauzatuko balitz betebeharra suntsitu egingo litzateke eta, beraz, eraginak eten egingo lirateke.

Baldintza gertatu bitartean, betebeharra galdagarria da eta haren efektu guztiak sortzen ditu betebeharraren hutsa izango bailitzan (KZren 1113.2 art.). Baldintza betetzen denean, berriz, betebeharra suntsitu egiten da eta alderdiek atzera

itzuli beharko dituzte jasotakoak; emateko betebeharretan ez da arazo berezirik sortuko, baina egiteko eta ez egiteko betebeharretan auzitegiek zehaztuko dute nola gauzatu atzerako eragina. Baldintza suntsiarazlea ez bada betetzen —jadanik ezinezkoa da gertatzea—, dagoeneko sortu eta bete den betebeharra erabat sendotuko da eta suntsitzeko arriskutik kanpo geldituko da.

Baldintzak sailkatzeko, badaude beste irizpide batzuk ere:

- (a) Baldintza zeren esku geratzen den kontuan hartuta:
 - (a') Hautazko baldintza. Etorkizunekoa eta ezezaguna den egintza gauzatzea alderdi baten borondatearen menpe gelditzen den baldintza. Legeak deusezak deklaritzen ditu hautazko baldintzen menpe dauden betebeharrak (KZren 1115. art.). Normalean, horrelakoetan hirugarren baten esku uzten da betebeharra.
 - (b') Baldintza kausala. Erabat zortearen menpe dagoen baldintza.
 - (c') Mistoa. Zati batean alderdien borondatearen menpe eta, beste batean, egintza arrotz baten menpe dagoen baldintza.
- (b) Baldintzaren edukia kontuan hartuta:
 - (a') Positiboa. Zerbait gertatzea da kontua (KZren 1117. art.).
 - (b') Negatiboa. Zerbait ez gertatzea da gauza (KZren 1118. art.).
- (c) Baldintzaren gertagarritasuna kontuan hartuta:
 - (a') Posiblea. Gauzatu daitekeen gertaera da baldintza. Halaber, ez da onartzen legeen, moralaren eta ohitura onen kontrako baldintzarik.
 - (b') Ezinezkoa. Gauzatu ezin daitekeen gertaera, edo legeen, moralaren eta ohitura onen kontrakoa bada baldintza. Ezinezko baldintzak betebeharraren deuseztasuna sortuko du; eta baldintza zerbait ez egitea bada, ez jarritzat joko da (KZren 1116. art.).

Bukatzeko, kontuan izan behar da, baldintza gertatzea zordunak eragotzi badu, orduan baldintza betetzat joko dela (KZren 1119. art.).

(3) *Betebehar epeduna*. Betebehar hauetan ezin da eskatu prestazioa betetzeko, data jakin bat iritsi arte. Baldintzan ez bezala, ziurtasuna dago betebeharra betetzea noizbait galdagarri izango dela; ziurtasun hori da epearen ezaugarria. Horregatik, betebehar epedunak eraginak izango ditu sortzen denetik, baina ezin da betebeharra betetzeko eskatu epea iritsi arte. Adibidez, norbait hiltzean etxearen jabe bihurtzea.

Horrelako betebeharretan, arazoa da *epearen onura* norik duen zehaztea (KZren 1127. art.); izan ere posible da, epea aurrera doan heinean, hartzekodunaren interesentzat arriskuak sortzea, epea iristean bakarrik eska baitezake betebeharra betetzeko. Horregatik, zordunak galdu egingo du hainbat kasutan epearen onura (KZren 1129. art.):

- (a) Betebeharra bereganatu eta gero, kaudimen gabezia egoeran erortzen bada eta, beti ere, zorra ez badu bermatzen.

(b) Bermeak emateko zin egin, eta ez baditu ematen.

(c) Bermeak eman eta gero, zordunaren egintzaz gutxitzen badira edo ustekabean desagertzen badira, aurrekoak bezain seguruak diren berme berriak ematen ez badira behintzat.

Zordunak epea iritsi baino lehenago betetzen badu zorra, ezingo du berreskuratu ordaindutakoa. Baina, ordaindu zuenean ez bazekien betebeharra epeduna zenik, hartzekodunak epealdi horretan eskura zitzakeen interesak eta fruituak eska ditzake.

Epea kontatzeko moduari dagokionez, epea egunetan adierazita badago, lehen eguna kontaketatik kanpo geldituko da eta hurrengo egunetik hasi beharko da kontatzen (KZren 1130. art.).

Betebeharren iturriak		Betebeharrak zehaztu banan-banan		
Betebehar bakoitza aztertzeko				
ESTATIKA				
Hartzekoduna	Kopurua			
	Gaitasuna			
	Zehaztea	Izenez		
		Irizpidez		
Zorduna	Kopurua			
	Gaitasuna			
	Zehaztea	Izenez		
		Irizpidez		
Objektua	Posible izatea			
	Zilegia			
	Zehaztea	Zehaztua		Objektiboa
		Irizpidea		Subjektiboa
Ondarekoa				
Izaera	Barneko lotura	Objektua	Positiboa/Negatiboa	
			Espezifikoa/Generikoa	
			Zatigarria/Zatiezina	
			Bateragarria/Alternatiboa/Ahalmenezkoa	
		Diruzkoa		
		Subjektuak	Mankomunatuak/Solidarioak	
	Eraginkortasuna	Baldintza		
		Epea		
Kanpoko lotura beste betebeharrekin	Nagusia / Osagarria			
	Aldebarrekoa / Aldebikoa (elkarkariak)			
DINAMIKA				
Aldatzea				
Betetzea				
Iraungitzea				

IV. IKASGAIA

BETEBEHARRA ALDATZEA, BETETZEA ETA IRAUNGITZEA

AURKIBIDEA. 1. Betebeharra aldatzea: kontzeptua eta aldaketa subjektiboak. 2. Betebeharra betetzea: betetze arrunta eta modu bereziak. 3. Betebeharra iraungitzea: zor den gauza galtzea edo prestazioaren berehalako ezintasuna, zorra barkatzea, eskubideen konfusioa, konpentsazioa, berritzea.

1. BETEBEHARRA ALDATZEA: KONTZEPTUA ETA ALDAKETA SUBJEKTIBOAK

Betebeharra sortzen den unetik iraungi arte, haren egiturako elementuek aldaketak izan ditzakete betebeharra iraungi gabe. Berritzeak jasan ditzake, alegia: iraungitzailea (*propia*: aurreko betebeharra iraungi eta berria sortzea) edo aldatzailea (*impropia*: betebeharra aldatu egiten da, baina lehengoa da). Beraz, betebeharrean aldaketak sar daitezke betebeharra iraungiarazi gabe.

Betebeharreko elementuen ikuspegitik, aldaketak topa daitezke (KZren 1203. art.):

- (1) Elementu subjektiboetan: zorduna eta hartzekoduna (hirugarren batek hartzen du horien lekua); zordunak zorra eskualda diezaioke eta hartzekodunak kreditu-eskubidea laga diezaioke beste norbaiti.
- (2) Elementu objektiboetan: objektua edo baldintza nagusiak; esaterako, ordaindu beharreko errenta berri bat hitzartzea.

BETEBEHARRA ALDATZEA			
Subjektua Aldaketa subjektiboa	Hartzekoduna	Kreditua lagatzea	
		Kredituan subrogatzea	Hitzaemenez Legez
	Zorduna	Zorra eskualdatzea	
Objektua Aldaketa objektiboa	Prestazioa		
	Inguruabarrak	Epea	
		Lekua	
		Baldintzak / Modua	

Praktikan, lehenengoak dira arazotsuenak eta, horregatik, legeak trataera berezia ematen die:

(1) *Kreditu-eskubidea lagatzea*

Kreditu-eskubidea lagatzeak, betebeharreko hartzekoduna —subjektuetako bat— aldatzea dakar. Hartzekoduna aldatzea, eskuarki, negozio juridiko baten ondorio izaten da, non hartzekodunak (lagatzaileak) beste pertsona bati

(lagatakoaren hartzaileari) kreditu-eskubidearen titularitatea eskualdatzen baitio. Horrela, azken hori betebeharraren hartzekodun bihurtzen da. Esate baterako, kanbio-letra bat banketxeak hartzen duenean, nahitaezko deskontua egin ostean.

Salmenta arautzeari buruzko arauen artean kokatzen da kreditu-eskubidea lagatzeari buruzko eraentza (KZren 1526. eta hurrengo artikulua). Kontu izan, horrek ez baitu esan nahi lagapena salmentaren bidez bakarrik gauzatu daitekeenik; beste negozio batzuk erabil daitezke kreditu-eskubidea lagatzeko, besteak beste, trukea, dohaintza eta abar.

Lagatze-negozioan, kontuan izan behar dira:

(1.1) Parte hartzen duten *subjektuak*: (a) lagatzailea (jatorrizko hartzekoduna) eta (b) lagatakoaren hartzailea (hartzekodun berria). Lehenengoak zein bigarrenak lagatze-negozioa gauzatzeko eskatzen den gaitasuna izan behar dute. Lagatako zorraren zorduna, berriz, hasierakoa da; hark ez du parte hartzen lagatze-negozioan eta, beraz, haren adostasunik ez da behar; gainera, lagatze horren berri eman beharrik ere ez dago, azken batean uste baita zordunari berdin zaiola nori ordaindu. Dena den eta nahitaezkoa izan ez arren, komeni da zordunari jakinaraztea, jakin ezean hasierako hartzekodunaren eta ez benetakoaren aurrean bete baitezake zorra: *el deudor, que antes de tener conocimiento de la cesión satisface su deuda al acreedor (cedente), quedará libre de la obligación* (KZren 1527. art.). Beraz, zordunari ez bazaio jakinarazten eta jatorrizko hartzekodunaren aurrean betetzen badu zorra, betebeharretik aske geratuko da. Beste kontu bat da hartzekodun berriari kaltea sortuko zaiola, lagatzaileak bidegabeki kobratu baitu zorra; orduan, benetako hartzekodunak lagatzaileari eskatu ahal izango dio kreditu-eskubidearen objektua.

(1.2) Lagatze-negozioaren *objektua*, berriz, hartzekodunak bere alde duen kreditu-eskubidea izango da. Beraz, kreditu-eskubideak benetan existitu eta jatorriz baliozko egintza batetik sortua izan behar du. Halaber, kreditu-eskubide horrek berez eskualdagarria izan behar du. Printzipioz, kreditu-eskubide oro da eskualdagarria (KZren 1112. art.), hauek izan ezik: (a) legez norberak konplitu beharrekotzat jotzen direnak (esaterako, mantenu-kreditua kobratzeko eskubidea); eta (b) alderdiek hala hitzartutakoak: akordio bidez debekatzen bada kreditu-eskubidea eskualdatzea.

(1.3) Negozioak bete beharreko *formari* dagokionez, ez da inolako betekizun berezirik eskatzen negozioa egiteko; forma-askatasuna dago, beraz. Hala ere, laga behar den kreditu-eskubidea eskritura publikoan jaso beharrekoa bada, lagatzeko negozioak ere forma berbera errespetatu beharko du (KZren 1280.6 art.); esaterako, hipoteka-mailegua bada (Hipoteka Legearen 149. art.)

(1.4) Lagapenaren *efektuak* negozioa egiten den unean bertan sortzen dira.

Efekturik nagusiena lagatzailearen kreditu-eskubidea hartzekodun berriari eskualdatzea da, eta horrekin batera, gainerako eskubide osagarri guztiak ere lagatzen dira (fidantza, hipoteka, lehenetasuna, bahitura).

Lagatzaileak, eskualdatzeko garaian eta hartzekodun berriaren aurrean, kreditu-eskubidearen existentziaz eta legitimitateaz erantzungo du, beti ere *zalantzagarri* gisa besterendu ez badio. Bestalde, eskualdatzearen aurretik zorduna publikoki kaudimenik gabea bada, lagatzailea ere erantzule izango da, aipatze bidez erantzukizun hori baztertu ez bada behintzat.

Kreditu-eskubide *gatazkatsuak* lagatzeko aukera ere onartzen da (KZren 1535. art.). Kreditu-eskubidearen existentzia, eraginkortasuna edo legitimitatea egon daiteke ezbaian jadanik hasitako prozesu judizial batean —demanda jarri eta demandatuak erantzuna eman badio demandari—. Kasu horretan, zordunak kreditu gatazkatsua iraungitzeko ahalmena du (hartzekodun berriari eskubidea eskuratzeko ordaindu zuena), gastuak eta interesak emanaz. Horretarako, bederatzi eguneko epea du zordunak, hartzekodun berriak ordaintzea eskatzen dion unetik kontatuta.

(2) *Kreditu-eskubidean subrogatzea*

Hartzekodunaren lekuan beste hirugarren bat jartzeko bigarren aukera subrogazioaren bidetik dator. Hirugarrenak —betebeharreko subjektu ez den norbait— hartzekodunaren lekua hartuko du —subrogazioz— zor den prestazioa ordaintzen badu; orduan, hartzekodun berri bilakatuko da. Hartara, aurreko hartzekodunaren kreditu-eskubidearen titular bihurtuko da: *Subrogazioaren bidez, subrogatuari kreditua eskualdatzen zaio, horri erantsitako eskubide guztiekin batera, bai zordunaren aurka, bai eta hirugarrenen aurka ere, hirugarren horiek fidatzaile izan zein hipoteken edukitzaile izan* (KZren 1212. art.).

Zertan bereizten dira kreditu-eskubidea lagatzea eta subrogatzea:

- (a) Sortzeko modua: lagapena negozio bidez gertatu eta beti borondatezkoa da berez; subrogazioa, eskuarki, ez da borondatezkoa izaten, legeak agindua baizik.
- (b) Xede ekonomikoa: lagapena espekulazioan oinarritzen da; subrogazioa, aldiz, zordunaren aldeko laguntza da, askotan eskuzabaltasunez egina.
- (c) Objektua: lagapenean, hartzekodun berriak kreditua osorik galda dezake; subrogazioan, berriz, benetan ordaindu duena bakarrik galda dezake hartzekodun berriak.

Bi subrogazio mota bereizten dira:

- (a) Hitzartutako subrogazioa. Aurreko hartzekodunaren eta berriaren arteko

negozio bidez gauzaten da; ez da beharrezkoa zordunaren parte-hartzea. Esate baterako, KZren 1209.2 artikulua aipatze bidezko deklarazioa eskatzen du subrogazioa eratzeko, bestela ez baita onartuko.

(b) Legezko subrogazioa. Legeak ezartzen dituen kasuetan emango da. Hain zuzen ere, hurrengo kasuetan subrogazioa legez ezarri dela usteko da (KZren 1210. art.):

(a') Hartzekodun batek lehentasuna duen beste hartzekodun bati ordaintzen badio.

(b') Betebeharrean interesik ez duen hirugarrenak, aipatze bidez edo isilbidez, zordunak onartuta ordaintzen badu. Kasu horretan, aurreko hartzekodunaren eskubidean subrogatzeko, zordunak hirugarrenak egindako ordainketa onartzea galdatzen da.

(c') Ordaintzen duen hirugarrenak betebeharra betetzeko interesa baldin badu, kontuan izanda hark ordaindu beharreko zatiarekin sortzen den nahasmenaren efektuak (esaterako, hainbat zordun solidaritatezkoak badira).

Subrogazioz egindako ordainketaren efektuak eta kreditu-eskubidea lagatzeagatik sortzen direnak berdinak dira. Hartzekodunaren pertsona aldatzen da, baina ez da betebeharra iraungitzen.

Bestalde, kontuan izan behar da subrogazioa osoa edo partziala izan daitekeela, hirugarrenak prestazio osorik edo zati bat bakarrik ordaindu izanaren arabera.

Bukatzeko, mailegutan kontuan izan behar da KZren 1211. artikulua: *zordunak hartzekodunaren adostasunik gabe egin dezake subrogazioa, zorra ordaintzeko dirua maileguan hartzen duenean eskritura publikoaren bidez, eskritura horretan bere asmoa agerraraziz eta ordainagirian ordaindutako kopuruaren etorburua adieraziz*. Arau hori garatuz, mailegua hipotekaz bermaturik dagoen kasua arautzeko, kontuan izan behar da 2/1994 Legea, martxoaren 30ekoa, hipoteka-maileguak subrogatzeari eta aldatzeari buruzkoa: *las entidades financieras a las que se refiere el artículo 2 de la Ley 2/1981, de 25 de marzo, de Mercado Hipotecario, podrán ser subrogadas por el deudor en los préstamos hipotecarios concedidos, por otras entidades análogas, con sujeción a lo dispuesto en esta Ley. La subrogación a que se refiere el apartado anterior será de aplicación a los contratos de préstamo hipotecario, cualquiera que sea la fecha de su formalización y aunque no conste en los mismos la posibilidad de amortización anticipada*.

(3) Zorra eskualdatzea

Zorra eskualdatzeak ere aldaketa subjektiboa sortzen du betebeharrean. Baina, kasu horretan, zordunaren pertsona aldatzeagatik (KZren 1203. art.):

zordunaren lekuan beste zordun bat jartzen da, betebeharrak iraungi gabe, noski.

Horrelako aldaketa bat zordunak jakin gabe egin daiteke, baina inoiz ez hartzekodunaren baimenik gabe. Betekizun horrek badu zentzua; izan ere hartzekodunari asko axola zaio zorduna pertsona bat edo bestea izatea, batek betetzeko asmo izan baitezake eta gainera kaudimenduna izan, eta bestea ez. Azken batean, bereizi egin behar da zer den erantzukizuna —ideia abstraktu gisa pertsona orori dagokiona— eta erantzuteko gaitasuna —bakoitzaren kaudimena—.

Hartzekodunak zorduna aldatzea onartzen badu, gero ezingo dio aurreko zordunari eskatu berriaren kaudimen gabeziak erantzuteko (KZren 1206. art.), bi ustekizun hauetan izan ezik:

- (a) Kaudimenik eza alde aurrekoa eta publikoa bada.
- (b) Zordunak, bere zorra emateko garaian, egoera horren berri izan eta hartzekodunak ez bazuen ezagutzen.

Betebeharra betetzea bermatzen duten hirugarrenek ez badute eskualdatzea onartzen, bermeak iraungi egingo dira, bermatzaileari ere interesatzen baitaio zorduna zein den.

Zorra bi modutan eskualda daiteke:

- (a) Promeste bidez: hartzekodunaren eta zordun berria izango denaren arteko akordioa, zeinaren bidez bigarren horrek aurreko zordunaren lekua eta zor den prestazioa ordaintzeko betebeharra bere gain hartzen baititu, aurreko zordunak ezer jakin eta onartu beharrik gabe.
- (b) Delegazioz: zorra eskualdatzeko akordioa aurreko zordunaren eta berriaren artean egiten da, beti ere hartzekodunak onartuta.

2. BETEBEHARRA BETETZEA: BETETZE ARRUNTA ETA MODU BEREZIAK

2.1 Betetze arrunta

Betebeharraren xede nagusia da betebeharra ordaintzea edo betetzea, ordainketa edo betetzearen bitartez hartzekodunak bere kreditu-eskubidea aseko baitu eta zorduna betebeharratik askatuko baita. Beraz, betebeharra iraungitzeko kausen artean, lehena da ordainketa (KZren 1156. art.), praktikan ohikoena, bestalde.

(1) *Kontzeptua*

Berez, ordainketa hitzak, esanahi arruntean, diru kopurua ematea esan nahi du; baina, zentzu juridikoan, betetze hitzak jasotzen duen trataera berbera du; alegia, termino biak sinonimoak dira eta legeetan baliokidetzat hartzen dira, esaterako, Kode Zibilaren 1156. eta 1157. artikuluetan. Beraz, ordainketa-ordaintze hitzak prestazio mota oro aipatzeko balio du, diruzkoak izan edo ez.

Beraz, betetzea edo ordaintzea da zor den prestazioa zuzen gauzatzea, objektua edozein delarik ere. Hala nola, zuzen eta garaiz, agindutako gauza edo dirua ematea, zerbitzu bat ematea, zerbait egitea edo ez egitea, eta abar.

(2) Ordainketaren subjektuak

Ordaintzeko eragiketan parte hartzen duten subjektuak bi dira: *solvens* delakoa eta *accipiens* delakoa. Lehenengoa *ordainketa egiten duena* da, eta bigarrena *ordainketa jasotzen duena*.

(a) Ordaintzea: *solvens* delakoa

Hasteko, betebeharra *zordunak* berak ordaindu behar du. Aldi berean, beti ere betebeharra norberak konplitu beharrekoa ez bada, ordaintzeko betebeharra dute (a') zordunaren oinordekoak —haren ondare osoa jaso baitu— eta (b') beste norbaiten zorraren erantzukizuna hartzeko betebeharra hartu duenak —bermezko betebeharraren osagarriaren zordunak, esaterako fidatzaileak—. Horien izenean, ordezkariak ere —legezkoak zein borondatezkoak— ordain dezake betebeharra.

Gainera, betebeharra *edonork* bete dezake: *pertsona horrek betebeharraren betetzean interesa izan ez, zordunak hori jakin eta onartu nahiz hori jakin ez* (KZren 1158. art.). Aukera horrek, hartzekodunaren interesa asetzea du helburutzat; alegia, hartzekodunari, erregela orokor gisa, kreditu-eskubidea zuzen eta garaian asetzea interesatzen zaio, nork betetzen duen axola gabe. Beti ere, ordaintzaileak ordaintzeko legezko gaitasunik badu eta betebeharra ezartzerakoan ez badira kontuan hartu betebeharra bete behar duen pertsonaren kalitatea eta inguruabarrak (KZren 1161. art.). Kontuan izan, askotan, prestazioa zordunak betetzea dela harreman juridikoaren arrazoia, esaterako, herriko jaietan soinu-jole famatua kontratatzea.

Hirugarrenak hainbat modutan egin dezake ordainketa, eta modu bakoitzak ondorio desberdinak sortuko ditu (KZren 1158. eta 1159. art.):

(a') Zordunaren adostasunarekin. Orduan, zorra ordaindu duenak —*solvens* delakoak— ordaindu duena galdu ahal izango dio betebeharreko zordunari. Gainera, ordaintzailea aurreko hartzekodunaren lekuan jarriko

da eta horren kreditu-eskubidea eskuratuko du subrogazioz; ondorioz, betebeharra betetzeko eratu diren bermeak ere bereganatuko ditu (esate baterako, hipotekaren titularitatea edo fidatzailearen aurkako kreditu-eskubidea).

(b') Zordunak jakin gabe. Kasu horretan, ordaintzaileak ahalmena izango du betebeharreko zordunaren aurka ordaindutakoa itzultzea eskatzeko (KZren 1159. art.), baina ez da subrogatuko aurreko hartzekodunaren kreditu-eskubidean.

(c') Zordunaren borondatearen kontra. Hirugarrenak zordunari eskatu ahal izango dio ordaindutakoa itzultzeko, baina zordunarentzat erabilgarritasuna izan duen neurrian bakarrik, hau da, onura jaso izan duen heinean (KZren 1158. art.).

(b) Ordainketa jasotzea: *accipiens* delakoa

Erregela orokorraren arabera, betebeharraren hartzekodunari edo, bestela, haren izenean jasotzeko ahalmena duenari egin behar zaio ordainketa (KZren 1162. art.). Berez, hartzekodunak ordainketa jasotzeko gaitasuna izan beharko du; hala ere, jarduteko gaitasunik ez duen pertsonari egindako ordainketak efektuak sortuko ditu, beti ere hartzekodunari onurak sortu dizkiola frogatzen bada (KZren 1163. art.).

Gerta liteke hirugarren bati ordaintzea; orduan, ordainketa izaeraz deuseza izango da eta betebeharra iraungitzeko baliorik gabea. Hala ere, hirugarren bati egindako ordainketak eraginik izan dezake:

(a') Hartzekodunarentzat baliagarria suertatzen bada (KZren 1163.2 art.).

(b') Itxurazko hartzekodunari ordaintzen bazaio: *Kredituaren edukitzea duenari onustez egindako ordainketak zorduna askatuko du* (KZren 1164. art.); esaterako, jabeak etxea saldu, maizterrari jakinarazi ez, eta hark errenta beti bezala ordaindu badu.

(c') Benetako hartzekodunak berresten badu (KZren 1259. art.).

(d') Hirugarrenari egindako ordainketak, kontu-korrontearen gordailutzak onartzeko baimena eman badio hari —eskuarki, banketxeari— hartzekodunak. Eraginkortasuna hartzekodunaren eta zordunaren artean hitzartutakoaren menpe dago. Hala ere, ordainketa baliozkoa izango da, ordainketa kontu-korrontean sartu eta gero hartzekodunak ez badu ezer esaten —isilbidez onartu duela ulertuko da—.

(3) *Ordainketaren objektua*

Ordaindu beharreko objektuak zor den prestazioa izan behar du. Horregatik, prestazioa ordaintzeak, zorduna betebeharretik askatzeko, betekizun hauek bete behar ditu:

(a) Identitatea: betetzen den prestazioak eta hitzartu denak bat etorri behar dute:

(a') Betebehar espezifikoak bada, KZren 1166. artikulua.

(b') Betebeharra generikoa bada, KZren 1167. artikulua.

(c') Diruzko betebeharretan, legezko erabilera duten monetak emanaz bete beharko da, ezinezkoa bada hitzartutako moneta mota erabiliz egitea (KZren 1170. art.).

(b) Osoa: prestazioa osorik edo erabat bete behar da (KZren 1157. art.).

(c) Zatitu gabe: kontrakorik hitzartu ezean, prestazioa osorik une berean bete beharko da, baita berez zatigarria bada ere (KZren 1169. art.).

(4) *Ordaintzeko lekua eta unea*

(a) Non ordaindu. Ordainketa honako leku hauetan egin beharko da: hasteko, alderdiek hitzartu duten lekuan; betebeharra zerbait zehatza ematea bada, betebeharra eratzeko garaian gauza zegoen lekuan; bestela, zordunak egoitza duen lekuan (KZren 1171. art.).

(b) Noiz ordaindu. Hartzekodunak prestazioa betetzea noiztik galdatu ahal izango duen jakitea ere zehaztu behar da. Hasteko, alderdiek hitzartu dutena izango da kontuan. Ez bada ezer hitzartu, betebeharra zer-nolakoa den, legeak horren arabera ezarriko ditu irizpideak: (a') betebeharra hutsa bada, berehala betetzea eska liteke (KZren 1113. art.); (b') betebeharra epeduna bada, eguna iristen denean galdatu ahal izango da (KZren 1125. art.); (c') betebeharra baldintzapekoa bada, berriz, baldintza betetzen denean (KZren 1114. art.).

Betebeharrak ez badu eperik ezartzen, baina betebeharraren inguruabarretik edo izaeratik zordunari epea eskaini nahi zitzaiola ondoriozta badaiteke, auzitegiek zehaztuko dute betebeharraren iraupena; baita zordunaren borondatearen esku geratzen bada ere epea finkatzea (KZren 1128. art.).

(5) *Ordainketa egozteak*

Hartzekodunaren eta zordunaren artean berez berdinak eta galdagarriak diren hainbat betebehar baldin badaude, honako arazo hau sortzen da: ordainketa zein betebeharri egotzi behar zaion.

Printzipioz, *zordunari* dagokio ordainketa betebeharretako bati egozteko ahalmena (KZren 1172. art.); zordunak ordaindu, hartzekodunak zordunari egozketa proposatu, eta hark onartuz ere egotz daiteke. Baina, zorrak *interesaké* sortzen baditu, eta ezer adierazi ezean, orduan legeak egozten du: lehenbizi interesak ordaindu behar dira, eta gero kapitala (KZren 1173. art.); hau da,

ordainketa ezin zaio kapitalari egotzi, interesak ordaindu arte.

Gainerakoetan, Kode Zibilak ematen ditu ordainketa egozteko irizpideak:

(a) Epemugaratutako betebeharretan ardura gehien duenari egotziko zaio ordainketa.

(b) Arduraz edo berez berdinak diren betebeharrak anitz baldin badaude, ordainketa proportzioan egotziko zaie.

(6) *Ordainketa frogatzea*

Zordunari dagokio, beti, ordainketa egin dela frogatzea (KZren 1214. art.). Horregatik, ordaindu duela frogatzeko baliabideak eman behar zaizkio.

Hasteko, zuzenbidean onartzen den edozein frogabide erabil dezake, hala nola lekukoak, aitortzea eskatzea, agiriak, eta abar. Hala ere, praktikan, ordainagiri bidez —*carta de pago, factura*— frogatzea izango da ohikoena. Ordainagiria hartzekodunaren aldebakarreko deklarazioa da, betebeharra ase dela aitortzeko. Kode Zibilean ordainagiria egiteko betebeharririk ezartzen ez bada ere, fede onez jokatu beharrik ekartzen du berekin ordainagiria emateko beharra, zordunak hala eskatuz gero. Hala eta guztiz ere, zenbait lege berezitan (esaterako, kontsumitzaileak babesteari buruzkoetan), ordainagiria eman beharra agintzen zaie merkatariari.

(7) *Ordainketaren gastuak*

Betebeharra ordaintzeak sortutako gastuei dagokionez, bereizi egin behar dira judiziozkoak eta judizioz kanpokoak (KZren 1168. art.):

(a) Judizioz kanpokoak badira, zordunak ordaindu beharko ditu —esaterako, ordainketa-lekuraino gauza eramateko egindako gastuak—, alderdiek kontrakoa hitzartzen ez badute behintzat.

(b) Judizialak badira, auzitegiak erabakiko du, Judiziamendu Zibilari buruzko Legeko manamenduen arabera.

BETEBEHARRA BETETZEA		
Subjektuak	<i>Solvens</i>	Zorduna
		Hirugarrena
	<i>Accipiens</i>	Hartzekoduna
		Hirugarrena
Moduak	Arrunta	Objektua
		Lekua
		Garaia
	Bereziak	Betebeharrak konpentsatzea
		Ondasunak lagaz ordaintzea

	Ordaintzeko zerbait ematea
	Ordainketa esleitzea

2.2 *Betetzeko modu bereziak*

Betebeharra ordaintzeko prozesuan, eragiketa korapilatzen duten egintzak ager daitezke. Egitate horiei ordainketa egiteko forma bereziak deritze. Kode Zibilak hauek aipatzen ditu: konpentsatzea, ondasunak lagaz ordaintzea eta kontsignatze bidez ordaintzea. Horiei beste forma berezi bat gehitu behar zaie: ordaintzeko zerbait ematea.

(1) *Kompentsazioa*

Bi pertsona bata bestearekiko zordun eta hartzekodun badira harreman desberdinetan, bataren eta bestearen zorrak konpentsatu egingo dira: *Kompentsazioa gertatuko da, bi pertsona, nor bere eskubidez, elkarren hartzekodun eta zordun direnean* (KZren 1195. art.). Beraz, konpentsazioak eskatzen du subjektu berdinen artean aurrez bi betebeharrak desberdin existitzea, baina alderantzizko hartzekodun eta zordun posizioetan.

Kompentsazioa izan daiteke: (a) osoa, zorrak berdinak izan eta erabat iraungitzen badira; edo (b) partziala, zorrak desberdinak izan eta bizirik jarraituko baitu, txikienari handiena osatzeko falta zaion neurrian.

Halaber, konpentsazioa izan daiteke: (a) legezkoa edo automatikoa, eraginak legez sortzen baitira, legeak ezartzen dituen betekizunak betetzen direnean eta alderdien borondatea kontuan izan gabe (KZren 1202. art.); edo (b) borondatezkoa, interesatuen arteko hitzarmenetik sortzen bada, legezkoa emateko behar den betekizunen bat falta denean.

Kode Zibilak *legezko* konpentsazioa bakarrik arautzen du (KZren 1195. eta 1196. art.):

(a) Zordun bakoitzak betebeharrak nagusiaren erantzukizuna hartu behar du eta, aldi berean, hartzekodun nagusia izan behar du bestean. Beraz, hartzekodunaren eta zordunaren arteko elkarrekotasuna eskatzen da.

(b) Zorrek, berez, izan behar dute diruzkoak edo gauza suntsigarriak —espezie eta kalitate berekoak—. Prestazioak hartara bakarrik dira homogeenak konpentsatzeko. Esaterako, ezingo da konpentsatu, automatikoki, diruzko zorra eta ordenagailua emateko zorra.

(c) Zorrak epemugaratuta egon behar dute; likidoak izateaz gainera, galdagarriak izan behar dute.

(d) Halaber, edonolako gatazkatik libre izan behar dute.

Konpentsatzearen ondorioz, zorrak bat egiten duten neurrian iraungiko dira, nahiz eta zordunek eta hartzekodunek horren berri ez izan (KZren 1202. art.). Beraz, automatikoa da berez legezko konpentsazioa, hau da, legeak aurreikusitako betekizunak betetzen badira, betebeharrak osorik edo partzialki iraungiko dira berehala, legearen eraginez eta alderdien borondatea zein den kontuan hartu gabe. Kontuan izan zenbaitetan egotzi beharra ere suerta daitekeela: *ordainketen egozketari buruz xedatutakoa bete beharko da konpentsazioa egiteko hurrenkeran* (KZren 1201. art.).

(2) Ondasunak laga ordaintzea

Zordunak ordaindu gabeko zorrei ezin badie aurre egin, badu ondasunak baliatuz ordaintzeko modu bat: hartzekodunari ondasunak laga, ondasunak baliarazi —salmenta bidez diru bihurtu— eta horrekin kredituak estaliz.

Zordunak bere ondasunak lagatzen dituenean, hartzekodunei ez die ondasunen jabetza-eskubidea eskualdatzen, haien edukitza eta administrazioa baizik. Aldi berean, hartzekodunei, beren kredituak kobratzeko, ondasun horiek saltzeko agindua ematen die zordunak. Lortutako dirua kredituak ordaintzeko erabiliko dute, iristen den neurrian.

Salmentarekin lortutako diru kopuruak zorraren balioa gainditzen badu, zordunari itzuli beharko zaio diferentzia hori (KZren 1175. art.).

Lagapena bi motatakoa izan daiteke:

- (a) Hitzarmenezkoa. Zordunaren eta hartzekodunen arteko akordio bidez gauzatzen da. Horretarako, hartzekodun guztien adostasuna behar da.
- (b) Judiziala. Agintari judizialaren baimenarekin eta parte-hartzearekin egiten da (KZren 1911. art. eta PZLren 1130. art.).

(3) Ordaintzeko zerbait ematea

Zordunak betebeharra bete dezake zor ez den beste prestazio bat betetz, beti ere hartzekodunak ordainketa hori onartzen badu; orduan, betebeharra osorik eta behin betiko iraungiko da. Berez, zordunak ezin du behartu hartzekoduna zor ez den prestazio bat jasotzera (KZren 1166. art.); baina, ordainketan beste zerbait ematea hartzekodunaren eta zordunaren arteko akordiotzat jo behar da. Betebeharrean hitzartutako prestazioa betetzen ez bada ere, hartzekodunak onartzen du beste prestazio batez betetzea, betebeharrak hura betetzeko kariaz.

(4) *Ordainketa eskaintzea eta kontsignatzea*

Zenbaitetan zera gerta daiteke: betetzeko garaia iritsi eta zordunak arazoak izatea zorra ordaintzeko eta, ondorioz, betebeharretik askatzeko, hartzekodunak prestaziorik ezin duelako jaso —esaterako, ezezaguna delako edo absente dagoelako— edo arrazoirik gabe ordainketa jasotzeari uko egiten diolako. Horrelakoetan, zordunak betebeharra bete eta iraungi dezake zor duen prestazioa kontsignatuz. Kasu horietan, zorra betetzen lagundu behar zaio zordunari, eta zordun izateari uzteko bideak eta babesak eskaini behar dizkio ordenamenduak; hain zuzen ere, hortxe datza kontsignatzearen funtsa. Kontuan izan behar da zordunak behartuta jarraitzen duela prestazioa erabat ase arte eta, eskuarki, ez zaio interesatzen egoera hori gehiago luzatzea; izan daiteke betebeharrak interesak sortzen dituelako, edo gauzari eusteak gastuak, galerak edo arriskuak dituelako.

Kontsignatzea ordaintzeko modu berezi bat da, eta honetan datza: zor den prestazioa agintari judizialari gordailuan uzten zaio, hartzekodunari ahalmenak emanez kontsignatutakoaren gain xedatzeko.

Kontsignatzea honako kasu hauetan *onartuko* da (KZren 1176. art.):

- (a) Hartzekodunak, arrazoirik gabe, ordainketa ez badu onartu nahi.
- (b) Ordainketa egin behar den garaian, hartzekoduna absente edo ezgaituta baldin badago.
- (c) Kreditu-eskubidearen titularra nor den ezbaian badago, bi pertsona edo gehiagoren artean.
- (d) Betebeharraren titulua galdu bada.

Legean aurreikusitako ustekizun horiez gainera, beste hauetan ere onartzen da:

- (a) Hartzekodunak ez badu ordainagiririk eman nahi.
- (b) Hartzekoduna ez bada garaiz aurkezten hitzartu den edo legeak ezarri duen lekura.

Prestazioa zuzen kontsignatzeko, legeak hainbat *betekizun* eskatzen ditu; batzuk kontsignatu aurretik bete beharrekoak, eta besteak, kontsignatu eta gero:

- (a) Zordunak, kontsignatu aurretik, ordaintzea eskaini behar dio hartzekodunari (KZren 1176. art.). Zordunak hartzekodunari zor den prestazioa betetzeko eskaintzak zuzena eta garaian egina izan behar du, betetzeko asmoa agerian jarriko duena, hartzekodunari kobra dezala eskatuz. Eskaintza horrek, nahiz eta gero prestazioa ez kontsignatu eta betebeharrak bizirik iraun, zenbait eragin sortzen ditu, beti ere bidegabeki uko egin bazaio kobratzeari —hartzekodunaren berandutza—: batetik, arriskuak hartzekodunaren lepora pasako dira eta, bigarrenik, zordunaren berandutza atertuko da. Horiek dira, hain zuzen ere, hartzekodunaren berandutzari

esleitutako efektuak. Gainerako ustekizunetan, ordainketa eskaintzea ez da alde zuzenetik egin beharreko betekizuna (KZren 1176.2 art.).

(b) Beharrezkoa da, kontsignatu aurretik, kontsignatzeko asmoa betebeharra betetzean interesa duten pertsona guztiei jakinaraztea ere (KZren 1177.1 art.). Betebeharra betetzean interesa izan dezakete bai hartzekodunak berak, bai beste interes legitimoren bat dutenek (hala nola fidatzaileak, zorkideak edo hartzekodun solidarioak).

(c) Kontsignatzeko modua izango da prestazioa gordailu judizialean uztea; prestazioak, noski, gordailuan uzteko modukoa izan behar du. Kontsignatzea, baliozkoa izateko, ordainketa arautzen duten arauetara egokitu beharko da. Beraz, kontsignatzea erabatekoa izan behar da, eta hitzartutako unean eginga.

(d) Kontsignatu eta gero, interesdunei jakinarazi behar zaie haren berri (KZren 1178. art.).

Prestazioa zuzen kontsignatu ostean, betebeharra *iraungitzea* ekarriko du. Hala ere, zuzen kontsignatu eta interesdunei jakinarazi eta gero, zera gerta daiteke:

(a) Hartzekodunak onartu arte edo epaileak zuzen kontsignatu dela deklaratu arte, betebeharrak indarrean jarraitzen du eta zordunak, hala nahi izanez gero, kontsignatu den gauza edo kantitatea berreskura dezake (KZren 1180. art.). Hala egingo balu (KZren 1180.2 art.), betebeharra ez da ordaindu eta ez da iraungi, eta hasierako egoerara bueltatuko da.

(b) Hartzekodunak edo, haren ordean, epaileak kontsignazioa onartzea. Hartzekodunak onartzen bada edo epaileak prestazioa zuzen kontsignatu dela deklaratu bada, ordainketa egiten da eta betebeharra iraungi egiten da. Ostera, zordunak epaileari zorra bertan behera deklaratzeko eska diezaioke; orduan, zuzen bete dela deklaratu duen autoak ordainagiri gisa balioko du.

Kontsignatzeak sortutako gastuak, zuzena bada, hartzekodunari egotziko zaizkio (KZren 1179. art.).

3. BETEBEHARRA IRAUNGITZEA: ZOR DEN GAUZA GALTZEA EDO PRESTAZIOAREN BEREHALAKO EZINTASUNA, ZORRA BARKATZEA, ESKUBIDEEN NAHASMENA, KONPENTSAZIOA, BERRITZEA

Betebeharra ordaintzea edo betetzea da hura iraungitzeko modurik arruntena; baina ez da bakarrik, honela ere iraungi baitaiteke: gauza galtzeagatik, zorra barkatzeagatik, hartzekodunaren eta zordunaren eskubideak elkar nahasten badira, konpentsazioz, edo betebeharra berritzen bada (KZren 1156. art.).

Horien ondoan, betebeharra iraungitzeko beste kausa batzuk ere badaude: betebeharra norberak bete beharrekoa izan eta zorduna desagertzea, baldintza suntsiarazlea betetzea, elkarren artean adostutakoa atzera botatzea —

desadostea—, preskripzio iraungitzailea betetzea, edo zordunaren aldebakarreko borondatez —denuntziaz— hala onartu bada.

(1) Zor den gauza galtzea edo prestazioaren berehalako ezintasuna

Ezintasuna hasieratik agertzen bada, betebeharra ez da sortu, ez da existitu, erabat deuseza da; hasierako ezintasuna ez da iraungitze-kausa izango, betebeharra sortzea eragotzi duen inguruabarra baizik. Betebeharra eratu ostean, prestazioa ezinezko bihur daiteke. Ezintasun horrek berehalakoa izan behar du, betebeharra bizirik dagoenean gertatua, alegia: *gauza zehatza emateko betebeharra iraungita geratuko da, gauza galdu edo suntsitzen denean zordunaren errurik gabe eta zorduna berandutza-egoeran jarri aurretik* (KZren 1182. art.).

Gauza espezifikoa galtzea edo suntsitzea bakarrik aipatzen du arauak. Beraz, kontuan izan behar da, gauza generikoa bada, betebeharra betetzea beti posible izango dela, genero eta kalitate bereko gauza batek ordeztu baitezake. Esaterako, ez da gauza bera partikular batek edo kontzesionario batek automobila saltzea, eta gero uholde batek suntsitzea. Hala ere, nahiz eta gauza zehatza izan, zorduna ez da erantzukizunetik askatuko, gauza galtzen denean berandutza-egoeran baldin bazegoen. Betebeharrak bizirik jarraituko du gauza galtzearen arrazoia ustekabeko kasua izan arren (KZren 1096.3 art.). Gauza zordunaren boterepean dagoela galtzen bada, haren erruz galdu dela usteko da —erruduntasun-presuntzioa— eta ez ustekabeko kausaz, kontrakorik frogatu badaiteke ere (KZren 1183. art.).

Egiteko betebeharrei dagokionez, betebeharra iraungi egingo da legez edo fisikoki ezinezko bihurtu bada (KZren 1184. art.)

Hala ere, gauza galtzearen ondorioz zordunak kalte-galeren ordainik jaso badu, hori eman beharko dio hartzekodunari; esaterako, gauza aseguratua baldin bazegoen (KZren 1186. art.).

(2) Zorra barkatzea

Barkatzea betebeharra iraungitzeko modua da, hartzekodunak uko eginez bere kreditu-eskubideari, ezerezaren truk. Barkatzeko bi modu daude (KZren 1187. art.):

(a) Aipatze bidez: borondatezko deklarazio bidez barkatzeko, dohaintza egiteko eskatzen diren formaltasunak bete beharko ditu.

(b) Isilbidez: deklaraziorik egin gabe, hartzekodunaren egintzetatik barkatzeko borondatea ondorioztatzea.

Batean zein bestean, zordunak onartzea ez da beharrezkoa izango; onartzen duela usteko da bi kasuetan (KZren 1188.1 eta 1189. art.). Bestalde, barkamena erabatekoa edo partziala izan daiteke.

Dena den, bidezkoa ez den dohaintzarentzat ezartzen diren arauak aplikatuko dira eta, ondorioz, hartzekodunak ezingo du zorrik barkatu bere hartzekodunen edo senipartedunen kaltetan. Horiek, beren interesak defendatzeko, barkamena gutxitzea eskatzeko ahalmena izango dute, barkatzeak kaltea sortzen dien heinean: (...) *eskubideei uko egitea (...) baliagarria izango da (...) hirugarrenak kaltetzen ez dituenean* (KZren 6.2 art.).

Barkamenak eta ordainketak efektu bera dakarte: betebeharra iraungitzea. Kontuan izan betebeharrak nagusia barkatu eta iraungitzen bada, osagarria ere iraungitzen dela, baina ez alderantziz (KZren 1190. art.).

(3) *Eskubideen nahasmena*

Pertsona bereberek hartzekodun izatea eta zordun izatea biltzen badira, nahasmena gertatzen da (KZren 1192. art.). Pertsona bera ezin daiteke, aldi berean, hartzekodun eta zordun izan. Dakigunez, betebeharrak bizirik jarraitzeko, beharrezkoa da subjektu aktiboa eta pasiboa bat ez etortzea.

Hartzekodunak zein zordunak zorraren titularitatea edo kreditu-eskubidea eskuratzea zuzenbideko edozein bidetatik etor daiteke; esate baterako, gurasoei diru kopuru bat zor izatea, baina haiek hil eta haien jaraunse bihurtzea.

Betebeharra osorik edo partzialki iraungi daiteke, betebeharra osorik hartzen duen edo zati bat besterik ez: *konfusioak zor mankomunatu iraungitzen du, hartzekodun- eta zordun-izakerak aldi berean zein pertsonarengan izan eta pertsona horri dagokion zatian* (KZren 1194. art.). Beraz, nahasmena erabatekoa izateko, betebeharrak solidarioa izan behar du subjektu anitz badaude alderdi batean.

Beti bezala, nahasmenak betebeharrak nagusiar eragiten badio (KZren 1193. art.), betebeharrak osagarriak ere iraungi egingo dira; ez, ordea, alderantziz.

(4) *Berritze iraungitzailea*

Betebeharra berritzea da ondorengo beste betebeharrak haren lekua hartzea; betebeharra aldatzea, aurrekoa iraungiaraziz. Betebeharrak berriak hasierako iraungitzen du, haren objektua, subjektua edo baldintzak aldatuz (berritze iraungitzailea) (KZren 1203. art.). Horrela, betebeharraren

elementuetan aldaketak gertatzen badira, betebeharra iraungi egingo da eta bestea sortu. Betebeharrari eragiten dioten aldaketek ez dute beti betebeharra iraungitzea ekartzen; gerta daiteke betebeharreko objektua edo subjektua aldatzea eta betebeharrak indarrean jarraitzea (berritze aldatzailea).

Berritzea berez iraungitzailea izateko, hau da, betebeharra iraungitzeko, honako betekizun hauek bete behar ditu:

(a) Iraungitzeko patua duen betebeharra existitzea; betebeharrak baliozkoa izan behar du. Berritzea deuseza izango da berritzen den betebeharra deuseza bada; ez, ordea, deuseztasun-kausa zordunak bakarrik susta badezake edo berritzeak egintza deusezak baliozko bihurtzen baditu (KZren 1208. art.).

(b) Jatorrizko betebeharra ordezkaturiko duen beste betebeharrak bat egitea, eta alderdiek kreditu-eskubideaz xedatzeko gaitasun nahikorik izatea.

(c) Jatorrizko betebeharra berritzeko borondatea egotea. Ez bada argi eta garbi agertzen zein den alderdien borondatea, betebeharra aldatu egin dela —ez iraungi— ulertu behar da. Berritzeko borondatea izan daiteke aipatze bidezkoa, modu erabakigarrian deklaratu bada, edo isilbidezkoa, betebeharrak zaharra eta berria erabat bateraezinak badira (KZren 1204. art.).

Hainbat berritze mota daude, aldatua izan den betebeharreko elementuaren arabera:

(a) Berritzea objektiboa izango da, betebeharraren objektuan, kausan edo baldintza nagusietan gertatzen bada aldaketa.

(b) Berritzea subjektiboa izango da:

(a') Zorduna aldatzeagatik zordun berri bat agertzen bada, hartzekodunaren eta betebeharraren zordunaren arteko akordioari jarraiki, edo hartzekodunak onartutako zordun zaharraren eta berriaren arteko akordioari jarraiki (KZren 1205. art.).

(b') Hartzekoduna aldatzeagatik betebeharra iraungitzen bada berri bat eratuz, non zorduna pertsona berbera baita, baina hartzekoduna ez.

Aurreko ikasgaiaren azalduenez, berritze subjektiboan zorduna hartzekodunaren adostasunarekin aldatu bada eta zordun berria kaudimenik gabea bada, hartzekodunak ezingo dio aurreko zordunari inolako erantzukizunik eskatu. Hala ere, erantzukizuna eskatu ahal izango dio kaudimen gabezia hori alde aurrekoa eta publikoa baldin bazen, edo zordunak bere zorra besterendu zuenean horren berri baldin bazekien (KZren 1206. art.).

Aurreko kasuetan bezala, betebeharraren nagusiaren dinamika jarraituko du betebeharraren osagarriak: *berritzearen ondorioz betebeharraren nagusia azkentzen denean, betebeharraren erantsiek iraun egingo dute, adostasuna zein hirugarrenek eman ez eta horrentzat probetxugarri diren heinean* (KZren 1207. art.).

(5) *Desadostea*

Aldebiko edo alde anitzeko negozio juridikoa, aurrez dagoen harreman juridiko bateko subjektu guztiek eginga, betebeharrak iraungitzeko.

(6) *Denuntziatzea*

Kontratuei buruzko araudian aurreikusten bada ere, ezin betebeharrak iraungi daiteke denuntziaz. Bere lekuan azalduko da.

V. IKASGAIA

BETEBEHARRA EZ BETETZEA

AURKIBIDEA. 1. Ez-betetzearen kontzeptua. 2. Nahita ez betetzea. 3. Zabarkeriaz ez betetzea: errua. 4. Ez-betetzeak sortzen dituen efektuak. 5. Ustekabeko kasua. 6. Berandutza.

1. EZ-BETETZEAREN KONTZEPTUA

Betebeharra ez da beteko zordunak ez badu gauzatzen zor den prestazioa, hartzekodunari interesatzen zaiona, azken batean. Halaber, ez da betebeharra beteko zordunak bete bai baina akatsekin edo berandu betetzen badu prestazioa.

Beraz, betebeharraren ez-betetzea dago:

- (1) *Behin betiko ez-betetzea* gertatzen denean: zordunak ez du bere betebeharra betetzen, zor den prestazioa jadanik ezinezko bihurtu delako —desagertu edo suntsitu delako— edo dagoeneko ezin duelako ase hartzekodunaren interesa.
- (2) *Betetze osatu gabea* gertatzen denean: zordunak betebeharreko loturan aurreikusten den prestaziora egokitzen ez den beste prestazio bat gauzatzen badu, akastuna azken batean. Hau da, prestazioa bete du, baina ez du modu egokian edo garai egokian bete. Esate baterako: prestazioko gauzaren zati bat bakarrik ematea; ezgaituta dagoen hartzekodunaren aurrean betetzea; betebeharrean aurreikusten den lekuan ez eta beste leku batean betetzea, eta abar.

Bigarren ustekizun horretan sartzen dira berandu egiten diren betetzeak ere, beti ere artean hartzekodunaren interesa ase badaiteke; kasu horretan, atzerapenak zordunaren berandutza sorraraziko du, beti ere legeak eskatutako betekizunak betetzen badira.

Betebeharra ez betetzeak ondorio hauek ekarriko dizkio zordunari: *eragindako kalte-galeren ordaina eman behar dute beren betebeharrak betetzean doluz nahiz zabarkeriaz jarduten dutenek edo berandutza-egoeran jarri direnek, bai eta edozein modutan betebeharron edukia urratzen dutenek ere* (KZren 1101).

Hala ere, ez-betetzearen ondorioak desberdinak izango dira, ez-betetzearen kausa zordunari egotz dakioken edo ez kontuan izanda:

- (1) *Egozten zaion ez-betetzea*. Zordunaren borondatearen menpe dauden kausek eragin dute ez-betetzea; azken batean, zordunaren dolua edo errua dago. Zordunari egotzitako ez-betetze kausa horrek hartzekodunari ahalmena ematen dio prestazioa nahitaez exekutatzeko eta kalte-galera ordaintzea eskatzeko (KZren 1101. art.).

(2) *Egotzi ezin zaion ez-betetzea*. Zordunaren borondatearen menpe ez dauden kausek eragindako ez-betetzea; azken batean, ustekabeko kausaz ez da bete prestaziorik. Zordunaren borondatetik at dauden kausek sortzen badute ez-betetzea, betebeharra iraungi egingo da eta zorduna betebeharretik askatuko da: *inork ez du erantzukizunik izango, aurreikusi ezin diren gertaerengatik, edo, aurreikusita ere, saihestezinak direnengatik* (KZren 1105. art.).

BETEBEHARRA EZ BETETZEA		
Prestazioa ez betetzea	Erabatekoa	Objektua desagertu edo suntsitu
		Hartzekodunaren interesa jada ezin ase
	Akastuna	Zehaztutakoa ez bete
		Garaiz kanpo
Zordunari	Egotzi	Dolua
		Errua
	Ezin egotzi	Ustekabeko kasua
Berandutza	Zordunarena	
	Hartzekodunarena	

2. NAHITA EZ BETETZEA: DOLUA

Dolua da betebeharraren borondatezko ez-betetze kausetatik larriena. Zorduna kontziente da zorra ez duela betetzen eta horrekin hartzekodunaren interes zilegiak kaltetzen dituela; fede gaiztoz jarduten du apropos. Beraz, zer da nahita ez betetzea? Betebeharra normal betetzea eragozten duen akzio edo ez-egitea, bidegabea dela jakinda eta kaltea sortzeko asmoarekin. Esaterako, arotzak hitzeman du etxea abuztuan konponduko duela, oporretan etxean inor ez dagoela aprobeztatuz; baina abuzturako ekonomikoki enkargu interesgarriago bat atera zaio, eta hura beteko du.

Zordunak doluz jokatu badu, sortutako kalteak eta galerak —KZren 1107.2 artikulua zehazten dituenak— konpontzeko betebeharra izango du: beste betebehar bat sortu zaio (KZren 1001. art.). Ez-betetze hori izanik kausarik larriena, zera agintzen da: *dolutik eratortzen den erantzukizuna betebehar guztietan eskagarria da eta hura eskatzeko aukerari uko egitea deuseza da* (KZren 1102. art.).

3. ZABARKERIAZ EZ BETETZEA: ERRUA

Errua ez da dolua bezain larria, ez baitago ez betetzeko borondaterik, baina erantzukizuna dakar berekin (KZren 1101. art.). Zer da zabarkeriaz ez betetzea edo errua? Zordunari galda dakiokkeen arretarik —diligentziarik— ez jartzea hark eta, horren ondorioz, ez-betetzea gertatzea.

Erruagatik sortzen den erantzukizuna ezartzeko, kontuan izan beharko dira betebeharraren inguruabarrak, horien arabera bakarrik ezarri ahalko baita ez-betetzeak duen larritasuna. Zordunak jarri beharreko arreta desberdina da kasu bakoitzean, eta horren arabera zehaztuko da erantzukizuna: *zordunaren erru edo zabarkeria da betebeharraren izaeraren arabera arreta beharrezkoa izan, eta pertsona, denbora eta lekua inguruko inguruabarrei egokitzen zaien arreta hori ez izatea* (KZren 1104. art.). Esate baterako, profesional batek jarri beharreko arreta haren prestakuntzak zehaztuko du.

Horregatik, garrantzi berezia du jarri beharreko arreta zehazteak eta, azken batean, legeak ezartzen duenari jarraituko dio: *betebeharrak adierazten ez duenean zaien arreta izan behar den hura betetzeari, familiako guraso on batek izango lukeena da eskatzeko modukoa* (KZren 1104.2 art.). Beraz, alderdiek zordunaren erantzukizunari buruzko erregelak ezar ditzakete, eta jarri beharreko arreta zehaztu, gehituz edo gutxituz.

Bestela, erruagatik sortuko den erantzukizuna mailakatzeko zeregina auzitegiei dagokie, kasu bakoitzean erabakiz zein arreta-maila eska dakioken zordunari eta, horren arabera, zer-nolako erruagatik erantzun behar duen zordunak (KZren 1103. art.).

Frogatzeari dagokionez, dolua hartzekodunak frogatu behar badu ere, zordunak frogatu beharko du errurik ez duela izan —beste modu batera esanda, arretaz jokatu duela— (KZren 1183. art.). Beraz, ez-betetzea dagoenean, uste izango da zordunaren erruz ez dela bete, beti ere zordunak arretaz jokatu duela frogatzen ez badu behintzat.

4. EZ-BETETZEAK SORTZEN DITUEN EFEKTUAK

Edozein ez-betetze mota gertatzen delarik ere, legea saiatzeko da betebeharrari eusten, eraginak sor ditzan. Beraz, zordunak ez badu betetzen betebeharra, hartzekodunak bere kreditu-eskubidea baliatu ahal izango du epaileen laguntzaz eta zera eskatu: (a) betebeharra betearazteko; hau da, zordunari eskatu ahal izango zaio bete gabe utzi duen prestazioa betetzeko (nahitaezko betetzea modu zehatzean); edo, bestela, (b) ez-betetzeak sortutako kalteak eta galerak ordaintzeko.

Betebeharra nahitaez betearaztea desberdina izango da, betebeharraren izaeraren arabera:

(a) Emateko betebeharra:

(a') Gauza zehatza edo espezifikoa: gauza ematera behartu daiteke.

- (b') Gauza generikoa: zordunaren kontura betebeharra betetzea eskatu ahal izango da.
- (b) Egiteko betebeharra:
- (a') Bere kontura beste norbaitek egitea edo gaizki egindakoa desegitea eska daiteke.
- (b') Norberak konplitu beharrekoa: beste inork ezin duenez egin, kalte-galeren ordaina ematera behartuko da.
- (c) Ez egiteko betebeharra: gaizki egin dena desegitea eta, posible ez balitz, kalte-galerak ordaintzea eska daiteke.

Hitzartu den prestazioa betetzea ez bada posible, edo hartzekodunaren interesa ez bada jadanik asetzen, prestazioaren baliokidea dirutan galda daiteke (*equivalente pecuniario*). Horretaz gainera, kalteak eta galerak estaltzea ere eska daiteke; horretarako, hartzekodunak horiek sortu direla frogatu beharko du. Azken hori, sortu den beste betebeharr bat izango da, eta haren edukian barneratuko dira:

- (a) Sortutako kaltea (*daño emergente*): jasan duen galeraren balioa.
- (b) Galdutako irabazia (*lucro cesante*): hartzekodunak jasotzeari utzi dion irabazia.

5. USTEKABEKO KASUA

Zordunaren borondatearekin zerikusirik ez duten kausek sortutako ez-betetzea da. Beraz, ez da zentzuzkoa zordunari inolako erantzukizunik eskatzea. Ustekabeko kasua dago aurreikusiezina den egintza batek edo, aurreikusgarria izan arren, saihestezina den egintza batek betebeharra betetzea erabat edo zati batean eragozten badu (KZren 1105. art.). Hala nola, gerra piztea, aparteko uholdea gertatzea, edo zorduna gaixorik jartzea.

Zordunak erantzukizunik ez du eta betebeharretik erabat askatzen da, galerak edo narriadurak prestazioari osorik eragiten badio; partziala balitz, bizirik dagoen zatian erantzungo luke.

Dena den, hurrengo kasuetan, betetzearen erantzukizuna hartu beharko du zordunak:

- (a) Legeak horrela ezarri badu (KZren 1182. eta 1744. art.).
- (b) Betebeharrean hala hitzartu bada.
- (c) Zorduna berandutzan erortzen bada (KZren 1096. art.).
- (d) Gauza bera bi edo gehiagori agindu badie (KZren 1096. art.).


Betebeharra betetzeko ezintasuna ez bada erabatekoa, zorduna behartuta egongo da prestazioa betetzera, ahal den neurrian. Ezintasuna ez bada behin

betikoa, behin-behinekoa baizik, zordunak ez du berandutzaren erantzukizunik hartuko; baina ustekabeko kasuaren efektuak iragan eta gero, bete egin beharko du betebeharra.

Zordunak frogatu beharko du ustekabeko kasua gertatu dela eta, horren ondorioz, betebeharra ezin izan dela bete (KZren 1183. art.).

6. BERANDUTZA

Berandutza, zentzu zabalean, betebeharra atzerapenez betetzea da. Esanahi juridikoan, berandutza zera da: betebeharra geroago betetzea eragozten ez duen atzerapena, prestazioa betetzea ezinezko ez bihurtzeko. Zenbaitetan, geroago betetzea ez da posible izaten, epea funtsezkoa delako edo hartzekodunaren interesa ezin delako ase; kasu horietan, behin betiko ez-betetzea dago.



Betebeharra atzerapenez betetzea gerta daiteke, zordunaren edo hartzekodunaren erruz. Zordunarenari *mora solvendi* deritzo, ordainketa egiteko garaian; eta hartzekodunarenari *mora accipiendi*, prestazioa jasotzeko garaian.

(1) Zordunaren berandutza

Zorduna berandutzan erortzen da, bere erruz atzeratzen bada betebeharra betetzea. Hala ere, betekizun hauek eskatzen dira atzerapena berez berandutza izateko (KZren 1100. art.):

- (a) Betebeharrak, berez, ematekoa edo egitekoa izan behar du eta, gainera, epemugaratua —galdagarria, beraz—.
- (b) Betebeharra betetzea atzeratu izana, betebeharreko norbaiten erruz.
- (c) Hartzekodunak zordunari betebeharra betetzeko eskatzea, judizialki edo judizioz kanpo.

Hala ere, berandutza sorrarazteko, hartzekodunak egin beharreko ordaintzeko

eskaera hori ez da beharrezkoa izango honako kasu hauetan:

- (a) Betebeharrak edo legeak aipatze bidez deklaritzen badute.
- (b) Betebeharraren izaeratik edo inguruabarretik eratortzen bada gauza ematea edo zerbitzua egitea erabakigarria izan dela hitzartutako garaian betebeharra hartzeko. Esaterako, oporretako etxean negua pasatzeko leihoak konpontzea hitzartu eta ez konpondu.

Betebeharrak elkarkariak badira, alderdi batek hari dagokiona betetzen ez duen bitartean, beste alderdia ez da berandutzan eroriko; alderdi batek bere betebeharra betetzen duen unetik hasiko da berandutza bestearentzat.

Berandutza	= betebeharra bete	+ kalte-galerak	
		+ beste efektuak	emateko betebeharrean
			egiteko betebeharrean

Zorduna berandutzan jartzen bada, betebeharra bete beharra izateaz gainera, kalte-galeren ordaina ere ordaindu beharko du (KZren 1101. art.). Hala ere, efektuak desberdinak dira betebeharraren izaeraren arabera:

- (a) *Emateko* betebeharretan:
 - (a') Betebeharra gauza ematea bada, gauzaren gaineko arriskuak bere gain hartuko ditu, ustekabeko kasuak ere bai (KZren 1096. art.).
 - (b') Betebeharra dirua ematea bada, berandutzako interesak hitzar daitezke; bestela, legezko interesak zor izango dira.
- (b) *Egiteko* betebeharretan: zordunak egozgarri zaion atzerapenetik sortutako kalte-galeren ordaina eman beharko du.

Berandutzaren efektuak atertu egingo dira, zordunari betebeharra betetzeko luzapena ematen bazaio. Halaber, atertuko dira betebeharra betetzen denean edo beste edozein kausagatik betebeharra iraungitzen denean; eta, betebeharrak elkarkarietan, beste alderdia ere berandutzan erortzen bada (KZren 1100. art.).

(2) *Hartzekodunaren berandutza*

Hartzekoduna berandutzan jarriko da betebeharra betetzeko garaian, zordunak eskaintzen dion betetzeari arrazoirik gabe uko egiten badio (esate baterako, etxea margotu behar duenari etxera sartzen ez uztea). Horren ondorioz, atzerapenez betetzetik sortzen diren kalteak jasan beharko ditu hartzekodunak.

Beraz, hartzekodunaren berandutzak betekizun hauek eskatzen ditu:

- (a) Betebeharra epemugaratua egotea.

- (b) Zordunak hartzekodunari ordainketa eskaintzea (KZren 1176. art.).
- (c) Betebeharra betetzeko hartzekodunaren laguntza beharrezkoa izatea eta hark, arrazoirik gabe, prestazioa jasotzeari uko egitea.

Ondorio hauek ekarriko ditu hartzekodunaren berandutzak:

- (a) Zordunaren berandutza baztertuko du.
- (b) Zordunak ez du erantzungo gauza ustekabean galtzen bada (KZren 1185. art.)
- (c) Prestazioa kontsignatuz, zorduna bere betebeharretik aska daiteke.

VI. KREDITUA BABESTEIA

KREDITUA BABESTEIA

AURKIBIDEA. 1. Ondare osoarekin erantzutea. 2. Hitzartutako pena. 3. Atxikitze eskubidea. 4. Erresak. 5. Zeharkako akzioa: zordunaren eskubideetan subrogatzeko akzioa. 6. Akzio zuzena. 7. Akzio ezeztatzailea edo pauliarra. 8. Aldibereko kredituak eta lehenasuna.

1. ONDARE OSOAREKIN ERANTZUTEA

Betebeharra beteko dela bermatzeko, legeak laguntza eta bideak eman behar ditu, hartara bakarrik baita betebeharra berez juridikoa; indar eta babes juridikorik gabe ez dago betebehar juridikorik.

Lehenago esan den moduan, legeak ondarezko erantzukizun unibertsala ezartzen du printzipio gisa: *betebeharren betetzearen gain, zordunak erantzukizuna du bere ondasun guztiekin, oraingoekin nahiz etorkizunekoekin* (KZren 1911. art.). Beraz, zordunak bere ondare osoarekin erantzukizuna hartzen du betebeharra betetzeko, eta ondarea betebeharra betetzera lotuta dago; azken batean, kreditu-eskubidearen berme orokorra da zordunaren ondarea, oraingoa eta gerokoa.

Hala eta guztiz ere, hartzekoduna askotan ez da fidatzen berme horrekin; izan ere, ondarea ekonomikoki positibo izatetik negatibo izatera pasa daiteke, edo desagertu daiteke ondasunak besterenduz (norbaiten izenean jarriz, esaterako). Horregatik, zordunak jasan dezakeen kaudimenik ezaren arriskua ekiditeko, hartzekodunak beste berme batzuk eratzea eska dezake, kreditu-eskubidearen eraginkortasuna indartzeko eta ziurtatzeko.

Bermeak, berez, bi motatakoak dira:

(1) *Berme pertsonalak:*

(a) Zordun beraren ondarean, beste betebehar bat ezartzen da hasierako betebeharra betetzen ez den kasurako; esate baterako, alderdiek klausula penala hitzartzea.

(b) Zorduna ez den beste norbaiten ondarea lotzen da kreditu-eskubidearen erantzukizuna hartzera, zordunak prestazioa betetzen ez duen kasuetan hirugarrenaren ondare hori baliarazteko. Horrelakoa da, esaterako, fidantza.

(2) *Berme errealak.* Zordunaren edo norbaiten ondareko ondasun jakin bat kreditu-eskubidera lotzen da, eta eskubide horren titularrak ondasun hori baliaraz dezake kreditua asetzen ez bada. Horretarako, titularrak ahalmena izango du ondasuna besterendu eta diru bihurtzeko prozedura abian jartzeko; horrelakoak dira, adibidez, bahitura- eta hipoteka-eskubideak.

Gainera, hartzekodunak, bere kreditu-eskubidea babesteko, badu ahalmena

zordunaren ondarearen osotasunari eta kaudimenari eustera zuzendutako akzioak egikaritzeko ere: zordunaren negozio juridikoak atzera botatzea eskatzeko akzio pauliarra eta zordunaren eskubideetan subrogatzeko akzioa.

Azkenik, kreditu-eskubidearen berme dira ere pribilegioak, hau da, kreditu-eskubideen artean ezartzen diren lehentasunak erabakitzeke zein kreditu ase behar den lehenago eta zein geroago.

KREDITU-ESKUBIDEA BABESTEA: BERMEA		
Pertsonala	Norberaren ondarea	Oraingoa eta etorkizunekoa
	Besteren ondarea	Fidantza-kontratua
Errealak	Hitzartutako pena	Ordezkatzailea
		Metatzailea
	Atxikitzeko eskubidea	
	Erresak	Baieztatzeko
Damutzeko		
Pena gisa		
Akzioak	Zeharkakoa	
	Zuzenekoa	
	Ezeztatzailea	
Lehentasuna	Lehentasuna	

2. HITZARTUTAKO PENA

Hitzartutako pena betebeharra bermatzeko baliabidea da, ez-betetzeak zordunari beste betebeharrak bat izatea eta hartzekodunari beste kreditu-eskubide bat izatea ekarriko baitie. Horretarako, klausula penala aipatze bidez ezarri behar da; eskuarki, diru kopuru bat ordaindu beharra izaten da. Esate baterako, obra emateko epea ez bada errespetatzen, eman bitartean hilero diru kopuru jakin bat ordaintzea.

Borondatez sortzen da eta, horrela, betebeharrak nagusia betetzea ziurtatzeko betebeharrak osagarria eratzen da: *zigor-klausularen deuseztasunak berez ez dakar betebeharrak nagusiarena. Betebeharrak nagusiaren deuseztasunak berez dakar zigor-klausularena* (KZren 1155. art.). Betebeharrak subsidiarioa eta, berez, baldintzapekoa da; izan ere, betebeharrak betetzen ez den kasuan bakarrik eska dezake hartzekodunak.

Betetzen duen funtzioaren arabera, hitzartutako pena izan daiteke:

(1) Konpentsatze-pena (*compensatorio*). *Zigorrek ordezkatzeko dituen betebeharraren betetze-ezarenatik eman beharreko kalte-ordaina eta interesak, baldin eta besterik ituntzen ez bada* (KZren 1152. art.). Hitzartzen dena da, batetik, betebeharrak ez-betetzeak kalteak eta galerak sortzen dituela eta, ondoren, kalte-galera horiek

ordaintzeko betebeharraren objektua —zenbat zor izango den—. Finean, kalte-galerak aurreikusten dira: badirela eta zenbatekoak. Hartara, hartzekodunak ez dauka kalte-galerak frogatu beharrik, eta zenbatekoak diren ere zehaztuta dago; ondorioz, zuzenean eska dezake betebeharraren hori betetzeko, normalean diruzkoa. Baina, kontrakorik hitzartu ez bada behintzat, ezingo du betebeharraren nagusia betetzeko eskatu, ulertzen baita penak hura ordezkatu duela: *Bestalde, hartzekodunak ezin izango ditu aldi berean eskatu betebeharraren betetzea eta zigorra ordaintzea, abalmen hori argiro ematen ez bazaio* (KZren 1153.2 art.).

(2) Metatze-pena (*acumulativo*). Hitzar daiteke betebeharraren nagusiaz apartekoa izatea betebeharraren berria. Orduan, hartzekodunak eska dezake pena betetzeko eta betebeharraren nagusia ez-betetzeak sortutako kalte-galerak ordaintzeko. Hemen, askoz larriagoa da penak betetzen duen funtzioa, ekonomikoki zordunari betebeharraren betetzea interesatuko baitzaio beti. Horrelako pena ezartzeko, beharrezkoa da hitzartzea (KZren 1152. eta 1153. art.)

Bukatzeko, erregela hauek aipatu behar dira:

(1) *Epaileak ekitatez aldaraziko du zigorra, zordunak betebeharraren nagusia zati batez edo modu irregularrean betetzen duenean* (KZren 1154. art.).

(2) *Zorduna ezin da betebeharraren betetzetik askatu zigorra ordainduz, salbu eta eskubide hori beren beregi erreserbatzen zaionean* (KZren 1153.1 art.). Zordunak, betebeharraren askatzeko, ezingo du aukeratu betebeharraren betetzearen eta pena ordaintzearen artean. Hala ere, aukeratzeko eskubide hori ematen bazaio, pena ahalmenezko (*facultativo*) bihurtzen da.

3. ATXIKITZEKO ESKUBIDEA

Atxikitzeoko eskubidea da legeak hartzekodunari ematen dion berme bat. Berme horri esker, zordunak zor duen prestazioa ordaindu arte, hartzekodunak bere boterepean eta edukitzepean eduki ahal izango du zordunaren ondasuna. Esate baterako, automobila tailerrera edo soinekoa konpontzera eraman bada.

Hartzekodunak, printzipioz, ezin du zordunaren gauzarik atxiki, hark dagokion betebeharraren betetzen ez badu ere. Hartzekodunak bueltatu egin beharko du ondasuna, eta betebeharraren betetzeko eskatu. Hala ere, ondasuna atxikitzeoko eskubidea izango du zenbait kasutan. Esate baterako: *norbaitek obra egiten badu gauza higigarriaren gain, gauza hori bahi moduan atxikitzeoko eskubidea du ordainketa jasotzeko arte* (KZren 1600. art.); *mandatariak bahi gisa atxiki ditzake mandatuen objektu diren gauzak, mandatugileak zor dion kalte-ordaina eta ordainketa gauzatu arte* (KZren 1730. art.). Legeak beste zenbait kasutan ere aurreikusten du atxikitzea: edukitzari buruzko eraentzan (KZren 453. art.), usufruktuari buruzkoan (KZren 502. eta 522. art.) edo gordailuari buruzkoan (KZren 1780.

art.).

Legez aurreikusitako ustekizun horiez gainera, atxikitzeko eskubidea izan daiteke alderdiek aipatze bidez hala hitzartu badute.

Hartzekodunak eskubide hori baliatzen badu, ondasuna atxikitzeko ahalmena izango du, baina zenbait betebeharrak ere izango ditu: familiako guraso on baten arretarekin zaindu beharko du, ezingo du gauza xedatu, ez eta erabili ere (KZren 1094. art.). Atxikitako ondasunak fruituak ematen baditu, hartzekodunak jaso egin beharko ditu, eta eskubidea iraungitzen denean zordunari eman (KZren 1095.1 art.).

Zordunak bere zorra erabat asetzen duen unetik, iraungi egingo da zorra bermatzen zuen atxikitzeko eskubidea.

4. ERRESAK

Erresak dira betebeharrak betetzea bermatzeko ematen den zerbait edo diru kantitatea. Erresek betetzen dituzten funtzioen arabera, mota hauek bereizten dira:

(1) Baieztatze-erresak (*arras confirmatorias*). Betebeharrak eratu dela ziurtatzeko frogak gisa ematen dira. Emate hori betebeharraren prezioaren seinale edo zatitza hartzen da. Betebeharraren existentzia ziurtatu eta betebeharraren horren exekuzioaren hasiera dakar, prestazioaren ordainketa partziala egiteko eman baitira azken batean.

(2) Penitentzia-, damu- edo uko-erresak (*arras de arrepentimiento o de desistimiento*). Alderdiek hitzartu dezakete betebeharrari uko egiteko aukera izatea, baina, orduan, galdu egin beharko dira betebeharraren kariatz emandako erresak: erresak betebeharrari uko egiten dionak eman bazituen, horiek galdu egingo ditu eta beste alderdiak bereganatuko ditu; aldiz, betebeharrari uko egiten dionak jaso bazituen, bikoiztuta bueltatu beharko ditu: *Salerosketa-kontratuan erresak edo seinaleak izan badira tartean, kontratua hutsal daiteke, baldin eta erosleari horiek galtzeko edo saltzaileari erresak bikoiztuta itzultzeko beren beregi eskatu, eta hala egiteko adostasuna erakutsi badu* (KZren 1454. art.).

(3) Pena-erresak (*arras penales*). Propioki berme-funtzioa betetzen dutenak dira. Diru kantitatea edo beste zerbait ematen da eta, betebeharrak ez bada betetzen, galdu egiten dira edo, bestela, bikoiztuta bueltatu beharko dira —nork eman eta betebeharrak nork bete ez duenaren arabera—. Horrelako erresekin, alderdiek ezin diote uko egin betebeharrari, betetzera behartuta baitaude;

beraz, erresak berez penalak badira, betebeharra ez-betetzetik erator daitekeen kalte-galeren ordain gisa hartuko dira. Azken batean, hitzartutako penaren antzekoak dira baina, kasu honetan, alde zuzenetik ematen dira; haietan, aldiz, betebeharrezko harreman berria sortzen da.

Pena- eta penitentzia-erresak aipatze bidez hitzartu behar dira; bestela, baieztatze-erresak izango dira.

5. ZEHARKAKO AKZIOA: ZORDUNAREN ESKUBIDEETAN SUBROGATZEKO AKZIOA

Subrogatzeko akzioa honela arautzen da: *Hartzekodunek, eurei zor zaien guztia kobratzeko, zordunaren edukitzapeko ondasunak pertsegituta gero, zordunaren eskubide eta akzio guztiak egikaritu ahal dituzte helburu berberarekin, zordunari berari datxezkionak izan ezik* (KZren 1111. art.). Zordunaren ondarea zorrari aurre egiteko nahikoa ez bada, zordunak hirugarrenen kontra dituen eskubide eta akzioak egikaritzeko ahalmena du hartzekodunak, beti ere norberak konplitu beharreko eskubideak ez badira. Esate baterako, zordunak, bere ondarean, kobratu nahi ez duen kreditu-eskubidea baldin badauka; hartzekodunak eskubide hori baliaraz dezake kreditu hori bere zordunaren ondarean sartu eta hartara zordunaren aurkako bere kreditua kitatzeko. Beraz, subrogatzeko akzioan ordezkatzeko bat dago, zordunak hirugarrenen aurka dituen akzioetan haren lekuan jartzen baita hartzekoduna. Horregatik, hain zuzen ere, subrogatzeko akzioa zeharkakoa da berez, hartzekodunak zordunaren izenean egikaritzen dituelako zordunari dagozkion akzioak, bere interesa asetzeko asmoz egikaritzen baditu ere.

Akzioa egikaritzeko, betekizun hauek bete behar dira:

- (1) Zordunaren kreditu-eskubideak epemugaratua egon eta galdagarria izan behar du.
- (2) Subrogatzeko akzioa baliabide subsidiario gisa erabili behar da. Hartzekodunak kreditua kobratzeko beste baliabide guztiak erabili ostean bakarrik jo daiteke subrogatzeko akzioa baliatzera. Beraz, ezingo litzateke subrogatzeko akzioa baliatu zordunaren ondarean zorrari aurre egiteko nahiko ondasunik balego: *eurei zor zaien guztia kobratzeko, zordunaren edukitzapeko ondasunak pertsegituta gero*.
- (3) Zordunak berari dagozkion akzioak eta eskubideak baliatzeko intentziorik edo ardurarik ez izatea.
- (4) Zordunaren akzioak eta eskubideak berez ez izatea norberak konplitu beharrekoak, horiek zordunak berak bakarrik baliaraz baititzake. Esate baterako, mantenu-eskubidea.

Subrogatzeko akzioa zuzen baliarazteak, ondorio gisa, lortutako prestazioa zordunaren ondarean sartzea ekarriko du. Sarrera hori ez da izango soilik akzioa baliarazi duen hartzekodunaren onura; zordunaren aurka kreditu-eskubiderik duten hartzekodun ororen aldekoa izango da.

6. AKZIO ZUZENA

Akzioa zuzena bada, hartzekodunak bere izenean egikaritzen du akzioa eta ez zordunaren izenean. Legeak ahalmena ematen dio hartzekodunari berari zor zaiona kobratzeko, bere zordunarena den zordunaren aurka zuzenean jotzeko. Eta hala, zordunaren zordunak ordaintzen duena hartzekodunaren ondarean sartuko da, zuzenean kreditua kobratzeko. Beraz, subrogatzeko akzioa baino askoz ere eraginkorragoa da hartzekodunarentzat.

Akzio zuzena baliarazi ahal izateko, legeak aurreikusi behar du, esate baterako KZren 1552., 1722., 1597., 1650. eta 1937. artikuluetan. Kasurik zabalduenetakoa aseguru-kontratuan gertatzen dena da: *el perjudicado o sus herederos tendrán acción directa contra el asegurador para exigirle el cumplimiento de la obligación de indemnizar, sin perjuicio del derecho del asegurador a repetir contra el asegurado, en el caso de que sea debido a conducta dolosa de éste, el daño o perjuicio causado a tercero. La acción directa es inmune a las excepciones que puedan corresponder al asegurador contra el asegurado. El asegurador puede, no obstante, oponer la culpa exclusiva del perjudicado y las excepciones personales que tenga contra éste. A los efectos del ejercicio de la acción directa, el asegurado estará obligado a manifestar al tercero perjudicado o a sus herederos la existencia del contrato de seguro y su contenido (Ley 50/1980, de 8 de octubre, de Contrato de Seguro, 76. art.).*

7. AKZIO EZEZTATZAILEA EDO PAULIARRA

Akzio pauliarra honetan datza: *Hartzekodunek, euren zor zaien guztia kobratzeko, zordunaren edukitzapeko ondasunak pertsegituta gero [...], era berean, hartzekodunek aurkara ditzakete beren eskubideari iruzur eginez zordunak gauzatu dituen egintzak (KZren 1111. art.).*

Beraz, akzio hau zordunaren ondarea babesteko eta kontserbatzeko baliabidea da, zordunak ahalmena ematen baitio hartzekodunari kredituaren maulan egin dituen egintzak ezeztatzeko. Akzio honen bidez saihestu nahi da zordunaren maulazko jarduerak haren ondarea desagerraraztea edo gutxitzea. Esate baterako, etxea ezkontideari saltzea prezioa kobratu gabe.

Akzio hau egikaritzeko, beharrezkoa da betekizun hauek betetzea:

- (1) Akzio hau ere baliabide subsidiario gisa erabili behar da, subrogatzeko akzioa gisa.
- (2) Maulan egindako egintza izatea. Zordunaren ondaretik ondasuna besterentzen da hartzekodunari kaltea sortzeko asmoz eta, gainera, kaltea sortzen du. Bestalde, maulan egindako egintza juridikoak akzioaren bitartez babesten den kreditu-eskubidea sortu eta geroagokoa izan behar du.
- (3) Hartzekodunak frogatu behar du besterentzeko egintza horrek kaltea sortzen duela eta maulan egin dela. Hala ere, eta zerbait maulazkoa dela frogatzea oso zaila izanik, zenbait kasutan maula-asmoz jardun dela uste izaten da, zordunak kontrakorik (alegia, maularik) ez dagoela froga badezake ere: *kontratuoen bidez, zordunak dohainik ondasunak besterentzen dituenean, uste da kontratuok hartzekodunei iruzur eginez burutu direla* (KZren 1297. art.). Hain zuzen ere, doako tituluz ezin da nahi adina ondasun eman, bereziki ez bada nahiko ondasun erreserbatu dohaintza baino lehenagoko zorrei aurre egiteko (KZren 643.3 art.). Gainera, maulazkoak dira kostubidez egindako besterentzeak ere, egin dituen pertsonaren aurka epai kondenatzailea eman izan bada lehenago edozein instantzian, edo ondasunak bahitzeko agindua eman izan bada.

Akzio ezeztatzailea zordunaren eta maulazko negozioa horrekin egin duen hirugarrenaren (konplizearen) aurka zuzentzen da. Lau urtekoa da hartzekodunak akzio ezeztatzailea baliatzeko epea, maulazko besterentze-UNETIK kontatuta (KZren 1299. art.).

Akzio honek zera lortu nahi du: maulazko negozioa hutsaltzea. Hala ere, hirugarrenak fede onez edo fede gaiztoz jokatu izanaren arabera, efektuak desberdinak dira:

- (1) Hirugarrenak fede gaiztoz jardun badu —zordunarekin ados jarrita—, bere eskubideak ez du merezi babesik eta jaso duena bueltatzera behartuko da; gainera, kalterik balego, horiek ordaintzeko betebeharra izango du (KZren 1298. art.).
- (2) Hirugarrena fede onez eta, gainera, kostubidez aritu bazen, egikaritu den akzioak ez du aurrera egingo; hau da, egintza ezingo da ezeztatu. Kasu honetan, kalte-galeren ordaina eskatu beharko zaio maulan jardun duen zordunari (KZren 1295.3 art.).

Akzio ezeztatzaileak aurrera egiten badu, maulan egindako negozioa hutsaldu egingo da, babestutako kreditu-eskubidearen proportzioan (hau da, osorik) edo babestutako kreditu-eskubidea estaltzeko adina bakarrik.

Zordunak bere oraingo eta etorkizuneko ondare osoarekin dituen zorren erantzukizuna hartzen du. Batzuetan, bere ondareak jasan ditzakeen baino zor gehiago bereganatzen ditu zordunak, eta hainbat hartzekodun beren kredituak asegabe gelditzeko arriskuan suertatuko dira. Horrelakoetan, hartzekodun guztien interesak babesteko, kredituak parekoak direla —*par conditio creditorum* delako printzipioa— ezartzen da zuzenbidean. Horren arabera, zordunak dituen kreditu guztiak berez berdinak dira eta, ondorioz, hartzekodun guztiek beren kredituak kobratzeko eskubide berbera izango dute zordunaren ondarearen aurka.

Printzipio hori gauzatzeko, prozedura berezia aurreikusten da: hartzekodunen konkurtsoa (22/2003 *Konkurtsu Legea, uztailaren 9koa*). Prozedura horretan, kredituak izaeraren arabera sailkatu eta zordunaren ondarea proportzionalki banatuko da haren hartzekodunen artean.

Hala ere, eta hartzekodun guztiek tratatu bera jasotzeko duten eskubidearen salbuespen gisa, legeak zenbait kredituri gainerako kredituak baino lehenago kobratzeko lehentasuna ematen die, beren izaera eta inguruabarrak direla eta: kreditu pribilegiatuak dira.

Lehentasun hori aipatze bidez ezarri behar du legeak, *par conditio creditorum* printzipioaren salbuespena baita. Kode Zibilak honako bereizketa hau egiten du:

- (1) Pribilegio bereziak: lehentasuna ematen dute zordunaren ondasun zehatz batzuen bidez kreditua kobratzeko.
- (2) Pribilegio orokorrak: zordunaren ondasun guztien gainean ezartzen direnak.

Kredituen sailkapena, mailakatzeko eta ordaintzeko, KZren 1921. eta hurrengo artikuluetan arautzen da: KZren 1922. artikulua higigarrien gaineko pribilegioak zerrendatzen ditu; KZren 1923. artikulua higiezinaren gaineko pribilegioak arautzen ditu; eta KZren 1924. artikulua gainerako pribilegio orokorrak jasotzen ditu.

Bukatzeko, kredituen arteko lehentasuna arautzen da, zer trataera eman pribilegio bereko eta aldi bereko kredituen artean: *ondasun higigarri zehatz batzuei begira lehenespena duten kredituek gainerako guztiak baztertzen dituzte, lehenespeko ondasun higigarriaren balioraino* (KZren 1926. art.). Halaber, gerta daiteke ondasun higigarri zehatz batzuen gainean lehentasuna duten bi kreditu edo gehiago elkartzea. Kasu horretan, Kodeak berak ezartzen ditu ordaintzeko erregelak.

VII. IKASGAIA

ERANTZUKIZUN ZIBILA

AURKIBIDEA. 1. Kontratuz kanpoko erantzukizuna. 2. Erantzukizuna egozteko irizpideak. 3. Subjektu erantzuleak. 4. Kalte ordaingarria.

Kontratuz kanpoko erantzukizunari buruz hitz egiteko, kontratuzko erantzukizuna zer den ere kontuan izan behar da. Aurrez jadanik existitzen den betebeharra ez betetzetik sortutako erantzukizunari deritzo kontratuzko erantzukizun. Erabiltzen den terminoa ez da egokiena, erantzukizuna ez baita kontratutik sortzen, betebeharretik baizik. Beraz, kontratuz kanpoko erantzukizuna dago, bi subjektuen artean inolako betebeharezko harremanik ez dagoenean eta, gainera, batek kaltea jasan eta besteak kalte hori ordaintzeko betebeharra sortzen denean. Erantzukizun zibil edo erantzukizun *akiliar* ere baderitzo.

Erantzukizun mota bi horiek oso desberdinak dira: erruak betetzen duen papera zehaztean, edukia zehaztean, subjektu-aniztasuna konpontzean eta akzioa egikaritzean, nagusiki.

2. ERANTZUKIZUNA EGOZTEKO IRIZPIDEAK

Kontratuz kanpoko erantzukizunak, Kode Zibila onartu zenetik, bilakaera luzea izan du, ordutik gauzak asko aldatu baitira eta aldaketa horiek hausnarketa ugari piztu baitituzte. Alde batetik, industriaren eta teknikaren garapenak eguneroko bizitza azkartzea eta arriskuak areagotzea ekarri du. Kode Zibila onartu zen garaian sortzen ziren kalteek eta egun sor daitezkeenek zerikusi gutxi dute, kopuruan eta ezaugarrietan: industriaren kutsadura, garraio bideetan sortutako istripuak, eraikuntzako jarduerak sortutako kalteak eta abar. Horrek, ordenamendu juridikoa egungo errealitatera egokitzekeo premia eta beharra ekarri ditu. Baina egokitzea ez da egin Kode Zibila eguneratuz, baizik eta lege bereziak emanez.

Kode Zibilaren jatorrizko arauetan, errua da oinarrizko erreferentzia: *norbaitek, egite edo ez-egitearen ondorioz, kalte egiten badio beste inori, tartean errua edo zabarkeria izanik, eragindakoa kaltea konpontzeko betebeharra du* (KZren 1902. art.) Irizpidea berez subjektiboa da, subjektuaren portaera erruduna atzeman behar baita erantzukizun zibila zehazteko. Beraz, erantzukizun zibilaren funtsa da kaltea sorrarazi duen subjektuari egotz dakiokeen errua egotea. Norbaitek kaltea nahita sortu badu edo arretarik jarri ez duelako sortu badu, kaltea jasan duenak erantzukizun zibila eskatu ahal izango dio hari; alegia, kalte-galeren ordaina

eskatzeko kreditu-eskubidea izango du kaltetuak.

Kode Zibilaren ondorengo aldian, 1902. artikulua hertsiki aplikatzen da; hau da, arauak eskatzen dituen betekizunen arabera, kaltetuak frogatu beharko du, beti, kalte-eragilearen errua. Gauzak horrela, adibidez, XX. mende hasieran kaleratzen ari ziren automobilek eragindako kalteak kasik ez ziren ordaintzen. Dena den, Kode Zibilak 1905. eta 1910. artikuluetan araututako kasuetan egozketa objektiboa zen eta, hartara, errua frogatu beharrik ez zegoen; legegileak, zenbaitetan, kaltetua babesteko asmoz, erantzukizun objektiboaren alde egin du. Zera esan nahi du horrek: erantzukizuna sortuko dela kontuan hartu gabe zer-nolakoa izan den kaltea ordaindu behar duen subjektuaren jarduera. Legegileak, zenbaitetan, ez du jakin nahi kalteak zergatik sortu diren; kaltea gertatuz gero, erantzulea nor izango den ezartzen du.

Bestalde, irizpide propioak baliatzen ziren lan-istripuetan ere, *pro operario* printzipioa aplikatzen baitzen.

Zilegi ez den egintzarik edo ez-egite penala bada, hau da, Zigor Kodean jaso eta zigortutako egitaterik —delitua edo hutsegitea— gertatzen bada, hark sortutako kalteak ordaintzeko betebeharra sortuko da beti (KZren 1092. art.). Zigor Kodeak zera dio:

KZren 109.1 artikuluan arabera, Legeak delitu edo falta gisa azaldutako egitea gauzatzeak behartzen du berak eragindako kalte-galerak konpontzera, legean ezarritakoaren arabera. 2. Edozein kasutan, kaltetunak aukeran izango du erantzukizun zibila jurisdikzio zibilean galdatzea.

KZren 110. artikuluari jarraiki, aurreko artikuluan ezarritako erantzukizunak hurrengoak dakar: 1) Itzulketa. 2) Kaltearen konponketa. 3) Kalte material eta moralen ordaina ematea.

Joera hori, gerora, hainbat lege berezitan zuzenean islatu bada ere, zeharka zabaldu da Kode Zibilaren araudi orokorraren aplikaziora ere, modu honetan:

(1) Errua frogatzearen ardura aldatuz (*inversión de la carga de la prueba*). Irizpide subjektiboaren arabera errua dagoela esaten duenak frogatu behar du hura. Kode Zibilaren 1902. artikulua interpretatzeko, kaltea jasan duenak ez du zertan frogatu kalte hori eragin duenaren erruz izan denik, nahikoa baitu kaltearen egilea dela frogatzea (AGEE 1943/07/10 eta 1959/06/30). Orduan, kaltea egozten zaionak frogatu beharko du berak jarri beharreko arreta osoa jarri duela. Berez, erruaren ideari eusten zaio eta printzipio subjektiboa sendotzen da, baina hura frogatzearen ardura ez da jadanik kaltetuarena, kalte-eragileak frogatu beharko baitu jarri beharreko arreta izan zuela.

(2) Eskatzen den arreta-maila areagotuz. Jarduerak egiten direnean, eskatzen den arreta areagotu behar dela ezartzen da, eta, beraz, kaltea eragin bada, ohiko arreta jarri dela frogatzea ez da nahikoa izango. Gaur egungo bizitza ekonomikoa zabaltzen doan heinean, zenbait jarduerak berez arriskua ekartzen

eta kalteak sortzen dituzte; orduan, kaltea gertatuz gero, zuzena dirudi jarduera horrekin irabaziak lortu dituenari egozteak, kontuan izan gabe arretaz edo erruz jardun duen edo ez. Ondorioz, erruduntasun-printzipioa apurtzen da kasu horietan; izan ere, errurik izan ez duenak sortu den kaltearen erantzule izan behar du. Badirudi erantzukizun zibilaren prebentzio-funtzioa bultzatu nahi dela irtenbide horrekin, enpresaburuek aurretik baitakite beren jarduerak eragindako kaltearen erantzukizuna hartu beharko dutela eta, hartara, prebentziozko neurriak bideratzeko erabakiak hartuko baitituzte. Azken batean, erruduntasun-printzipioa erabat baztertzen da, zeren eta, nahiz eta prebentziozko erabaki zuzenak hartu direla frogatu, jarduerak arriskua sortzen badu beti hartu beharko baitu sortutako kalteen erantzukizuna.

Arriskuzko jarduera horien eremuan bereizten dira erantzukizun kasik objektiboa daukatenak eta erantzukizun erabat objektiboa daukatenak. Esate baterako, erantzukizun kasik objektiboa ezartzen da zirkulazioko jardueretan: ibilgailuak arriskua berez sortzen du, eta gidariak, berez, zirkulatzean sortzen dituen kalteen erantzukizuna hartuko du, betiere biktimaren erru eskusiboa ez bada egon edo ibilgailuarekin zerikusirik ez duen ustekabekorik ez bada gertatzen; beraz, haren erantzukizuna kasik objektiboa da. Erantzukizun objektiboa, berriz, ehiza-istripuetan eta kalte nuklearretan ezartzen da, eta gaur egun baita Administrazioaren erantzukizun zibilean ere; kasu horietan, errua ez da betekizuna, eta frogatu beharreko gauza bakarra izango da erantzule izan daitekeenak izandako portaeraren eta sortutako kaltearen arteko kausalitate-erlazio mekanikoa edo materiala.

Ikuspegi praktiko batetik, auzitegiek honela jokutzen dute eskuarki: kasua araudi bereziak arautzen badu, lehenik hori aplikatuko du, eta ez Kode Zibila; beraz, aipatu diren auzitegiek ezarritako irizpideak aplikatuko dira, araudi berezirik egon ezean, Kode Zibilaren interpretazioa moldatzeko aipatuz erruduntasun-printzipioa eta baita arriskuaren erantzukizunetik sortutako irizpide berriak. Horrela, badirudi askotan epaileak zalantzak dituela eta badaezpada irizpide kasik objektibora joaz konpontzen dituela, nagusiki oraindik araudi berezirik izan ez baina gizartean garrantzi berezia lortu duten jardueri dagokienez: butano-eztandak sortutako kalteak; aldameneko eraikina botatzeak eragindako kalteak; igerilekuetan gertatutako istripuak; odol kutsatuak eragindako gaitzak; suteek eragindako kalteak; tren-istripuak; igogailu, eskailera mekaniko eta antzekoetan gertatutako istripuak; zeken-ikuskizunetan gertatutako kalteak; kirol-jardueretan gertatutako istripuak; edo ingurumenari eragindako kutsadura.

3. SUBJEKTU ERANTZULEAK

(1) *Nork bere jardueraz erantzutea*

Erantzukizun zibil subjektiboaren ustekizuna da: *norbaitek, egite edo ez-egitearen ondorioz, kalte egiten badio beste inori, tartean errua edo zabarkeria izanik, eragindako kaltea konpontzeko betebeharra du* (KZren 1902. art.). Kaltea konpontzeko betebeharra sortzeko, betekizun hauek eskatzen dira:

(a) Betekizun objektiboak; honako hauek, hain zuzen:

(a') Ekintza positiboa edo negatiboa. Ez da derrigorrezkoa jarduera egotea, kalteak ez-egitez ere sor baitaitezke.

(b') Zuzenbidearen kontrakotasuna. Akzioak edo ez-egiteak zuzenbidearen kontrakoa edo ez-zilegia izan behar du. Kaltea eragiteak *alterum non laedere* betebeharr juridikoa urratzen du eta, ondorioz, zuzenbidearen kontrakoa da.

(c') Kaltea. Beharrezkoa da kaltea sortzea, hau da, eskubide bat kaltetzea edo eskubide baten titularrak kaltea jasatea. Kaltea izan daiteke materiala edota morala —bizitza, osasuna, askatasuna, ohorea, ospea edo norberaren irudia kaltetzea—. Kaltea dagoela esaten duenak frogatu egin beharko du hura.

(b) Betekizun subjektiboa: errua; beharrezkoa da errua edo arreta gabezia egotea.

(a') Erruari buruz hitz egitean, sortutako kalteaz eta ekintzaren ez-zilegitasunaz jakitun, zerbait egitea edo ez egitea aipatu nahi da. Subjektua jakitun den neurrian, jarduera hori errua da berez.

(b') Arretarik gabe jarduteaz hitz egitean, kaltea nahi gabe sortzea adierazi nahi da; alegia, egileak beharrezko arretarik jarri ez izana. Horrelakoetan, arazoak sortuko dira jarri beharreko arreta zein zen zehazteko garaian.

Kalte eragiteko asmorik balego —dolua—, Zigor Kodean zigortutako portaera litzateke.

(c) Betekizunen arteko harremana: kausalitate-harremana egotea akzio ez-zilegien artean, edota ez-egitearen eta kaltearen artean. Akzio edo ez-egite horiek sortu behar dituzte kalteak.

Eraikuntzaren eremuan, 38/1999 Legeaz gainera, zera dio Kode Zibilarren 1591. artikulua: *Eraikina aurrian badago eraikuntza-akatsen ondorioz, eraikin horren kontratistak kalte-galeren gaineko erantzukizuna du, auri hori eraikuntza amaitu eta hurrengo hamar urteetan gertatu gero; erantzukizun berbera eta epe berean izango du eraikuntza zuzendu duen arkitektoak, baldin eta aurria lurraren edo zuzendaritzaren akatsa dela-eta gertatzen bada.*

Arrazoia bada kontratistak kontratuaren baldintzak ez gauzatzea, kalte-ordainaren gaineko akzioak hamabost urte iraungo du.

(2) *Beste norbaitek sortutako kaltearen erantzukizuna hartzea*

Zenbaitetan, beste norbaitek egindako kaltearen erantzukizuna hartu behar da. Kasu horietan, erantzuleak harreman juridiko jakin bat du kaltea sortu duenarekin; eskuarki, mendetasunezko harremana.

Araua honako hau da: *Kaltea konpontzeko betebeharra eska daiteke, norberaren egite edo ez-egitearen ondorioz ez ezik, beste pertsona batzuenaren ondorioz ere bai, pertsona horien gaineko erantzukizuna norberari badagokio* (KZren 1903.1 art.). Eta ustekizunak, berriz, honako hauek (KZren 1903. art.):

(1) *Gurasoek erantzukizuna dute, euren zaintzapeko seme-alabek eragindako kalteen gain.*

(2) *Tutoreek erantzukizuna dute, adingabeek nahiz ezgaituek eragindako kalteen gain, horiek haien agintepean badaude eta haiekin bizirik badira.*

(3) *Era berean, establezimendu nahiz enpresa bateko ugazaba edo zuzendariek erantzukizuna dute, euren menpekoek eragindako kalteen gain, kalteok gertatu badira euren lan-arloetan zerbitzuak egitean edo euren eginkizunetan aritzean.* Dena den, arau hau ere ematen da: *Norbaitek ematen badu bere mendekoek eragindako kaltearen ordaina, horien aurka berreskaera-eskubidea erabil dezake ordaindutakoaren ondorioz* (KZren 1904.1 art.).

(4) *Pertsona edo erakundeak goi mailakoak besteko irakaskuntza-zentroen titularrak badira, erantzukizuna dute, euren ikasle adingabeek eragiten dituzten kalte-galeren gain, horiek gertatu badira ikasleok zentroko irakasleen kontrol edo zaintzapean dauden bitartean, eta eskolako nahiz eskolatik kanpoko jardueren eta jarduera osagarrien ondorioz.* Aurrekoan bezala, kontuan hartu behar da arau hau: *Irakaskuntza-zentroen titularrek irakasleei eska diezazkiekete ordaindutako kopuruak, baldin eta irakasleok doluz edo erru astunez jardun badute, kaltea eragin duten eginkizunak betetzean* (KZren 1904. art.).

Zergatia honela azaltzen da: *artikulu honek arautzen duen erantzukizuna amaituko da, bertan aipaturiko pertsonak frogatzen dutenean familiako guraso on batek izango lukeen arreta osoa jarri dutela, kaltea saibesteko.* Kasu horietan, erruaren presuntzioa ezartzen da. Errua *in vigilando* izan daiteke, hau da, bere menpe dauden pertsonen jarduera behar bezala kontrolatzeko arretarik ez jartzea; edo *in eligendo* izan daiteke, hau da, aukeratzeko orduan beharrezko arretarik ez jartzea.

(3) *Animaliek eta gauzek sortutako kalteen erantzukizuna hartzea*

Pertsona orok ondarea duenez, ondareko ondasunek kalterik sortzen badute, sortutako kalteen erantzukizuna hartu behar du ondareen jabeak. Bi ustekizun bereizten dira:

(1) *Animaliek sortutako kalteak: Animaliaaren edukitzaiak edo horretaz baliatzen denak erantzukizuna du, animalia horrek eragindako kalteen gain, nahiz eta animaliak*

ibes egin edo animalia hori galdu. Erantzukizuna amaituko da, kaltea ezinbesteko kasuak eragin duenean, edo kaltea gertatu denean hori jasan duenaren erruz (KZren 1905. art.). Ehizarako landareen jabeak erantzukizuna izango du, ehizak auzoko finketan eragiten duen kaltearen gain, jabe horrek ez duenean behar bestekoa egin ehizaren ugalketa saihesteko, edo oztopatu duenean finka horien ugazabek ugalketari aurre egiteko burutzen duten ekintza (KZren 1906. art.).

(2) Gauzek sortutako kalteak: *Eraikinaren jabeak erantzukizuna du, eraikin osoaren edo horren zati baten aurretik eragiten dituen kalteen gain, baldin eta aurria gertatzen bada beharrezko konponketak ez egiteagatik (KZren 1907. art.). Era berean, jabeek erantzukizuna izango dute, eragindako kalteen gain: «1) Behar adineko arretarekin jagon ez diren makinek eztanda egiteagatik, eta leku ziur eta egokian jarri ez diren lehergaiak su hartzeagatik. 2) Gehiegizko keengatik, horiek kaltegarriak badira pertsona edo ondasumentzat. 3) Igarobideetan dauden zuhaitzak erortzeagatik, erortze hori ez duenean ezinbesteko kasuak eragin. 4) Estolden edo infekzio-gaietako gordailuen jarioengatik, horiek eraikitzen badira euren kokalekuaren arabera egoki diren aurreneurriak bete gabe». (KZren 1908. art.). Kaltea gertatzen bada eraikitze-akatsaren ondorioz, hori jasan duen hirugarrenak berreskaera-eskubidea erabil dezake arkitektoaren aurka, edo, hala denean, eraikitzailearen aurka, legezko epean bakarrik (KZren 1909. art.). Familiaburua etxe batean edo horren zati batean bizi bada, erantzukizuna du, bertatik gauzak jaurti edo erori eta gauza horiek eragiten dituzten kalteen gain (KZren 1910. art.).*

(4) Kasu bereziak

Lege berezietan beste irizpide batzuk erabiltzen dira; baina, oro har, objektiboa da horietan ezartzen den erantzukizuna:

(a) *Ley de 20 de febrero de 1942, de Pesca Fluvial: Las personas condenadas por infracciones a esta Ley, responderán civilmente de los daños y perjuicios que, con el hecho punible, hubieran ocasionado. Por los menores responderán sus padres o tutores y por los criados o dependientes sus amos o superiores, si aquéllos ejecutaren el acto en funciones de su servicio (61. art.).*

(b) *Ley 48/1960, de 21 de julio, de Navegación Aérea: A los efectos del presente capítulo se entenderá por daño en el transporte de viajeros el que sufran éstos a bordo de la aeronave y por acción de la misma, o como consecuencia de las operaciones de embarque o desembarque. El daño acaecido con motivo del empleo de otro medio de transporte para el servicio de los viajeros de la aeronave fuera del aeropuerto, aunque dicho medio sea de la misma Empresa, queda excluido de las disposiciones de este capítulo. En el transporte de mercancías y equipajes se estimará como daño el que experimenten dichos efectos desde su entrega a la Empresa hasta que por ésta sean puestos a disposición del destinatario excepto el tiempo durante el cual permanezcan en poder de los Servicios aduaneros. Lo dispuesto en este párrafo se entiende sin perjuicio de la responsabilidad que como depositario le corresponde, conforme a lo prevenido en el artículo 109 de esta Ley (...). El transportista es*

responsable del daño o perjuicio causado durante el transporte: 1º Por muerte, lesiones o cualquier otro daño corporal sufrido por el viajero. 2º Por destrucción, pérdida, avería o retraso de las mercancías y de los equipajes, facturados o de mano (115.-125. art.).

(c) Ley 25/1964, de 29 de abril, de **Energía nuclear**: El explotador de una instalación nuclear, o de cualquier otra instalación que produzca o trabaje con materiales radiactivos o que cuente con dispositivos que puedan producir radiaciones ionizantes, será responsable de los daños nucleares. Esta responsabilidad será objetiva y estará limitada en su cuantía hasta el límite de cobertura que se señala en la presente Ley. Si el explotador prueba que la persona que sufrió los daños nucleares los produjo o contribuyó a ellos por culpa o negligencia, el Tribunal competente podrá exonerar total o parcialmente al explotador, de su obligación de abonar una indemnización por los daños sufridos por dicha persona. No producirán responsabilidad para el explotador los daños nucleares causados por un accidente nuclear que se deba directamente a conflicto armado, hostilidades, guerra civil o insurrección o catástrofe natural de carácter excepcional (45.-54. art.).

(d) Ley 1/1970, de 4 de abril, de **Caza**: 1. Los titulares de aprovechamientos cinegéticos, definidos en el artículo 6 de esta Ley, serán responsables de los daños originados por las piezas de caza procedentes de los terrenos acotados. Subsidiariamente, serán responsables los propietarios de los terrenos. 2. La exacción de estas responsabilidades se ajustará a las prescripciones de la legislación civil ordinaria, así como la repetición de responsabilidad en los casos de solidaridad derivados de acotados constituidos por asociación. 3. De los daños producidos por la caza procedente de Refugios, Reservas Nacionales y Parques Nacionales y de los que ocasione la procedente de terrenos de caza controlada responderán los titulares de los aprovechamientos de caza y subsidiariamente el Servicio de Pesca Continental, Caza y Parques Nacionales. 4. En aquellos casos en que la producción agrícola forestal o ganadera de determinados predios sea perjudicada por la caza, el Ministerio de Agricultura, a instancia de parte, podrá autorizar a los dueños de las fincas dañadas, y precisamente dentro de éstas, a tomar medidas extraordinarias de carácter cinegético para proteger sus cultivos. 5. Todo cazador estará obligado a indemnizar los daños que causare con motivo del ejercicio de la caza, excepto cuando el hecho fuera debido únicamente a culpa o negligencia del perjudicado o a fuerza mayor. En la caza con armas, si no consta el autor del daño causado a las personas, responderán solidariamente todos los miembros de la partida de caza (33. art.).

(e) Real Decreto Legislativo 1/2007, de 16 de noviembre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley General para la **Defensa de los Consumidores y Usuarios** y otras leyes complementarias. Todo perjudicado tiene derecho a ser indemnizado en los términos establecidos en este Libro por los daños o perjuicios causados por los bienes o servicios. Las acciones reconocidas en este libro no afectan a otros derechos que el perjudicado pueda tener a ser indemnizado por daños y perjuicios, incluidos los morales, como consecuencia de la responsabilidad contractual, fundada en la falta de conformidad de los bienes o servicios o en cualquier otra causa de incumplimiento o cumplimiento defectuoso del contrato, o de la responsabilidad extracontractual a que hubiere lugar (128. art.).

(f) *Real Decreto Legislativo 8/2004, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley sobre Responsabilidad Civil y Seguro en la **Circulación de Vehículos a Motor**. El conductor de vehículos a motor es responsable, en virtud del riesgo creado por la conducción de éstos, de los daños causados a las personas o en los bienes con motivo de la circulación. En el caso de daños a las personas, de esta responsabilidad sólo quedará exonerado cuando pruebe que los daños fueron debidos únicamente a la conducta o la negligencia del perjudicado o a fuerza mayor extraña a la conducción o al funcionamiento del vehículo; no se considerarán casos de fuerza mayor los defectos del vehículo ni la rotura o fallo de alguna de sus piezas o mecanismos. En el caso de daños en los bienes, el conductor responderá frente a terceros cuando resulte civilmente responsable según lo establecido en los artículos 1902 y siguientes del Código Civil, artículos 109 y siguientes del Código Penal, y según lo dispuesto en esta Ley. Si concurrieran la negligencia del conductor y la del perjudicado, se procederá a la equitativa moderación de la responsabilidad y al reparto en la cuantía de la indemnización, atendida la respectiva entidad de las culpas concurrentes. El propietario no conductor responderá de los daños a las personas y en los bienes ocasionados por el conductor cuando esté vinculado con éste por alguna de las relaciones que regulan los artículos 1903 del Código Civil y 120.5 del Código Penal. Esta responsabilidad cesará cuando el mencionado propietario pruebe que empleó toda la diligencia de un buen padre de familia para prevenir el daño (1. art.).* Kalte pertsonala izaten denean, kaltea sortu duena erantzulea izango da, seguruak estaltzen dion neurrian. Erantzukizuna desagertu egiten da, kaltea kaltetuarena soilik den erruak edo ustekabeko kasu batek sortu badu.

(g) *Ley 26/2007, de 23 de octubre, de Responsabilidad **Medioambiental**. Esta Ley regula la responsabilidad de los operadores de prevenir, evitar y reparar los daños medioambientales, de conformidad con el artículo 45 de la Constitución y con los principios de prevención y de que “quien contamina paga” (1. art.).*

(h) *Estatuak hartuko du terrorismoko ekintzek sortutako kalteen erantzukizuna (1311/1988 Errege Dekretua, urriaren 28koa; 32/1999 Legea, urriaren 8koa; eta 2/2003 Legea, martxoaren 12koa).*

(i) *Konstituzioko 106.2 artikulua zera agintzen du: partikularrek, legeak ezarritako moduan, eskubidea izango dute kalte-ordaina jasotzeko beren ondasun eta eskubideetan jasandako lesio ororengatik, ezinbestek eragindakako kasuetan salbu, lesio hori zerbitzu publikoen funtzionamenduaren ondorio izanez gero. Arau hori garatuz, eraientza berezia du Estatuaren eta Administrazioaren erantzukizun zibilak (30/1992 Legea, azaroaren 26koa), eta baita botere judizialaren errakuntzaz eragindakako kalteek ere (6/1985 Lege Organikoa, Botere Judizialari buruzkoa, uztailaren 1ekoa).*

4. KALTE ORDAINGARRIA

Kaltea da, erantzukizun zibilaren eraginetarako, bidezko interesa urratzeak sortutako galera oro. Espainiako sistemak ez ditu jasotzen kalte-moduak; alegia, legez ez da ezartzen babestutako eta urra daitezkeen interes edo ondasun juridikoen zerrendarik. Interesak ez du zertan eskubide izan, eta are gutxiago eskubide absolutu; haren zilegitasuna erabakitzeke, kontuan hartu beharreko oinarria da babesik ez duela merezikiko ez-zilegia edo gizarteko moralaren aurkakoa bada; esate baterako, esplotatutako prostituta hiltzeak proxenetari eragindako kaltea.

Zuzenean edo jatorrian urratutako ondasun juridikoa edo interesa edozein izanda ere (osotasun fisikoa, ohorea, jabetza, kreditu-eskubidea, eta abar), kalte-ordainaren mailan, konpondu beharreko kaltea izan daiteke:

- (1) Ondarezko kaltea edo materiala: ekonomia arloan eragindako kaltea biltzen du.
- (2) Kalte morala: esparru pertsonalean eragindako kaltea hartzen du.

Horrela, esate baterako, kaltea fisikoa bada, ordaindu beharreko kalteak lirateke bai kalte ekonomikoak (kalte materiala edo ondarekoa) eta bai kalte moralak (minak eragindako oinazeak, gorputz-adarra galtzeak sortutako atsekabea, eta abar). Kaltea beste norbaitek ere nozitu dezake, lesioen subjektu pasiboak nozitzeaz gainera; esaterako, biktimaren ezkontideak edo lagunak jasan ditzakeen kalte materialak eta moralak. Dena den, erantzukizun zibilaren eremuan kalte moralak daudela inork zalantzan jartzen ez badu ere, urratutako interesaren ezaugarriek eta horiek zehazteko eta balioesteko sortzen diren zalantzek, sarritan, ordaintzea edo konpontzea hitzak saihestu eta *konpentsazio* hitza nahiago izatea dakarte.

(1) *Galera ekonomikoa* (hau da, ondareko kaltea) Kode Zibilaren 1106. artikulua araberaz zehazten da; hark, batera eman daitezkeen balizko bi ikuspegi aurreikusten ditu: gertatutako kaltea eta galdutako irabazia. Ondareko kaltea zehazteko, eskatzen du kaltetu bakoitzaren inguruabar bereziak kontuan hartetik abiatzea; eta kaltetuak duen interes jakina aztertzea eskatzen du hondatutako edo narriatutako gauzaren existentziari edo osotasunari eusteko, galarazitako jarduera egiteko, edo kaltegilearen portaerak behartuta jarduera ez egiteko.

(2) *Kalte morala* (hau da, ondarekoa ez dena) erreparorik gabe onartu da kontratuz kanpoko erantzukizunaren eremuan, eta hainbat adibide aurki daitezke jurisprudenzian: sendatu arteko oinazea, kalte estetikoa, bidaia zapuztea, kaltetuaren ezkontideak harekin sexu-harremanak izateko aukera galtzea, maite den norbait hiltzeak sortutako atsekabea, nork berea duen etxebizitza suntsitzeak sortutako asaldura eta estutasuna, ezkontza doluz deuseztatu izanak zuzen

osatutako familia lortzeko itzaropena zapuztea, arretarik ezak eta mediku-arreta akastunak osasunari etengabeko narriatzea sortzeak eragindako larritasuna, jaiotzekoak Down sindromea zuela beranduegi esan eta umea jaiotzea, eta abar. Gainera, urratutako interesak duen izaeraren arabera, kalte morala gertatzeko eremu aproposa da ohorea, intimitate pertsonala nahiz familiarra, eta norberaren irudia kaltetzea (horietan bidegabeki sartuz gero, kalte morala dagoela joko da: *Maiatzaren 5eko 1/1982 Lege Organikoa, Ohorerako, Norberaren eta Familiaren Intimitaterako, eta Norberaren Irudirako Eskubidearen Babes Zibilaria dagokiona*).

Ondareko kalteen nahiz kalte moralen ordaina dirutan eman behar bada, lehenik, beharrezkoa da horiek balioestea. Balioestea da ordaindu beharreko kaltea dirutan adieraztea. Kontratuz kanpoko erantzukizunaren eremuan, hau da printzipio orokorra: subjektuari egotzitako kaltea osorik ordaindu behar da. Dena den, printzipio hori erabat apurtzen da *zirkulazioko istripuetan pertsonen eragindako kalteetan*; izan ere, lehenago aipatu denez, kalte-ordain tasatuen sistema ezarri du: eragindako kalte moralak eta materialak legez balioetsita daude, eta kasu guztietan ezarriko dira zenbateko horiek, aseguruik dagoen ala ez eta derrigorrezko aseguruaren mugak zein diren kontuan izan gabe. Hain zuzen, 30/1995 Legean zehazten dira: kopuru finakoak ezartzen dituen koadro baten bidez antolatzen da sistema; kopuru horiek ordain daitezkeen kontzeptu desberdinen arabera sailkatzen dira eta kalte-ordaina banan-banan bereizteko aukera uzten dute, kasuko inguruabarrak kontuan hartuz eta gehieneko eta gutxieneko kopuruen artean mugituz. Hala eta guztiz ere, ezarritako baremoak ez dira aplikatzen portaera delitu doluduna baldin bada eta, gainera, gauzei sortutako kalteei ere ez die aurre egiten.

Horiei aurre egiteko, aseguru-kontratua egin daiteke aseguru-etxe batekin. Zenbait jardueratan, nahitaezkoa da aseguru-kontratua egitea: lan-istripuak, ibilgailu motordunak, pertsonen garraioa, arriskudun jarduerak (arkitektoak, ehiztariak), ingurumena kaltetu dezaketen industriak, eta abar.

VIII. IKASGAIA

KONTRATUA

AURKIBIDEA. 1. Kontzeptua. 2. Elementuak. 3. Kontratua eratzea. 4. Kontratua interpretatzea.

1. KONTZEPTUA ETA EZAUGARRIAK

Kontratua da betebeharrak sortzeko iturririk garrantzitsuena eta, ekonomian, ondasunak eta zerbitzuak trukatzeko instrumenturik erabiliena. Horrela, trukaketa hori edukizat duen eragiketa ekonomikoaren janzkera juridikotzat ere har daiteke kontratua, kasu gehienetan horretaz ohartu gabe gertatu arren (esaterako, tabernan kafe bat hatzen denean).

Kode Zibilak kontratua zabal arautzen badu ere (KZren 1254.-1314. art.), definiziorik ez du ematen. Definizioa hurbiltzen den araurik badago, halere: *Kontratua bada izan, pertsona bat edo gehiegi ados daudenetik, beste pertsona bati edo batzuei begira, euren burua gauzaren bat ematera edo zerbitzuren bat egitera behartzeko* (KZren 1254. art.). Manamendu horrek kontratua noiz sortzen/perfekzionatzen den ezartzen du; ez du, ordea, kontratuaren definiziorik ematen.

Hainbat arau kontuan izanda, honela defini daiteke kontratua: bi pertsonen edo gehiagoren borondatez lortutako akordioa, zeinaren bidez ondarezko edukia duten harreman juridikoak sortu, aldatu edo iraungiko baitira.

(1) *Kontratua, negozio juridiko gisa*

Errealitateko gertaera berez juridikoa da, baldin eta zuzenbideak ondorio juridikorik esleitzen badio; bestela ez da juridikoa; esate baterako, norbait agurtzea edo arropa janztea gertaerak dira, baina zuzenbideak ez die ondorio juridikorik lotzen eta, beraz, ez dira gertaera juridikoak. Gertaera juridikoa hauetako bat izan daiteke:

- (1) Egitate juridikoa: errealitatean berez gertatzen diren gertaerak, inoren esku-hartzerik gabe; hala nola, norbait jaiotzea, norbait hiltzea, denbora pasatzea edo lur-jauzia.
- (2) Egintza juridikoa: ez da egitate naturala, baizik norbaiten borondatetik sortua, beti ere borondate hori askea eta kontzientea bada, eta ondorio juridikoak legeak ezartzen baditu; esaterako, umea aitortzea edo norbait adoptatzea.
- (3) Negozio juridikoa: egintza juridikoetan, borondatezko deklarazioak efektu juridikoak ere zehazten baditu (*ex voluntate*); hau da, borondatez konfiguratzeko

dira gauzatu den egintzatik eratorriko diren ondorio juridikoak.

ERREALITATEKO EGITATEA			
Juridikoki garrantzirik gabea	Naturala	Juridikoki garrantzia duena EGITATE JURIDIKOA	
		Borondatezkoa (egiteko) EGINTZA JURIDIKOA	
		Egintza juridikoa esanahi hertsian	Borondatezko deklarazioa (eraginak zehazteko) NEGOZIO JURIDIKOA

Kontratua, sailkapen horretan, aldebiko *negozio juridiko* gisa eratzen da, xede ekonomikoak lortzeko behartzen diren pertsonen borondatez egindako akordioa baita; alderdiek, askatasunez, berei komeni zaizkien itunak, klausulak eta baldintzak ezartzen dituzte, beren interesen arabera. Kontratua, berez negozio juridikoa izanik, borondatezko deklarazioa da —egintza juridikoa—, zeinari zuzenbideak efektu juridikoak sortzeko boterea esleitzen baitio; hain zuzen ere, negozioa gauzatu duten pertsonak nahi dituzten efektuak.

Negozio juridikoak sailkatzeko hainbat irizpide erabiltzen dira, baina hemen bakarra erabiliko da; hain justu, negozioan parte hartzen duten alderdien kopurua kontuan hartzen duena. Horren arabera, negozio juridikoa izan daiteke:

- (1) Aldebakarrekoa: borondatezko deklarazioa alderdi batek igorri duenean; esate baterako, testamentua egitea edo ahalordea norbaiti ematea.
- (2) Aldeanitzekoa: alderdi bik edo gehiagok parte hartzen dutenean. Horrela, kontratua bi alderdik adierazitako borondatezko deklarazioak sortutako aldebiko negozio juridikoa da; adibidez, salerosketan bi alde daude: saltzailea eta eroslea. Gerta daiteke bi alderdi baino gehiago dituzten negozio juridikoak egitea ere; kasu horretan, subjektu bakoitzak bereganatzen dituen betebeharrak ez dira beste pertsona baten aurrean baliatzeko, baizik eta xede komun bat lortzeko beren adostasuna eman dutenen aurrean baliatzeko (esaterako, sozietatea eratzen bada).

(2) *Kontratua eta borondatearen autonomia*

Negozio juridikoa da pertsonak borondatearen autonomia baliatuz egin dezakeen adierazpenik nagusia, bere interesak gobernatzeko eta bere premiak asetzeko ahalmena eskaintzen baitio. Zuzenbideak aitortu eta babestu egiten du baliabide hori, egokiena dela uste baitu alderdiek beren borondatea

adierazteko eta, horrela, harreman juridikoak sortzeko, aldatzeko edo iraungitzeko. Beraz, hainbat erakunde juridiko berez negozio juridiko dira; besteak beste, kontratua edo testamentua.

Borondatearen autonomia-printzipioa modu esanguratsuan agerian jartzen duen erakundea da kontratatzeaskatasuna. Hori ez da alor juridiko guztietan gertatzen; esaterako, Familia Zuzenbidean, Hipoteka Zuzenbidean edo Zuzenbide Publikoan interesatuek ezin dituzte beren buruentzat arauak eman; kontratuen eremuan, aldiz, alderdiek askatasuna dute beren arteko harremana arautzeko (autoarautzeko).

Printzipio hori oinarrian jarrita, edonork nahi duenean, nahi bezala eta nahi duenarekin egin ditzake kontratuak, eta alderdiek erabateko askatasuna dute horretarako:

- (a) Kontratua egiteko edo ez egiteko.
- (b) Beren interesak asetzeko xedez nahi dituzten itunak eta baldintzak ezartzeko.
- (c) Egokitzat jotzen duten kontratu-forma ezartzeko.
- (d) Kontratutik eratorriko diren efektuak ezartzeko, legeak ez baitu botererik kontratatzaileek adierazi duten borondatea aldatzeko.

Kontratuetatik sortzen diren betebeharrak lege-indarra dute alderdi kontratugileen artean, eta betebeharrak kontratu horien arabera bete behar dira (KZren 1091. art.).

Era horretan, adostasuna kanporatuz, kontratuko alderdiak behartuta gera daitezke berek egokitzat jo eta ezartzen dituzten itun, klausula eta baldintzen arabera. Laburbilduz, kontratua da alderdiek beren interesak arautzeko duten kontratatzeaskatasunaren adierazle nagusia. Ordenamendu juridikoak ez du parte-hartze zuzenik eragiketa horretan, ulertzen baita kontratuan adierazi den alderdien borondatea beti izango dela bidezkoena eta egokiena kontratatzaileentzat, bestela ez bailukete adostasunik emango betebeharrak beren gain hartzeko.

Printzipio hori arau honetan biltzen da: *Kontratugileek ezar ditzakete euren ustez komenigarri diren itun, klausula eta baldintzak, ez badira legeen, moralaren eta ordena publikoaren aurkakoak (KZren 1255. art.).* Askatasun horri ere eremu bat ezarri behar zaio, eta bere eraginaren esparrua zehaztu behar da. Beraz, borondatearen autonomiak badu mugarik:

- (1) *Legezko muga.* Kontratuaren edukiak legea, morala eta ordena publikoa errespetatu behar ditu; bestela, horien kontrako kontratua ez da zilegia izango. Gainera, zenbait manamendutan, borondatearen autonomiari beste muga batzuk ere ezartzen zaizkio; esaterako, KZren 1102. edo 1116. artikuluetan. Arau horiek berez aginduzkoak dira, nahitaezkoak.

(2) *Egitatezko muga*. Gainera, borondatearen autonomia-printzipioa ilundu egiten da, alderdietako batek kontratua egiteko askatasuna erabat edo partzialki galtzen badu. Horixe gertatzen da, praktikan, harreman juridiko askotan; esaterako, atxikitze-kontratuetan.

2. ELEMENTUAK

KONTRATUAREN ELEMENTUAK			
Oinarrizkoak	Adostasuna (askatasuna)	Gaitasuna	
		Akatsa	Errakuntza
			Indarkeria
			Beldurraraztea
			Dolua
	Objektua		
	Kausa		
Forma			
Naturalak	Klausula normalak = edukia (kalifikazioa)		
Akzidentalak	Baldintza		
	Epea		
	Modua		

Kontratuak, jaiotzeko eta erabateko eraginkortasuna izateko, betekizun edo elementu batzuk izan beharko ditu. Elementuak izan daitezke:

(1) Oinarrizkoak. Nahitaez agertu behar dutenak, bestela kontratua ez baita existituko. Beraz, kontratua osatzeko derrigorrezkoak dira, eta alderdiek ezingo dituzte ezabatu.

(2) Naturalak. Eskuarki kontratuari laguntzen dioten elementuak dira. Beraz, alderdiek, horiek aldatzea edo ezabatzea adostu dezakete, ez baitira nahitaezkoak kontratua existitzeko; esaterako, saldutako gauza saneatzeko betebeharrari buruzko eraentza ezartzea.

(3) Akzidentalak. Alderdiek aipatze bidez kontratuan sartzen dituztenak dira, beren efektuak mugatzeko edo aldatzeko; esaterako, baldintza, epea edo modua. Baldintza eta epea zer diren azaldu da lehenago; modua, berriz, zera da: muga osagarria, zeinaren arabera negozioari ardura bat gehitzen baitzaio, onura jasotzen duenak jasan beharko duena; esate baterako, dohaintza-kontratuan, dohaintza-hartzaileari pentsio bat ordaintzeko ardura ezartzea.

Elementu horietatik oinarrizkoak azalduko dira, kontratua eratzeko nahitaezkoak baitira: *Ez dago kontraturik, hurrengo betekizunak gauzatzen direnean baino: 1. Kontratugileen adostasuna. 2. Objektu zehatza, kontratuaren gai dena. 3. Kontratuak ezarritako betebeharraren kausa* (KZren 1261. art.).

Gero, ez da eskatzen kontratua egiteko forma berezirik; kontratuak hartuko duen forma ez da nahitaezko elementua, kontratua existitzeko. Hala ere, zenbaitetan oinarrizko elementua izango da, legeak edo alderdiek aipatze bidez hala ezartzen badute. Adibidez, ondasun higiezina dohaintzan emateko, nahitaezkoa da eskritura publikoa egitea (KZren 633. art.).

(1) Adostasuna

Adostasuna da alderdiek askatasunez eta kontzienteki adierazitako borondatez lortutako akordioa, kontratuaren edukia zehaztu eta behartzeko asmoa kanporatzen duena. Adostasunak, baliozkoa izateko, honako hauek bildu behar ditu:

(a) Gaitasuna. Borondatea adierazten duen pertsonak emateko gaitasuna izan behar du: *Ezin dute adostasunik eman: 1. Adingabeko emantzipatugabeek. 2. Ezgaituek* (KZren 1263. art.). Kontratatzeko gaitasunak eta jarduteko gaitasun orokorrak bat datoz. Bestalde, ez dira nahastu behar kontratatzeko ezgaitasuna eta kontratatzeko debekua:

(a') Kontratatzeko ezgaitasun kausak —adierazi direnak— berez subjektiboak dira, eta aipamen egiten die pertsonaren beraren inguruabarrei; ondorioz, edonorekin kontratatzea galarazten dute.

(b') Kontratatzeko debekuak, berriz, pertsona zehatz batzuekin kontratatzeko aukera edo objektu zehatz batzuk kontratuen objektu izateko aukera mugatzen du. Esate baterako: *ezin dituzte erosketaren bidez eskuratu, ezta jendeaurreko edo epaiketazko enkantearen bidez ere, dela zuzenean, dela tartean jarritako beste pertsona baten bidez: 1) Tutoretza karguan ari direnek, euren zaintza edo babespean jarritako pertsonaren edo pertsonen ondasunak* (KZren 1459.1 art.).

(b) Askatasunez eta kontziente ematea, alegia, akastuna ez izatea: *deuseza izango da errakuntza, indarkeria, beldurrarazte edo doluaren ondorioz emandako adostasuna* (KZren 1265. art.). Hasteko, kontuan izan behar da adostasuna adierazi eta eman dela eta, ondorioz, zuzen eman izan dela uste izango da. Horregatik, adostasunean akatsik balego ere, berez negozioa eta kontratua existitzen da, baina deuseztagarria da; alegia, deuseztatzea norbaitek eskatu behar du eta bitartean eraginak izango ditu. Ahalmen hori izango du akatsaren kalteak jasaten dituen interesatuak; zuzenbideak deuseztatze-akzioa ematen dio horri, eta baliatzeko lau urtekoa epea izango du (KZren 1301. art.). Gerta daiteke ahalmen hori egikaritu ez eta kontratu hori baliozkotzea ere.

Hauek dira adostasunak jasan ditzakeen akatsak:

(a') **Errakuntza.** Hasteko bereizi behar dira borondatea osatzea (erabakitzea) eta borondatea adieraztea (kanporatzea). Hori kontuan izanda, errakuntza ager daiteke: (1) borondatean —akatsa den errakuntza—: borondatea eratzeko erabili diren egitateei edo errealitateari buruz ezagutza faltsua edo datu okerrak izan eta, akats horretan oinarriturik, pertsonak borondatea osatu eta benetan nahi ez duen adostasuna eman du; edo (2) deklarazioan —esanean den errakuntza—: borondatea zuzen osatu da, baina kanporatutako adierazpena ez dator bat borondatearekin.

Errakuntza guztiek ez dute indarrrik adostasuna baliorik gabe uzteko, beharrezkoa baita: (1) oinarrizko edo *funtsezko* errakuntza izatea; alegia, pertsonaren borondatean eragin nabarmena izan duena, jakin izatera adostasunik ez emateko adinakoa: *Kontratuaren deuseztagarritasuna sorrarazteko, errakuntza kontratuaren objektuaren gain edo kontratua egiteko erabakigarriak izan diren bere baldintzen gain eman behar da* (KZren 1266. art.). (2) Halaber, errakuntzak adostasuna baliorik gabe uzteko, jasan duen pertsonari *egotzi ezin* zaion errakuntza izan behar du. Alegia, arreta normala jarritz errakuntza ekiditeko aukera izan badu, errakuntza ez da izango barkagarria, barkaezina baizik.

Errakuntza pertsonaren gainekoa bada, kontratua baliogabetuko du, pertsona horren ezaugarriak kontratua egiteko kausa izan badira. Esate baterako, txosten ekonomikoa eskatzea ekonomia-zientzietan lizentziatua ez den norbaiti.

Bukatzeko, kontuak ateratzean errorerik egin bada, zuzendu besterik ezin da egin: *Kontuaren gaineko errakuntza soilak errakuntza horren zuzenketa besterik ez dakar* (KZren 1266.3 art.).

(b') **Indarkeria.** Adostasuna lortzeko, pairaezina den indarra jasatea (KZren 1267.1 art.). Horrelakoetan, adostasunaren erabateko existentziarik eza dago, borondate-akastuna baino; izan ere, kontratatzeke borondate askea eta kontzientea pairaezina den indarrak ordezkatu du, eta hori izan da adostasuna emateko kausa bakarra. Gogoratu, kasu horretan ere kontratua ez dela deuseza izango, deuseztagarria baizik; indarkeria eteten denean, kaltetuak orduan egikaritu ahal izango du akzioa (KZren 1301. art.).

(c') **Beldurraraztea.** Norbaiti mehatxu egitea, hari edo haren ezkontideari, ondorengoari edo aurrekoari, edo horien guztien ondasunei gaitz larria eta berehalakoa jasanaraztea, beldur arrazionala eta funtsatua sorrarazteko adinakoa. Esate baterako, kaleko aparkaleku publikoan automobila uzteagatik norbaitek dirua eskatzea, hark zainduko duela adieraziz.

Beraz, beldurraraztean bi elementu biltzen dira: (1) mehatxua: berehalakoa, larria eta bidegabea; eta, horren ondorioz, (2) beldurra: arrazionala eta funtsatua. Beldurraraztea egon den edo ez erabakitzeke, kontuan izan behar dira pertsonaren adina eta ezaugarriak (KZren 1267. art.), pertsona guztiak ez baitira berdin beldurtzen mehatxu-egoera baten aurrean. Mehatxua beste kontratatzaile batek edo hirugarren batek egin dezake (KZren 1268. art.).

Bukatzeko, kontuan izan behar da zenbait egoera ezin direla baliatu beldurraraztea arrazoitzeko: *Pertsona zehatz batzuei mendetasuna eta errespetua zor eta horiek nahigabetzeko beldurrak ez du kontratua deuseztatuko* (KZren 1267. art.).

(d') **Dolua.** Norbaitek, hitz edo azpijoko maltzurak erabiliz, beste norbait engainatzea. Berez, engainatuaren borondatean errakuntza dago, baina errakuntza hori beste norbaitek sorrarazi du apropos. Horrela, dolua da pertsona batek beste batek adostasuna emateko erabiltzen duen fede gaiztoan oinarritzen den akatsa. Doluz jarduten duenaren asmoa engainatzea da; hau da, errakuntza sorrarazi nahi du kontratazioaren baldintzen inguruan.

Dolua bi motatakoa izan daiteke (KZren 1270. art.): (1) dolu larria: engainua da kontratua egiteko kausa nagusia; (2) zeharkako dolu: engainua dago, baina ez da izan kontratua egiteko kausa nagusia; kasu horretan, engainua erabiltzen da kontratua egitea errazteko. Eraginei begira, larria bakarrik hartuko da aintzat, kontratua deuseztatzea eskatzeko; zeharkako doluak kalte-galerak ordaintzeko betebeharra ekarriko dio erabili duenari.

Adostasuna akastun bihurtzeko eta kontratuen deuseztasuna sorrarazteko, doluak larria eta alderdi batek bakarrik erabilia izan behar du. Alderdi biek erabili badute, erruak konpentsatu egingo dira.

Gainera, horrelakoetan aztertu beharko da portaera hori berez delitua edo falta ote den; esaterako, maula kasuetan.

Bukatzeko, ez da nahastu behar beste gauza batekin: dolu onargarri edo *dolus bonus* delakoarekin.

Todos aquellos supuestos en los que se acepta cierta posibilidad de riesgo, social y legalmente admitido, como por ejemplo acontece en los casos de técnicas comerciales o publicitarias agresivas, en los que la exageración del valor o de las propiedades positivas de un producto o servicio concreto, hasta ciertos límites, se considera lícita (AGE 2003/01/02).

(2) Objektua

Hauek izan daitezke kontratuaren objektu: gizakien merkataritzatik kanpo ez dauden gauza guztiak, baita etorkizunekoak ere (KZren 1271. art.). Gauzak eta zerbitzuak bakarrik aipatzen badira ere, kontratuaren objektu izan daitezke eskubideak (esaterako, kreditu-eskubidea lagatzea) edo zorrak.

Dena den, betebeharraren objektua azaltzerakoan adierazi denez, hainbat betekizun bete behar ditu objektuak (KZren 1272. eta 1273. art.):

(a) Materialki posible izatea: existitzen dena edo existituko dena, eta eskura dagoena.

(b) Zilegia; merkataritza zilegikoa, alegia. Zenbait gauzen merkataritza debekatuta edo murriztuta egon liteke: delitutzat jotzeagatik (esaterako, estupefazianteak), besterendu ezina izateagatik (erabilera- eta biztante-eskubideak, KZren 525. artikulua araberan), beste gauza bati lotuta egiteagatik (zortasunak, 534. artikulua araberan), gaitz kutsakorra duen animalia (KZren 1494.1 art.), etorkizuneko herentzia (KZren 1271. art.), edo norberak konplitu beharreko eskubideak (izena, auzokotasuna, naziokotasuna).

(c) Zehaztua edo zehazgarria: behin espeziea zehaztu ostean, gerorako utz daiteke gauza erabat zehaztea (KZren 1273. art.).

(3) *Kausa*

Alderdiek kontratuarekin lortzea espero duten oinarrizko xedea da kausa, hau da, kontratua egiteko arrazoi edo zio nagusia. Esate baterako, salerosketan, saltzailearentzat erosleak eman beharreko prezioa izango da kontratuaren kausa, eta eroslearentzat diruaren truk jasotzen duena.

Legeak ez du kausari buruzko kontzepturik ematen, KZren 1274. artikuluan aipatzen bada ere. Arau horretan, kontratuen kategoria bakoitzean kausatzat zer jotzen den ezartzen da:

(a) Kostubidezko kontratuetan, alderdi bakoitzaren kausatzat joko da beste alderdiak agindutako prestazioa. Kostubidezko kontratuetan, baliokidetasuna dago alderdi batek ematen duenaren eta beste alderdia ematera edo egitera behartzen denaren artean.

(b) Doako kontratuen kausa ongilearen liberaltasuna da. Kontratu mota horietan, beste alderdiari onura egitea da xede bakarra, arrazoi pertsonala edozein delarik ere. On egin duenaren poza da lortu nahi den gauza bakarra.

(c) Kontratu-ordaintzailearen edo -saritzailearen kausa da saritzen den zerbitzua edo onura. Kontratu horietan, jadanik gauzatu den zerbitzu bat saritu nahi da.

Kausak ere hainbat betekizun bete behar ditu (KZren 1275. eta 1276. art.):

(a) Existitzea. Kausarik gabeko kontratuek ezin dute efekturik sortu, ez baitago kontraturik. Hala eta guztiz ere, negozioak errazteko eta kausa kontratuan adierazi gabe egon arren, uste izango da beti dagoela kausa eta, gainera, zilegia dela; behintzat, zordunak kontrakorik frogatzen ez duen bitartean (KZren 1277. art.).

(b) Benetakoa izatea. Kausa faltsua adierazten bada, kontratua deuseza izango da; beti ere, ez bada frogatzen kontratua benetakoa eta zilegia zen beste batean oinarritzen denik (KZren 1276. art.). Zenbaitetan, alderdiek kontratua egiteko benetako kausa azaldu beharrean, estali egiten dute beste bat adieraziz; esaterako, dohaintza egiteko, salerosketa egin eta prezioa ordaintzen ez denean. Negozio simulatua egiten da, alderdiek, ados jarrita, benetan nahi duten kausa ez den beste kausa batekin adierazten baitute beren borondatea —negozioak errealitatearekin zerikusirik ez duen itxura du—. Simulazio hori erlatiboa edo erabatekoa izan daiteke: lehenengoan, estali egiten da benetan nahi den kontratua edo negozioa egiteko kausa; bigarrean, kontratua inolako kausarik gabe egiten da.

(c) Zilegia izatea. Zilegia ez den kausa duten kontratuek ez dute inolako efekturik sortzen. Kausa ez da zilegia, legearen edo moralaren aurkakoa denean (KZren 1275. art.). Esaterako, norbaiten maulan egitea, kalte egiteko.

(4) *Forma*

Hasteko, oinarrizko printzipio gisa, kontratuak egiteko forma-askatasuna ezartzen da. Kontratuak bete beharrekoak izango dira, horiek egiteko forma edozein izanik ere, baldin eta euren baliozkotasunerako oinarrizko baldintzak betetzen badira (KZren 1278. art.). Beraz, forma ez da kontratuak egiteko ezinbesteko betekizuna; adostasuna, objektua eta kausa biltzen direnetik sortuko da kontratua.

Forma, berez, kontratua kanporatzeko baliabidea da, gainerakoek horrela bakarrik izan baitezakete haren berri. Kontratua, formaren ikuspegitik, ahoz edo idatziz egin daiteke. Kontratua egiteko forma jakinik eskatzen ez bada ere, ikuspegi praktikotik, komeni da kontratua dokumentatzea, alegia, idatziz jartzea. Halaber, idatzizko kontratuak dokumentu pribatuan edo publikoan formaliza daitezke. Partikularren arteko dokumentuak publiko bihurtzea notarioen zeregina da; notarioaren aurrean dokumentua edo eskritura egiteak ekarriko du kontratuaren existentzia eta edukia ziurtatzea eta frogatzea. Dokumentu publikoen eraentza 1216. artikuluan eta hurrengoetan ezartzen du Kode Zibilak, eta dokumentu pribatuena, berriz, 1225.ean eta hurrengoetan.

Formak bi modutan jardun dezake kontratuetan:

(a) Kontratua baliozkoa izateko, oinarrizko betekizun gisa. Legeak, zenbait kontratutan, borondatea adierazteko forma berezia eskatzen du (*ad*

solemnitatem); beraz, formaren ikuspegitik, kontratua serioa da.

(b) Kontratua, frogatzeko modu gisa (*ad probationem*). Kontratua baliozkoa da edozein formatan, baina frogatu ahal izateko forma eskatzen da.

Forma eskatzeari buruzko araudian, abiapuntua arau honek jartzen du: *Legearen aginduz beharrezkoa bada eskritura edo beste forma berezi bat betetzea kontratuaren berezko betebeharrak eragingarriak izan daitezzen, kontratugileek elkar behartu dezakete forma hori betetzera, adostasuna eta kontratauren baliokotasunerako beharrezkoak diren gainerako betekizunak gauzatzzen direnetik* (KZren 1279. art.). Gero, hainbat kasutan dokumentu publikoa eskatzen da (KZren 1280. art.), kontratua existitu arren, frogabide gisa eta eraginkor bihurtzeko. Kontratua legeak ezartzen duen formara egokitzen ez den bitartean, alderdiek, betebeharra betetzea galdatzen bazaie, alega dezakete kontratua eraginkortasunik gabea dela, legezko formarik betetzen ez duelako. Besteak, berriz, kontratua formaz jasotzeko eska dezake, eragina izateko. Esanahi horrekin ulertu behar da arau hau: halaber, *gainerako kontratuak idatziz agerrarazi beharko dira, nabiz eta idazkia pribatua izan, baldin eta 1.500 pezetatik gorakoa bada kontratugile bati edo biei dagozkien prestazioen kopurua* (KZren 1280.6.2 art.).

Beraz, formaren betekizuna berez ez da beti nahitaezkoa, laguntzailea baizik, kontratua badela eta, bereziki, haren data frogatzeko. Legeak kontratua baliozkoa izateko aipatze bidez ezartzen duen kasuetan bakarrik bete beharko da eskatutako forma; esate baterako, eskritura edo dokumentu publikoa, ondasun higiezinaren dohaintzan emateko (KZren 633. art.), ezkontza-hitzarmenak adosteko (KZren 1327. art.), higiezinaren ekarpenarekin osatutako sozietatea sortzeko (KZren 1667. art.) edo hipoteka eratzeko (KZren 1875. art.).

3. KONTRATUA ERATZEA

Ikusi denez, trafiko juridikoan kontratua sortuko da bi borondate-deklarazio edo gehiago aldi berean ematen badira, KZren 1258. artikulua dioen gisan: *kontratuak burutzen dira adostasun hutsaren bitartez* (KZren 1258. art.); eta, *adostasuna azaltzen da eskaintza eta onarpena bat etortzeagatik, kontratua eratu behar duten gauzaren eta kausaren inguruan* (KZren 1262.1 art.). Beraz, kontraturik ez dago eskaintzak eta onartzeak bat egin arte.

(1) *Aurreko tratuak*

Eskuarki —ez beti—, borondateen elkartze horretara iritsi baino lehenago, aurreko tratuak egon ohi dira: kontratua egin aurreko harremanak, non alderdiek kontratuaren baldintzak eztabaidatzen baitituzte —objektua, prezioa,

exekuzioa, bermeak, eta abar—. Harreman horien xedea eskaintza zehatz bat egitea da, gero besteak onar dezakeena, hartara kontratua sorrarazteko.

Aurreko tratu horiek haustekak, hasiera batean, ez du inolako ondoriorik alderdientzat, kontratatzeke erabateko askatasuna izanik, oraindik ez baitute kontraturik egin. Hala eta guztiz ere, zenbaitetan, harreman horiek kontratua gauzatuko dela pentsaraz dezakete —itxaropen funtsatua— eta, horren kariaz, zenbait gastu egitera bultzatu. Horrelakoetan, harreman horiek fede gaiztoz apurtzeak kalte-galeren erantzukizuna hartzeko betebeharra sor dezake (*in contrahendo* errua).

(2) *Eskaintza eta onartzea*

Bata zein bestea borondatearen adierazpenak dira. Eskaintza da kontratu bat egiteko asmoz beste norbaiti igortzen zaion borondate-deklarazioa. Eskaintza egin dakioket pertsona jakin bati, pertsona multzo bati edo, oro har, edonori —esaterako, dendako erakusleihoan edo egunkariko iragarkian—.

(a) Eskaintzak ez du forma berezirik eskatzen baliozkoa izateko. Esate baterako, dendako erakusleihoan egiten dena.

(b) Eskaintzak osatua egon behar du, alegia, kontratuak jasoko dituen elementu guztiak bildu behar ditu, beste alderdiak onartze hutsarekin kontratua gauzatzeko moduan. Beraz, ez dira eskaintza kontratatzerako edo eskaintza egitera gonbidatzen duten borondate-deklarazioak.

(c) Eskaintza igorri eta gero, eskaintza-hartzaileak onar edo bazter dezake hura. Normala izaten da eskaintza atzera bota eta kontraeskaintza egitea —berez, beste eskaintza berri bat—, jasotako eskaintzari berrikuntzak gehituz.

(d) Eskaintza muga daiteke denboran edo beste irizpide batekin (esaterako, dauden izakinak edo stocka amaitu arte). Iraupena berez jakina izan liteke (esaterako, hilaren bukaera arte), eskaintzaileak horrela zehaztu badu; ez badu iraupenik zehaztu, eskaintza indarrean izango da ezeztatu arte edo, negozioaren izaeraren arabera, arrazoizko denbora iragan arte. Dena den, legeak hala agintzen badu, eskaintza errebokaezina izan liteke; esate baterako, aseguruaren proposatzen bada edo sozietate-tituluak eskuratzeko eskaintza (OPA) plazaratzen bada. Bestalde, eskaintzailea hiltzen bada edo hark jarduteko gaitasuna galtzen badu, eskaintza iraungi egingo da, beti ere berez errebokaezina ez bazen edo enpresari lotutako jardueri dagokiena ez bada.

(e) Oro har publikoari eskaintza egin eta atzera bota nahi bada, hura zabaltzeko erabili den publizitate-bide berbera erabili beharko da. Hala ere, eskaintza hori ezin da behin betikoa izan, eskaintza guztiek epe bat baitute, nahiz eta ez adierazi, inguruabarretatik ondorioztatu beharko dena.

(f) Eskaintza publikoaren ondoan, beste zerbait da publizitate-eskaintza: ondasunak edo zerbitzuak lortzera bultzatzeko asmoz ematen den informazioa. Eginkizun hori arautzen dute Publizitateari buruzko Lege

Orokorrak eta Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Defentsarako Lege Orokorrak.

Onartzea, berez, eskaintza-hartzaileak igorritako borondate-deklarazio bat da. Bere xedea da eskaintzaileari zerbait adieraztea: proposamenarekin ados dagoela. Formaz, onartzea egin daiteke: ahoz edo idatziz, aipatze bidez edo isilbidez. Beraz, eskaintza norbaitek onartzen badu, kontratua sortzen/perfekzionatzen da, hau da, trafiko juridikoa sortzen da. Ondorioz, eskaintzaileak jadanik ezin du bere eskaintza atzera bota.

(3) *Absenteen arteko kontratazioa*

Kontratuaren perfekzioa edo gauzatzea gertatzen da eskaintzak eta onartzeak bat egiten dutenean. Ezaugarri horrek eragin hauek ditu: sortu den harreman juridikoari alderdiak lotzea, hura osatzen duten borondate-deklarazioen ezeztiazintasuna eta haren eragin tipikoaren jaiotza. Kontratua gauzatu edo perfekzionatu ondoren, alderdien akordio komunak bakarrik alda dezake hura.

Absenteen arteko kontratazioak honako arazo hau dakar: noiz gauzatzen da aurrez aurre ez dauden pertsonen arteko kontratua? (gutunez edo beste baliabide bat erabiliz erlazionatzen dira?).

Kode Zibilak, hasiera batean, *ezagutza-teoriaren* alde egiten zuen. KZren 1262.2 artikulua jatorrizko erredakzioa: *gutunez egin den onartzeak ez du eskaintza egin zuena lotzen, horrek ezagutzea beharrezkoa baita*. MKren 54. artikulua, ordea, igorpen-teoria aplikatzen zuen. Doktrinak uste zuen KZren aukera oso zorrotza zela.

Gaur, KZren 1262.2 artikulua (MKren 54. artikulua erredakzio bera du) aldatu egin dute¹: *Eskaintza egin duena eta hori onartu duena toki desberdinetan badaude, adostasuna dago eskaintzaileak onarpenaren berri duenetik, edo, onartzaileak eskaintzaileari onarpena igorrita, horrek ezin duenean ezikusiarena egin onusteari kalterik egin gabe*. Beraz, erdibideko aukera egiten da.

Konponbide hori postaz edo antzeko baliabideak erabiliz egin diren kontratuei aplika dakieke (*adib.: faxa; korreo elektronikoa*²). Halaber, bitarteko elektronikoak erabiliz egin diren kontratuei. Baina, *kontratuak eragingailu automatikoen bitartez egin badira, adostasuna dago onarpena adierazten denetik* (KZren 1262.3 art. eta MKren 54.2 art.). Adib.: *on line* kontratuak.

Lekuari dagokionez, aurrez aurre dauden pertsonen arteko kontratazioaren inguruan ez dago inolako zalantzarik. Absente dauden pertsonen arteko kontratazioan, zera dio KZren 1262. 2 *in fine* artikulua: *Kasu honetan, eskaintza non gauzatu eta kontratua bertan egin dela uste da*.

¹ [Ley 34/2002, de 11 de julio, de servicios de la sociedad de la información y de comercio electrónico](#) (BOE núm. 166, de 12/7/2002, p. 25388-25403) **aldatu du**.

² *Telefonoz kontratatzen denean*, alderdiak **aurrez aurre** daudela ulertzen da.

4. KONTRATUA INTERPRETATZEA

Kontratuak alderdien borondatea zein den argi eta garbi adierazten badu, ez du inolako arazorik sortzen diren efektuak zehazteko. Hala ere, edukia islatzeko prozesuan, iluntasuna gera daiteke klausuletan, eskarmentu ezagatik, arreta gabeziagatik edo fede gaiztoagatik. Orduan, interpretazioaren mekanismoa erabili behar da jakin ahal izateko zein den alderdien borondatea eta kontratuaren benetako edukia. Beraz, interpretazioa da kontratu bateko klausula ilunen benetako esanahia argitzeko eta zehazteko erabiltzen den prozedura, kontratuaren eraginkortasuna ahalbidetzeko.

Si el texto resulta claro, el intérprete o juez debe abstenerse de más indagaciones, en armonía con la regla de que las palabras, si son verba simpliciter, deben entenderse según su natural significado, al proclamar que lo que está claro no necesita de interpretación, supuesto en el que la investigación de la voluntad huelga (AGE 1985/5/3).

Horretarako, alderdiek kontratu eta klausula horrekin zer nahi zuten jakin behar da. Hasteko, kontuan izan behar da alderdiek kontratuari eman dioten izena —*nomem iuris* edo kalifikazioa— ez dela erabakigarria inolaz ere. Kontratua berez zer den edukiak berak erakutsiko du, eta ez alderdiek emandako izenak. Azken batean, *los contratos son lo que son y no lo que digan las partes* (AGE 1985/9/30); *los contratos se revelan no por la nominación que se les dé, sino por la que corresponde a las cláusulas que se establezcan* (AGE 1985/6/13). Ondorioz, *la calificación realizada por partes no tiene otro carácter que el meramente orientativo, por lo que no vincula al juzgador* (AGE 1984/6/29).

Alderdien borondate komuna zehaztu beharko da; zeregin hori betetzeko, hainbat erregela ezartzen dira interpretaziorako. Baina, bi ikuspuntutatik begira daiteke interpretatzeko arazoa:

- (1) Teoria subjektiboa: interpretazioaren xede izango da alderdien asmo komuna lortzea; alderdiek lortu nahi izan duten edukia aurkitzen saiatzea.
- (2) Teoria objektiboa: interpretazioaren xede izango da trafikoan kontratu horri ematen zaion esanahi normalena aurkitzea.

Kode Zibilaren interpretaziorari buruzko arauak teoria subjektibotik abiatzen dira: lehendabizi, kontratua egiteko momentuan alderdien borondatea zein zen jakiten saiatu behar da. Hala ere, lagungarri gisa, kontuan izan behar dira irizpide objektiboak ere.

4.1 Kontratua interpretatzeko irizpide subjektiboak

Interpretazioaren helburua da alderdien asmoa jakitea: *la interpretación admisible es la que atiende a la común intención de los contratantes (...) basada en la voluntad bilateral de ambos, quedando por tanto excluida de mera voluntad interna de cualquiera de los contratantes, que puede servir, no obstante, para concretar aquella voluntad común* (AGE 1983/11/8).

Horretarako, Kode Zibilak irizpide hauek ematen ditu:

(1) *Kontratuaren hitzak argiak badira eta ez badute zalantzarik sortzen kontratugileen asmoari buruz, kontuan hartuko da kontratuko klausulen hitzez-hitzekotasuna. Hitzak itxuraz kontratugileen ageriko asmoaren aurkakoak badira, asmo horrek lehenespena izango du hitzen gainetik* (KZren 1281. art.).

(2) *Kontratugilearen asmoa aztertzeke, kontuan izan behar dira, batik bat, kontratua egiteko unean eta horren ondotik kontratugileok gauzaturiko egintzak* (KZren 1282. art.). Aurrekoak ere har daitezke kontuan.

(3) *Nabiz eta kontratu baten terminoak oso orokorrak izan, ezin dira barneratu kontratu horretan alderdiek kontratatu nahi izan ez zituzten gauza eta kasu desberdinak* (KZren 1283. art.). Hau da, ezingo da inoiz kontratu bat interpretatu interesdunen asmoak aurreikusi gabeko zerbait sartuz.

4.2 Kontratua interpretatzeko irizpide objektiboak

Gero, interpretatzeko zereginean, beharrezkoak dira irizpide objektiboak ere:

(1) Interpretazio sistematikoa: *Kontratuetako klausulak elkarrekin interpretatu behar dira, zalantzarazko klausulei klausula guztien multzotik ateratzen den esangura emanez* (KZren 1285. art.).

Un contrato (...) es un todo coherente y unitario que no admite radicales separaciones (...) puesto que cada cláusula encuentra su razón de ser y justificación en el conjunto armónico de todas las demás (AGE 1984/7/16).

(2) Kontratua kontserbatzearen aldeko printzipioa: *kontratuetako klausularen batek esangura desberdinak izan abal baditu, klausula hori modurik egokienean ulertu behar da, ondoreak izan ditzan* (KZren 1284. art.). Erregela honen bitartez xedearen araberrako interpretazioa egiten da, emaitza praktikoa bat lortu nahi baita: *esanahi desberdinak izan abal ditzuten hitzak ulertuko dira kontratuaren izaira eta objektuari gehien egokitutako esanahiarekin* (KZren 1286. art.).

(3) Kontratua interpretatzeko usadioak: *Herriko usadio edo obitura kontuan izango da kontratuen ambiguitasunak interpretatzeko; kontratuetan ez badira aipatzen kontratu orotan ezarri obidiren klausulak, obitura edo usadioarekin beteko dira hutsuneok* (KZren 1287. art.).

(4) Klausulagilearen kontrako interpretazioa: *Kontratuan klausula ilunak izanez gero, horien interpretazioa ezin da onerakoa izan iluntasuna eragin duen alderdiarentzat* (KZren 1288. art.), anbiguotasun edo iluntasun horren errudunak ondorioak jasan behar baititu.

4.3 Irtenbide subsidiarioa

Zenbaitetan, aurreko erregelak aplikatuta ere, zalantzak ezin dira argitu. Orduan, arau hau aplikatuko da: *Aurreko artikuluetan ezarritako erregelen bidez erabat ezinezkoa denean zalantzak konpontzea, eta zalantzok kontratuaren aldiaren aldiko inguruabarrei buruzkoak badira, eta kontratua dohainekoa bada, orduan, zalantzok konponduko dira abalik eta eskubide eta interes gutxien eskualdatuz. Kontratua kostubidezkoa bada, zalantza argituko da interesen artean abalik eta elkarrekikotasun handiena lortuz. Artikulu honen bidez konpondu nahi diren zalantzak kontratuaren objektu nagusiari buruzkoak badira, eta, horren ondorioz, ezin bada jakin zein izan den kontratugileen asmo edo borondatea, kontratua deuseza izango da* (KZren 1289. art.).

IX. IKASGAIA

KONTRATU MOTAK ETA BORONDATE-AUTONOMIARI MUGAK

AURKIBIDEA. 1. Kontratu motak. 2. Borondate-autonomiari mugak: atxikitze-kontratua eta kontratuzko baldintza orokorrak.

1. KONTRATU MOTAK

Kontratu motak		
Eratzeko prozesuko elementuen arabera	Adostasuna	Adostasunezkoa
	Gauza ematea	Errealak
	Forma irmoa	Formalak
Helburuaren arabera	Eskuzabaltasuna	Doakoa
	Trukatze ekonomikoa	Kostuzkoa
Kausaren arabera	Garrantzirik gabekoa	Abstraktua
	Beharrezkoa, aipatu ez arren	Kausala
Zuzenbideak jasotzearen arabera	Bai	Tipikoa
	Ez	Atipikoa
Denboraldiaren arabera	Bakarra	Bat-batekoa
	Segidakoa, aldi jakinik gabekoa	Iraunkorra
	Aldi jakinetan	Aldizkakoa
Betebeharren arabera	Alderdi batentzat	Aldebakarrekia
	Alderdi bientzat	Aldebikoa

1.1 Adostasunezkoa, errealak eta formalak

Kontratua sortzeko edo perfektionatzeko bete behar diren betekizunak kontuan hartuta, kontratua izan daiteke:

- (1) *Adostasunezkoa*. Kontratua sortzeko, nahikoa bada borondateen akordio (adostasun) hutsa. Esaterako, salerosketa.
- (2) *Errealak*. Kontratua sortzeko, adostasunaz gainera, kontratuaren objektua den gauza eman behar bada. Esaterako, mailegua (KZren 1740. art.), gordailua (KZren 1758. art.) edo bahitura (KZren 1863. art.).
- (3) *Formalak*. Kontratua perfektionatzeko edo eraginak sortzeko, forma berezia betez egitea eskatzen bada. Esaterako, ondasun higiezinak dohaintzan ematea.

1.2 Kostubidezkoa eta doakoa. Trukakorra eta ausazkoa

Kontratuen xedearen arabera, kontratua izan daiteke:

- (1) *Kostuzkoa*. Alderdi bakoitzak —bere ikuspegitik—, abantaila lortu nahi badu baliokidea den beste konpentsazioaren bidez. Hau da, alderdi bakoitzak

beste alderdiak prestatu beharreko zerbaiten itxaropena du; baliokidea izatea juridikoki neurtzen da, eta ez ekonomikoki. Esate baterako, errentamendu-kontratuan, batek besteari zerbaitez gozatzen uzten dio, baina beste horrek dirua ordaintzen diolako, eta alderantziz.

(2) *Doakoa*. Alderdi batek besteari ezereen truk abantaila ematen dio eta, kontratuaren ondorioz, batek bakarrik jasotzen du onura. Esaterako, liburua uztea edo opari bat ematea.

Aldi berean, kostubidezko kontratua trukakorra edo ausazkoa izan daiteke, irizpide honen arabera: prestazioen baliokidetasuna alde zurretik ezarri, edo zoriaren esku utzi.

(1) *Trukakorra*. Hasieratik, modu zehatz eta aldaezinean zehazten da zein diren alderdien prestazioak. Hau da, kontratua egiten denetik jakiten da zein izango den alderdi bakoitzak eskuratuko duen abantaila.

(2) *Ausazkoa*. Prestazioak (alderdi batenak edo bienak) zehaztu gabe geratzen dira kontratua egitean, zoriaren esku utzi delako. Esaterako, jokoa, apustua edo aseguru.

1.3 Tipikoa eta atipikoa

Legeak kontratuari buruzko erregulaziorik ematen duen edo ez kontuan hartuta, kontratua izan daiteke:

(1) *Tipikoa*. Legeak bereziki arautzen du edo, gutxienik, aipatu egiten du. Beraz, kontratu mota hori badela legeak berak aitortu eta, eskuarki, haren eraentza juridikoa ematen du.

(2) *Atipikoa*. Legean erregulaziorik ez du, baina alderdiek sortu dituzte borondatearen autonomia baliatuz. Kontratu hauen eraentza juridikoa alderdiek ezarritakoa izango da eta, hutsunerik balego, betebeharrei eta kontratuei buruzko erregela orokorrak, ohiturak eta zuzenbidearen printzipio orokorrak aplikatuko zaizkie. Halaber, kontratu atipikoa izan daiteke: (a) hutsa: ez du inolako legezko erregulaziorik; (b) mistoa: kontratu tipikoen elementuak konbinatzen ditu.

Esate baterako, finantza-errentamendua —*leasing*: errentamendua eta erosteko aukera batera— hainbat legetan agertzen da, baina ez du araudi bateraturik. Aldiz, erabat atipikoa da *lease back* kontratua: normalean higiezina saltzea eta, aldi berean, finantza-errentamendua egitea —salerosketa eta finantza-errentamendua batera—.

1.4 Aldebakarrekoa eta aldebikoa

Kontratuetan alderdiak beti bi dira. Hori ahaztu gabe, kontratuak sorrarazten

duen loturaren izaera kontuan hartuta, kontratua izan daiteke:

- (1) *Aldebakarrekoa*: kontratutik sortutako betebeharrak, alderdi batentzat bakarrik baldin badira; esate baterako, dohaintza edo mailegua.
- (2) *Aldebikoa*: kontratutik sortutako betebeharrak alderdi bientzat badira, eta elkarrekikotasunean; esate baterako, salerosketa.

Garrantzi handiko bereizketa da, mota batekoa edo bestekoa izateak ondorio desberdinak ekartzen baititu; besteak beste, Kode Zibilaren 1100., 1124. eta 1466. artikuluetan jasotzen diren arauak ekarritakoak.

2. BORONDATE-AUTONOMIARI MUGAK: ATXIKITZE-KONTRATUA ETA KONTRATATZEKO BALDINTZA OROKORRAK

Gaur egun, praktikan kontratatzeke dauden moduek ez dute bat egiten Kode Zibilak aurreikusten dituen kontratatzeke ereduekin. Bat ez etortze horren arrazoi nagusi dira egun merkatuak hartu dituen ezaugarriak: oro har, ondasun eta zerbitzu ugari eskaintzea jende multzoari, denei modu berean, norik eta botere ekonomiko handia dutenek finantza-merkatuan, aseguru-merkatuan, komunikabideen merkatuan, eta abarretan. Horrek, kontratatzeke garaian berdintasun-printzipioa urratzen du; izan ere, negoziatzeko aukerarik ez da egoten sektore askotan. Aldi berean, arrunt bihurtu da kontratu estandarrak erabiltzea; adibidez, banketxera gordailua egitera joanez gero, sinatu beharreko eta letra txikiz idatzitako dokumentu bat emango digute; gauza bera automobilaren aseguruia kontratatzeraz joanez gero. Kontratuaren edukia eta erregelak ez dira negoziatzen, indar ekonomiko handiagoa duen alderdiak ezartzen baititu.

Azken batean, merkatu askotako kontratazioan, pilaka kontratatzen da eta, ondorioz, atxikitze-kontratuak edota baldintza orokorrak jasotzen dituzten kontratuak egiten dira. Horietan, nabaria da kontratatzaileen arteko desberdintasuna eta desoreka, botere ekonomiko handiagoa duen alderdiak aukera gehiago baitauka alderdi ahulagoaren gaintik nagusitzeko. Beraz, neurritz kanpoko klausulak eta itunak ezartzeko arriskua itzela da.

Atxikitze-kontratuetan, onartu behar duenak ezin du kontratuko eskaintza aldatu, kontratuaren edukia aldeztetik zehaztuta dagoelako. Gauzak horrela, zerbitzua kontratatu nahi badu, nahitaez onartu egin beharko ditu kontratuak jasotzen dituen baldintzak, kontratura atxiki beharko da. Kontratuaren edukia alderdi batek aldeztetik eta berak nahi bezala ezartzen du, eta etorkizunean gauzatuko dituen kontratu guztietan sartuko du; horiei deritze baldintza orokorrak, eta atxikitze-kontratuaren edukia osatzen dute. Gero, kontratatzeke unean automatikoki adostasuna ematen da eta

askotan gertatzen da alderdi ahulenak neurritz kanpoko klausulak onartzea.

Legegileak, arazoa ikusita, horrelako kontratuetan alderdi xumea babesteko arauak ezarri ditu hainbat lege berezitan. Espainiako ordenamendu juridikoan, Konstituzioan agintzen zaie botere publikoei kontsumitzaile eta erabiltzaileen eskubideak babesteko betebeharra: *los poderes públicos garantizarán la defensa de los consumidores y usuarios, protegiendo, mediante procedimientos eficaces, la seguridad, la salud y los legítimos intereses económicos de los mismos* (EKren 51.1 art.). Agindu hori betetzeko, legegileak kontsumoari buruzko legeria sortu du, eta bereziki lege hauek:

(1) Euskal 6/2003 Legea, abenduaren 22koa, Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutuarena.

3. artikulua.– *Kontsumitzailearen eta erabiltzailearen definizioa. 1.– Lege bonen ondorioetarako, kontsumitzaileak eta erabiltzaileak honako hauek dira: edozein nazionalitate edo bizileku duten pertsona fisikoak edo juridikoak, ondasun higigarriak edo higiezinak, produktuak edo zerbitzuak azken hartzaile gisa eskuratzen, erabiltzen edo baliatzen dituztenak, baldin eta hornitzailea enpresa bat edo profesional bat bada, edota Administrazioa bera bada, zerbitzuak egitean edo produktuak hornitzean zuzenbide pribatuko erregimenean arituta. 2.– Ez dira kontsumitzailetzat edo erabiltzailetzat joko produktuak, ondasunak eta zerbitzuak ekoizpen prozesu batean txertatzen dituzten pertsona fisikoak edo juridikoak, nahiz eta prozesu hori egitean zuzeneko mozkinik ez izan.*

(2) *Real Decreto Legislativo 1/2007, de 16 de noviembre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley General para la Defensa de los Consumidores y Usuarios y otras leyes complementarias.*

(3) *Ley 43/2007, de 13 de diciembre, de protección de los consumidores en la contratación de bienes con oferta de restitución del precio.*

(4) *Ley 7/1998, de 13 de abril, sobre condiciones generales de la contratación.*

Baldintza Orokorrei buruzko Legea Europar Batasunak emandako zuzentarau batetik sortu da: Kontseiluaren 93/13 Zuzentaraua, apirilaren 5ekoa, kontsumitzaileekin egindako kontratuen neurritz kanpoko klausulei buruzkoa.

Lege horiekin, bi helburu lortu nahi dira:

(1) Ahulagoa den alderdiaren adostasun askea eta kontzientea izatea, eta erregelak ezartzea bereganatzen dituen betebeharren irismena zein den badakiela ziurtatzeko.

(2) Kontratua interpretatzeko irizpideak ematea eta indartzea, atxikitzeiko kontratua onartu duenaren alde, haren interesak babesteko.

Bi eremu bereizten dira legerian: batetik, baldintza orokorrak erabiliz egiten den kontratazioa; eta, bestetik, profesionalaren eta kontsumitzaile edo erabiltzailearen arteko kontratazioa (babezteko erregela partikularrak ezartzen dira).

(1) *Baldintza orokorrak*

Kontratuen baldintza orokorrak dira partikular batek —eskuarki, enpresariak—, aldez aurretik eta bere kabuz, etorkizunean egingo dituen kontratuen edukia finkatzeko ezartzen dituen erregela multzoa.

Baldintza orokorrak premiazkoak dira, zalantzarik gabe, merkatuko masifikazioari aurre egiteko, baina horrek molde berdineko kontratuak egitea dakar berekin —kontratazio uniforme—. Klausula horiek, batez ere, kontsumoaren eremuan erabiltzen dira. Eskuarki, alderdietako bat enpresaria edo profesionala da, eta bestea, berriz, zerbitzua kontratatu nahi duen partikularra; hala ere, kontsumoko eremutik kanpo ere ager daitezke baldintza orokorrak. Esaterako, profesionalen artean, indar gehiago duen enpresariak baldintzak inposatuko dizkio ahulagoari —gehienetan hornitzaileari—.

Baldintza orokorrak eta kontratuaren edukia estuki lotuta daude, kontratura gehitzen baitira kontratua sortzeko prozesuan. Beraz, baldintza orokorrek zeresan nabarmena dute kontratuko adostasuna baliozkoa den aztertzeke eta kontratuaren eraginak zehazteke. Baldintza horien arabera dago kontratua zuzen sortzea, eta baliozkoa eta eraginkorra izatea.

Baldintza orokorrak klausula gisa agertzen dira kontratuan, eta kontratuaren eduki osoa edo zati bat arautzeko erabiltzen dira. Horrela, kontratuan bereiz daitezke: (a) baldintza orokorrak: berdinak mota bereko kontratu guztientzat; (b) baldintza partikularrak: kontratu bakoitzarentzat bereziki sortzen direnak. Kontratuan, baldintza orokorrekin batera baldintza partikularrak egoteak ez du baztertuko legearen aplikazioa.

Oro har, legea aplikatzen zaie: (a) baldintza orokorrak dituzten kontratu guztiei, beti ere Espainiako legeriaren menpe baldin badaude; (b) profesional baten (*aurre-ezartzailerik*) eta edozein pertsona fisiko edo juridikoren (*atxikimenduemailerik*) artean egindako kontratuei, beti ere baldintza orokorrak baldin badauzka. Aldiz, ez zaie aplikatuko: (a) administrazioaren kontratuei; (b) lan-kontratuei; (c) sozietateak eratzeko kontratuei; (d) familiako harremanak arautzeko kontratuei; eta (e) oinordetzako kontratuei.

Legearen arabera, baldintza orokorrak zera dira: *son condiciones generales de la contratación las cláusulas predispuestas cuya incorporación al contrato sea impuesta por una de las partes, con independencia de la autoría material de las mismas, de su apariencia externa, de su extensión y de cualesquiera otras circunstancias, habiendo sido redactadas con la finalidad de ser incorporadas a una pluralidad de contratos.*

Kontratua baldintza orokorrekin osatu bada, *ustekizun* hauek agertzen dira: (a) aurreko tratua ia desagertu egiten dira, ez baitago eztabaidaririk; (b) onartzea

alde zehaztu gabe, askotan, kontratuaren edukia ezagutu gabe onartzen da; (c) berdintasun-printzipioa hautsi egiten da, egoera desorekatua sortuz; (d) normala izaten da interpretazio-arazoak sortzea, alderdi batek idatzi duela kontratuaren edukia eta beste alderdiak zuelako kontratatua egiteko beharra.

Beraz, baldintza orokorren *ezagutza nagusiak* hauek dira: (a) orokortasuna: klausulek baldintzatuko dute haiek ezartzen dituen alderdiaren etorkizuneko kontratu guztien edukia; (b) kontratua egin baino lehenagotik existitzen dira; (c) idatzita daude, askotan jadanik inprimatuta dauden formularioetan jasota; (d) beste alderdiari ezartzen zaizkio, kontratua egin nahi izanez gero ezin baititu saihestu; (e) kontratuaren edukia osatzen dute; (f) edukia idatzi dituenaren aldekoa izaten da.

Baldintza orokorren zuzentasuna zaintzeko, Kontratazioaren Baldintza Orokorren *Erregistroa* sortu du legeak, bertan inskribatzeko: (a) baldintza orokorrak diren kontratuko klausulak, legeak horrela agintzen badu; (b) epaileek baldintza orokorren zuzentasunari buruz hartutako erabakiak.

Kontratua eratzeari buruzko *eraentza juridiko berezi* horretan, lau eremu nagusi arautzen dira:

(1.1) Baldintza orokorrak kontratura gehitzeko betekizunak

Baldintza orokorrak, kontratuaren edukikoa dela jotzeko, betekizun hauek bete behar ditu:

(a) Formulatzeko betekizunak. Baldintza orokorren idazkerak izan behar du zehatza, argia eta erraza; ezin dira kontratura gehitu irakurtezinak, ilunak edo ulertezinak diren klausulak.

(b) Ezagutarazteko betekizunak. Baldintza orokorrak ezarri dituenak bere esku dagoen guztia egin behar du haiek ezagutzera emateko. Oro har, informatzeko eta beste alderdiaren eskura jartzeko betebeharra du. Bestela, horien gaineko adostasunik ez dela eman ulertuko da, eta kontratuaren edukitik kanpo daudela.

(c) Eskuratzeko aukerari buruzko betekizunak. Baldintza orokorrei buruzko klausulak beste alderdiaren esku jarri behar dira, materialki kontsultatu ahal ditzan, bestela ez baitira kontratuaren edukian sartuko. Dena den, nahikoa da beste alderdiari ezagutzeko aukera ematea.

(d) Onartzeari buruzko betekizunak. Beharrezkoa da kontratura atxikitzen denak kontratua onartzea, eta kontratatzaileak sinatzea.

(1.2) Eraginkortasunik ezaren eraentza

Baldintza orokorrek aurreko betekizun horiek ez baditu betetzen, bi ondorio sortzen dira:

(a) Kontratura ez da gehituko: kontratuaren edukitik kanpo geratuko da. Gainerakoan, kontratuak eragin osoa izango du, beti ere klausula hori gabe bizirik jarrai badezake kontratuak. Beraz, klausula ez-jarritzat joko da eta, askotan, uzten duen hutsunea bete egin beharko da kontratuen interpretazioari buruzko arauak aplikatuz.

(b) Kontratura gehitu da, baina deuseztagarria da. Kasu honetan, kontratuaren edukiaren parte da baldintza baina, kaltegarria izateagatik, haren eraginkortasunik eza erabaki daiteke. Klausula kontratuan txertatzen ez den kasuetan ez bezala, kontratuaren edukia kontrolatzeko modua da deusezetasuna, *a posteriori*. Legeak erabateko deusezetasuna ezartzen du zenbait kasutan: legearen derrigorrezko arauen kontrakoa bada, edo neurritz kanpoko bada.

Deusezetasunari buruzko eraentzak baldintzari bakarrik eragiten dio. Kontratuak baldintzarik gabe bizirik jarrai badezake, kontratuak indarrean jarraituko du. Hala ere, osatu egin beharko da kontratuen interpretazioari buruzko arauekin. Bestela, kontratuak bizirik ezin badu jarraitu, kontratua osorik deuseztatuko da.

Atxikitzen denak ez gehitzeko deklarazioa eta deusezetasun-deklarazioa eskatu ahal izango ditu bere egoitzako epailearen aurrean. Epaia klausularen ez-gehitzea edo deusezetasuna deklaratu du eta, halaber, kontratuak indarrean jarrai dezakeen edo ez argituko du. Klausulen deusezetasunak edo ez-gehitzeak kontratuaren oinarrizko elementuren bati eragiten badiu, deusezetasuna deklaratu beharko da. Bukatzeko, Kontratazioaren Baldintza Orokorren Erregistroan inskribatuko da epaia.

(1.3) Akzio kolektiboa

Kontratura atxikitzen denak bi akzio egikari ditzake. Bestalde, legeak beste hiru akzio kolektibo aurreikusten ditu.

(a) Etetea eskatzeko akzioa (*acción de cesación*). Zera eskatzen da: baldintza orokorra deusez deklaratzeko eta etorkizunean gehiago ez erabiltzera kondenatzea. Halaber, kontratua zein neurritan den baliozkoa zehaztea eskatzen da. Klausula horien ondorioz, demandatzaileari zerbait kobratu bazaio, hori itzultzeko eta kalte-galeren ordaina ere eska dakiok.

(b) Zuzentzea eskatzeko akzioa (*acción de retractación*). Zera eskatzen da: deusezak deklaratu diren baldintzak inposatu edo aholkatu dituenak ez ditzala etorkizunean gehiago erabili ez aholkatu.

(c) Deklarazioa eskatzeko akzioa (*acción declarativa*). Zera eskatzen da: klausula bat kontratazioaren baldintza orokor gisa aitortzea. Halaber, legeak agintzen badu, Erregistroan inskribatua izan dadila eskatuko da.

Akzio horiek eskatzeko legitimazioa izango dute Legearen 16. eta 17. artikuluetan adierazitakoek.

(1.4) Interpretazioari buruzko arau bereziak

Legeak, 6. artikuluan, arau hau ematen da: *1. Cuando exista contradicción entre las condiciones generales y las condiciones particulares específicamente previstas para ese contrato, prevalecerán éstas sobre aquéllas, salvo que las condiciones generales resulten más beneficiosas para el adherente que las condiciones particulares. 2. Las dudas en la interpretación de las condiciones generales oscuras se resolverán a favor del adherente. 3. Sin perjuicio de lo establecido en el presente artículo, y en lo no previsto en el mismo, serán de aplicación las disposiciones del Código Civil sobre la interpretación de los contratos.*

(2) Kontsumitzaile gisa egindako kontratuak

Kontsumitzaileekin egiten diren kontratuetan, indibidualki negoziatzen ez diren klausulak, baldintzak edo itunak kontratuaren edukian sartzeko, zenbait *betekizun* bete behar dituzte:

(a) Argi eta garbi ulertu behar dira. Horretarako, erraztasunez idatzita egon behar dute. Klausulen testua kontratua egin baino lehenago edo egiteko momentuan eman behar zaio kontsumitzaileari. Gainera, ez dira onartzen beste dokumentuetara egindako igorpenak.

(b) Klausulak fede onaren printzipioa eta alderdien betebeharren arteko bidezko oreka errespetatu behar ditu.

Horretan laguntzeko, legearen *xedapen gehigarriak*, oro har, neurritz kanpoko klausulatzat jotzen diren itunak biltzen ditu, zerrenda itxi gabe noski. Hala nola, kontratua existitzea edo ez, profesionalaren esku uzten duena, kontsumitzailearen oinarritzko eskubidea kentzen duena, elkarrekikotasuna apurtzen duena, edo bermerik eza ezartzen duena.

Klausula bat neurritz kanpokoa den ala ez jakiteko, irizpide hauek hartuko dira kontuan:

(a) Kontratuko ondasuna edo zerbitzua berez zer nolakoa den.

(b) Kontratazioaren inguruabarrak.

(c) Gainerako klausulak.

Klausula, *berez, baldintza orokorra* bada, horiei buruzko legeak ezarritako betekizunak bete beharko ditu.

Eraginaren aldetik, klausula batek ez baditu betekizun horiek betetzen eta

neurritz kanpoko klausulatzat jotzen bada, klausula horrek ez du eraginkortasunik izango; neurritz kanpoko klausula erabat deuseza da eta kontratuan ez jarritzat joko da. Kontratua erabat deuseza izango da, neurritz kanpoko klausularik gabe zentzua galtzen badu. Deuseztasuna partziala bada, arau orokorren arabera osatu beharko da hutsunea.

(3) *Kontratu bereziak*

Atxikitze kontratuez gainera, badaude modu berezian eratzen diren beste kontratu batzuk:

(a) Kontratu arautua. Kontratua egin beharko da, legeak ezarritako aginduak jarraituz. Legeak berak zuzentarau batzuk ezartzen ditu kontratu hauentzat, kontratu horiek eduki soziala dutelako. Horrela, legea interes orokorra babesten saiatzen da. Legeak esku hartzen du partikularrari bermeak emateko, bestela, erabateko askatasun-sistemeekin ez baitute bermerik. Esate baterako, aseguru-kontratua edo lan-kontratua.

(b) Arauzko kontratua. Kontratu hori egiten da etorkizunean kontratuak nola egin arautzeko. Horrela, partikularrek berek ezartzen dituzte geroko kontratuen forma eta baldintzak. Esaterako, tarifa-kontratua, produktu berdina saltzen duten dendariak hornitzailearekin egin dezaketena, bezeroentzat produktuen prezioa eta baldintzak finkatzeko.

(c) Nahitaezko kontratuak. Alderdi batek nahitaez egin behar duen kontratua, legeak agintzen diolako. Esaterako, automobilean ibiltzeko, nahitaez aseguru-kontratua egin behar da.

(d) Aurrekontratua da etorkizuneko eta behin betiko kontratua prestatzeko akordioa. Negoziazio-pausoetan, hasierako hartu-emanen eta behin betiko kontratuaren artean kokatzen den figura da aurrekontratua. Horrela, alderdiek, kostubidez edo doan, aurreikusitako kontratu baten berehalako eragina galdatzeko ahalmena ezartzen dute, beraietako norbaiten edo bien alde. Eragin hori emango da alderdi biek edo batek kontratua baliaraztea galdatzen duten unean, alderdien arteko beste akordiorik behar izan gabe. Beraz, aurrekontratuan ezartzen dira geroko kontratuaren oinarriak eta, hark edozein kontratuk baliozkoa izateko bete behar dituen betekizunak bete beharko ditu; halaber, gero eragina izan dezaketen behin betiko kontratuaren elementuak eta haren oinarritzko elementuak ere adierazi behar dira. Aurrekontratuaren elementu nagusia da etorkizuneko kontratua zein epetan egin behar den ezartzea ere; alderdien aurreikuspenik ezean, auzitegiek zehaztuko dute noiz arte baliaraz daitekeen.

(e) Azpikontratua. Kontratu honek berez berdina den aldez aurreko kontratu batean du jatorria eta, aldi berean, aurreko kontratu horren menpe dago.

Azpikontratua sortuko da aldez aurreko kontratuaren alderdi batek hirugarren batekin kontratatzea erabakitzen badu (adibidez, maizterrak azpierrentamendua egitea).

X. IKASGAIA
KONTRATUAREN ERAGINKORTASUNA ETA
ERAGINKORTASUN EZA

AURKIBIDEA. 1. Kontratuaren efektuak: kontratugileentzat eta hirugarrenentzat. 2. Kontratuaren eraginkortasun eza.

1. KONTRATUAREN EFEKTUAK: KONTRATUGILEENTZAT ETA
HIRUGARRENENTZAT

(1) *Kontratugileentzat*

Kontratuak sortzeko legeak eskatzen dituen betekizunak betez egin bada hura, lehen eragin orokor hau sortuko du: indar juridikoa du eta nahitaezkoa da alderdientzat. Ondorioz, kontratutik sortutako betebeharrak ere juridikoak dira alderdientzat, beraz galdagarriak: *Kontratuetatik sortzen diren betebeharreke lege-indarra dute alderdi kontratugileen artean, eta betebeharrok kontratu horien arabera bete behar dira* (KZren 1091. art.). Gainera, behin sortzen den unetik: *bete beharrekoak dira, bai beren beregi hitzartutako betetzeari begira, baita, kontratuaren izaearen arabera, onuste, usadio eta legearekin bat datozen ondorio guztiei begira ere* (KZren 1258.2 art.).

Alderdi bakoitzak, bere burua kontratuaren menpe jartzen duenetik, ezingo du bere kabuz askatu onartu duen lotura juridikoa, bestela ez bailuke indarrrik izango eta ez bailitzateke juridikoa izango: *kontratuen baliozkotasuna eta betetzea ezin dira kontratugile baten nabiera utzi* (KZren 1256. art.). Manamendu horretatik, printzipio hau ondorioztatzen da: kontratua ezin da ez atzera bota —uko egin—, ez aldatu. Hau da, oro har, alderdi batek, bestearekin ados jarri gabe, ezin du desegin zuzen egin eta sortu den kontraturik, ez eta haren eraginik baztertu ere. Beraz, kontratuak ezeztaezinak eta aldaezinak dira. Horretarako, alderdiek ados jarri beharko dute berriz ere, eta kontratua sortzeko bete diren betekizunak bete beharko dituzte; alegia, kontratua adostu duten gisan, desadostu ere egin dezakete elkarren artean. Dena den, arau orokor horrek baditu salbuespenak; izan ere, zenbait kasutan, legeak eman diezaioke alderdietako bati, bestearen adostasunik gabe, kontratuaren eragina geldiarazteko ahalmena: kontratua aldebakarreko borondatez denuntziatzea. Gainera, kontuan izan behar da horrelakorik hitzar dezaketela alderdiek ere.

Kontratuak ez du legearen orokortasunik, ez baitu indarrrik gizarte osoaren gain; alderdien artean bakarrik du lege-indarra eta eragina: *Kontratuek ondoreak sortzen dituzte, eurok egiten dituzten alderdien artean eta euren jaraunnsleen artean, salbu eta, azken horiei dagokienez, kontratutik ateratzen diren eskubide eta betebeharrak*

eskualdaezinak direnean berez, itun bidez edo lege-aginduz (KZren 1257.1 art.). Hortik ondorioztatzen da bigarren printzipio nagusia edo ezaugarria: erlatibotasuna. Ondorioz, kontratuan parte hartzen ez duen oro izaeraz hirugarrena da kontratu horrekiko. Dena den, jaraunsleak kontratuaren alderdi bihurtuko dira, kontratuaren titularra izan eta hil denaren ondarea — eskubideak eta betebeharrak— oinordetza bidez eskuratu badute.

(2) *Hirugarrenentzat*

Kontratua berez erlatiboa denez, alderdi bateko subjektu ez diren gainerakoak hirugarrenak dira eta horien gain ez du indarrrik kontratuak.

Hala eta guztiz ere, onartzen dira hirugarren baten alde egindako kontratuak: *hirugarrenaren aldeko estipulazio edo klausularen bat daukan kontratua, hirugarrenak horren betetzea eska dezake, baldin eta, hizpaketa ezeztatua izan aurretik, betebeharrekoari adierazten badio hori onartzen duela* (KZren 1257. art.). Esate baterako, bizitza-aseguruan beti, edo mailegu-kontratuan hitzartu bada itzuli beharrekoa hirugarren bati ematea edo ordaintzea.

Beraz, kontratuko alderdiez gainera, hirugarren subjektu bat agertzen da: onuraduna, kontratutik sortu eta bere aldeko kreditu-eskubidearen titularra.

Kontratua sortzeko, ez da eskatzen hirugarrenak onartzerik. Hala ere, beharrezkoa da onuradunak bere alde aurreikusi den onura onartzea, aipatze bidez edo isilbidez, inor ezin baita behartu berak nahi ez duen zerbait jasotzera; kontratuaren arabera, onuraduna da kreditu-eskubidearen titularra, baina berak nahi badu, ez bestela.

2. KONTRATUAREN ERAGINKORTASUNIK EZA

Kontratua eraginkortasunik gabea izateak esan nahi du efekturik ez duela sortzen. Eraginkortasun gabezia horren kausak hainbat izan daitezke, eta bakoitzak trataera eta ondorio desberdinak sortuko ditu berez nolakoa izan den kontuan izanda.

(1) *Existentziarik eza eta deuseza izatea*

Batetik, kontratua osatzeko oinarrizko elementurik falta bada, kontratua ez da izatera ere iritsi; beraz, ez da existitu. Gogoan izan kontratua osatzeko oinarrizko elementuak adostasuna, objektua eta kausa direla; eta zenbaitetan forma ere bai. Esaterako, ilargiko lursaila saltzea edo norbait hiltzeko sikario bat kontratatzea.

Bestetik, kontratua berez nahitaezko arauen bat urratuz egin bada, erabat deuseza da: erabateko deuseztasuna: *aginduꝑko eta debekuꝑko arauen aurkako egintꝑak zuzenbide osoꝑ deuseꝑak dira, salbu eta arauotan urratꝑe-kasuetarako bestelako ondorea ezarri denean* (KZren 6.3 art.).

Eraginkortasunik eza eragiten duen kausa horietakoren bat gertatzen bada, kontratua deuseza da berez, eta automatikoki sortuko da eraginkortasun eza. Azken batean, kontraturik ez dela existitu eta, beraz, eraginik ere ez duela sortu ulertuko da.

Zenbaitetan, deuseza den kontratua baliozko bailitzan ager daiteke, itxuraz behintzat. Kasu horretan, beharrezkoa izango da itxura hori ezereztea, deklarazio judizial baten bidez. Deusezteko akzioa egikaritzuz lortu beharko da deklarazio hori. Epaia, azken batean, jadanik baden egoera deklaratzera mugatuko da. Deuseztatze-akzioa jar dezakete bai kontratuko alderdiek, bai horretan interesa duen edonork. Gainera, epaileak kontratua deuseza dela deklaratu ahal izango du ofizioz —bere kabuz—, eraginkortasun ezaren kausarik badagoela ohartzen den edozein kasutan, alderdiek edo interesdun batek eskatu beharrik izan gabe.

Deuseztatze-akzioa baliatzeko eperik ez du ematen legeak eta, beraz, edozein unetan susta daitekeela esan ohi da; alegia, akzioa ez dela ez iraungitzen, ez preskribatzen. Hala eta guztiz ere, gure iritziz auzitegiek adierazten duten jarrera hori ez da zuzena, hain zuzen ere badutelako akzio guztiak preskribatzeko epea (ezer adierazten ez denean hamabost urtekoa, hain zuzen ere). Egia da itxurazko kontratua ez dela alor juridikoan sortu eta, beraz, ez dela existitzen; baina, segurtasun juridikoa bermatzeko, ezin da utzi deuseztatze-akzioa egikaritzeko aukera interesatu baten esku, eperik gabe. Epea kontatzen hasiko da, interesatuak itxurazko kontratu deusezaren berri izaten duenetik aurrera.

Epaileak kontratua deuseza dela deklaratu badu, eragin hau sortuko da: kontratu deusezetik itxuraz sortutako betebeharrak betez egin direnak itzultzeko betebeharra. Kasu horretan, sortutako fruituak eta interesak ere itzuli beharko dira, prestazio nagusia bueltatzearekin batera.

Kontratu deuseza egitate penala gauzatzeko erabili bada, kontratuko objektua konfiskatu egingo da, beti ere dolua balego; errua besterik ez balego, ordea, ez da konfiskatuko (KZren 1305. art.). Esaterako, mozkortuta joan automobilean, norbait harrapatu eta akabatu; delitua da, baina, eskuarki, dolurik gabea.

(2) *Deuseztagarria izatea*

Gerta liteke kontratuak nahitaezko araurik ez urratzea eta eskatzen zaizkion elementu guztiak izatea (adostasuna, objektua, kausa eta, agian, forma). Beraz, kontratua existitzen da, baina elementuetan akatsak topatzen dira: adostasunean edo gaitasunean. Kasu horietan, kontratuak baditu eraginak, baina, aldi berean, akatsa jasan duenak badu ahalmena deuseztea eskatzeko ere; beraz, kontratua deuseztagarria da, alegia, norbaitek —horretarako legitimatuak— eskatzen badu, deuseztatu egingo da. Horrek esan nahi du epaileak, inork eskatu ezean, ezin duela ofizioz deuseztasunik deklaratu.

Horretarako, kontratua aurkaratzeko aukera ematen zaio: deuseztagarritasun-akzioa. Inpugnatzeko epea lau urtekoa da —berez iraungitzekoa— (KZren 1301. art.) eta, epealdi hori akzioa egikaritu gabe igarotzen bada, kontratua sendotu eta behin betiko efektuak sortuko ditu. Akzioa garaiz eta zuzen baliatuz gero, berriz, deuseztasuna sortuko da; alegia, epaileak kontratua deuseza dela deklaratuko du. Gainera, deklarazio horrek, atzerako eragina izango du (atzeraeraginkortasuna).

Hauek dira deuseztagarritasun-kausak (KZren 1301. art.):

(a) Adostasunean akatsa egotea: indarkeria, errakuntza, beldurraraztea edo dolua.

(b) Subjektuak erabateko jarduteko gaitasunik eza izatea. Jarduteko gaitasunik ez duen edo jarduteko gaitasuna mugatuta duen pertsonak egindako kontratua deuseztagarria da (KZren 323. art.). Esaterako, emantzipatuta dagoen adingabeak gurasoen edo tutoreen adostasuna behar du bere etxea saltzeko eta, horren ezean, kontratua deuseztagarria da; edo, irabazkinen sistematan, ezkontide batek bestearen adostasuna behar izan, eta hori gabe besterendu badu ondasuna.

Akatsa gaitasunean badago, akzioa ezgaituaren legezko ordezkariak baliatu ahal izango du; dena den, gerta daiteke ezgaituak berak egikaritzea ere jarduteko gaitasuna eskuratzen edo berreskuratzen duenetik.

Deuseztasuna eskatzeko, akzioaren lau urteko epea kontatzen hasiko da: (a) beldurraraztea edo indarkeria kasuetan, hura atertzen denetik; (b) errakuntza, dolu edo kausa faltsua den kasuetan, kontratua sortzen denetik; (c) adingabeak edo ezgaituak egindako kontratuan, babespetik irten eta gaitasuna eskuratzen edo berreskuratzen denetik (bitartean, haren legezko ordezkariak deuseztatzea eska badezake ere); (d) ezkontideak beharrezkoa duen bestearen adostasunik gabe egindako kontratuan, ezkontideen arteko sozietate ekonomikoa (irabazkinen eraentza) desegiten denetik, beti ere lehenago ez badu horren berri izan.

Epailak kontratua deusa dela deklaratu arte, baliozkoa izango da eta efektuak sortuko ditu. Behin deuseza dela deklaratzeko duenean (KZren 1303. art.), kontratuko objektuak —fruituekin batera— itzultzeko betebeharra sortuko da, kontratua baino lehenago zegoen egoera berrezartzeko, ondoren eman diren efektuak desagerraraziz. Hala ere, deuseztagarritasuna norbaiten ezgaitasunetik eratorri bada, ez du izango horrek jasotakoa bueltatzeko betebeharririk; itzuli beharko duen bakarria jasotakoarekin lortutako onura izango da.

Bukatzeko, deuseztagarria den kontratua baliozkotu edo sendotu daiteke, hau da, akatsa garbi daiteke: *kontratuak baietzta daitezke, 1261. artikuluan aipaturiko betekizunak dituztenean bakarrik* (KZren 1310. art.). Deuseztagarritasuna eskatzeko legitimatua dagoenak egin behar du baliozko; beraz, aldebakarreko borondatearen deklarazioa da, zeinaren bidez uko egiten baitio deuseztatzea eskatzeko akzioari. Baliozkotzearen ondorioz, kontratua baliozko bihurtuko da eta eraginak sendotuko dira.

(3) *Hutsaltzea*

Kontratuaren eraginak kontratuko alderdietako bati edo hirugarren bati lesiorik edo kalte bidegaberik sortzen badio, kontratua hutsaltzeko eska daiteke (deuseztatzea). Kontratua eraginkortasunik gabe uzteko beste modu bat da, horren kausa hau izanik: kontratuak alderdietako bati edo hirugarren bati lesioa edo kaltea sortzea.

Hasteko, kontuan izan behar da, kasu honetan, kontratua osatua eta erabat baliozkoa dela (ez da deuseza), eta gainera akatsik gabea (deuseztagarria ere ez). Hala ere, legeak kontratua desagitea baimentzen du kaltea sortzen duelako, baina betekizun hauek bete behar dira:

(1) Kontratua hutsaltzea onartuko da, beti ere, kalte hori saihesteko legeak beste biderik ez badu ematen. Hutsaltzea, berez, baliabide subsidiarioa da, ezin baita egikaritu *kaltetunak ez duenean legeko beste baliabiderik kaltearen ordaina lortzeko* (KZren 1294. art.).

(2) Legeak aurreikusten duen kasuren bat ematen bada bakarrik onartuko da (KZren 1290. art.). Kausa horiek bi taldetan banatzen dira (KZren 1291. art.):

(a) Kaltea sortzeagatik hutsal daitezkeen kontratuak, baina muga honekin: ordezkatzeko duen pertsonak kaltea jasatea, kontratuaren objektuko balioaren laurdenean baino gehiagoan. Kasu hauetan bakarrik:

(a') Tutoreak baimen judizialik gabe egindako kontratuan.

(b') Absenteen ordezkartzan egindako kontratuan.

(b) Maula egoteagatik hutsal daitezkeen kontratuak:

(a') Kontratua hartzekodunen maulan egin bada, eta horiek ezin badute beste modu batera kobratu zor zaiena.

(b') Kontratuaren objektu auzitan dauden ondasunak izan, eta alderdien edo agintari judizialaren baimenik gabe egin bada.

(c) Azkenik, *Legeak beren beregi agindutako beste guztiak*.

Akzioa egikaritzeko epea lau urtekoa da eta, berez, iraungitzekoa (KZren 1299. art.).

Kontratua hutsaltzen bada, ondorioz, kontratuaren objektua fruituekin itzultzeko betebeharra sortuko da. Beraz, hutsaltzea aurrera eraman ahalko da, beti ere, egikaritzen duenak itzultzea dagokiona itzul badezake. Gainera, hutsaltzea ez da posible izango itzuli behar diren gauzak fede onez jardun duten hirugarrenek baldin badauzkate. Azken kasu horretan, kaltea sorrarazi duenak kalte-galeren ordaina emateko betebeharra izango du (KZren 1295. eta 1298. art.).

(4) *Suntsiaraztea*

Kontratuak efektuak izateari utz diezaioke: alderdiek kontratuaren eraginarentzat jarritako baldintza suntsiarazlea bete bada; edo legeak, ez-betetze kasurako, alderdi bati ahalmena eman badio kontratua suntsiarazteko (KZren 1124. art.).

XI. IKASGAIA

GAUZAREN GAINEKO JABETZA-ESKUBIDEA

ESKUALDATZEKO KONTRATUAK

AURKIBIDEA. 1. Salerosketa-kontratua. 2. Trukea. 3. Dohaintza-kontratua.

1. SALEROSKETA-KONTRATUA

1.1. Kontzeptua. Salerosketa zibila eta merkataritzakoa

Salerosketa-kontratua da trafiko ekonomikoan eta juridikoan sarrien erabili den eta garrantzirik gehien duen kontratua, ondasunen gaineko jabetza-eskubidea diruaren truk eskualdatzeko diseinatutako instrumentu juridikoa baita. Kode Zibilak modurik zabalenean arautzen duen kontratua da eta, horregatik, beste askoren —bereziki, kostuzko kontratuen— eredu ere bada.

Legeak honela definitzen du: *salerosketa-kontratuaren bidez, kontratugile batek bere gain hartzen du gauza zehatza emateko betebeharra, eta besteak, gauza horren truk prezio zehatza ordaintzeko betebeharra, diruz edo dirua ordezkatzzen duen zeinuaren bidez* (KZren 1445. art.).

Honako hauek dira salerosketa-kontratuaren ezaugarriak:

- (1) Adostasunezkoa. Adostasuna nahikoa da kontratua sortzeko; beraz, ez da beharrezkoa gauza edo dirua ematea: *salmenta saltzailearen eta eroslearen artean burutuko da, eta bi-biontzat bete beharrezkoa izango da, baldin eta kontratuaren objektu den gauza eta horren prezioa hitzartu bada, bata eta bestea oraindik eman gabe egon arren* (KZren 1450. art.). Gauzaren gaineko jabetza-eskubidea izateko, beharrezkoa da gauza emateko betebeharra betetzea (KZren 609. eta 1095. art.).
- (2) Betebeharrezkoa. Betebeharrak sorrarazten ditu; gutxienez, gauza ematekoa bata eta prezioa ematekoa bestea. Beraz, emateko betebeharrak besterik ez dira sortzen, eta ez da berehala eskualdatzen gauzaren gaineko jabetza-eskubidea.
- (3) Aldebikoa. Kontratuko bi alderdientzat betebeharrak sorrarazten ditu. Betebehar horiek elkarkariak dira berez: alderdi bakoitzak bere betebeharra bereganatzen du, besteara kontuan harturik.
- (4) Kostuzkoa. Alderdi biek dituzte prestazioak/kontraprestazioak.
- (5) Eskuarki, trukakorra da, alderdien kontraprestazioak zehaztuta baitaude hasieratik; dena den, ausazko gisa ere era daiteke, esate baterako, etorkizuneko uzta prezio orokor batean erosten bada.

1.2 Elementuak

(1) Subjektuak saltzailea eta eroslea dira. Betebehar batean saltzaileak gauza emateko betebeharra du eta, bestean, erosleak prezioa ordaintzekoa. Kontratua egiteko, jarduteko gaitasuna eskatzen da: *salerosketa-kontratua egin dezakete kode honen arabera betebeharrak hartu ahal dituzten pertsona guztiak, hurrengo artikuluetan jasotako aldarazpenei kalterik egin gabe* (KZren 1457. art.).

Legezko debeku bereziak ere ezartzen ditu legeak, baina erosteko debeku zehatzak dira. Horrela, tutoretza kargua duenak ezingo du bere tutoretzapean dagoenaren ondasunik erosi; mandatu-hartzaileak ezingo du erosi administratzen duen ondasunik; betearazleak ezingo du erosi bere kargura duen ondasunik. Eta debeku bera izango dute: enplegatu publikoak eta funtzionarioak, beren kargura daukaten ondasunarekiko; Justizia Administrazioako agintariak eta funtzionarioak, abokatuak eta prokuradoreak gatazkan dauden ondasunekiko (KZren 1459. art.). Debeku horiek urratuz egindako kontratuak deusezak izango dira berez (KZren 6.3 art.).

(2) Objektua. Salmentan eman eta eros daitekeen gauza edozein motatakoa izan daiteke, eskubideak barne direla, kontuan hartuta beti objektuaren betekizunak: posible izatea (KZren 1460. art.), zilegi izatea (KZren 1271. art.), eta zehatza edo zehazgarria izatea.

Objektua bera irizpidetzat hartuz, honako salerosketa berezi hauek ere egin daitezke: etorkizuneko gauzen salerosketa, eta beste norbaitena den gauzaren salerosketa.

Salneurriari buruz, zera dio legeak: gauza horren truk prezio zehatza edo dirua ordezkatzeko duen zeinua ordaintzea (KZren 1445. art.). Beraz, nahitaezko betekizuna da: (a) diru kopurua edo hura ordeztzen duen ikurra izatea (merkataritza-dokumentua, txekua, kanbio-letra, eta abar); (b) ezaguna izatea, hau da, existitzea (simulaziorik edo itxurarik gabe); (c) zehaztuta egotea eta ez uztea kontratatzaile baten erabakiaren menpe (hau da, alde aurretik ezarri behar da) (KZren 1449. art.).

Zenbait kasutan, prezioa agintariak ezartzen dute administrazio-xedapen bidez (legezko prezioa); esate baterako, tabakoaren salneurria.

(3) Forma. Salerosketa-kontratua baliozkoa da, edozein dela ere egiteko forma (KZren 1258. eta 1278. art.). Hala ere, gogoan izan printzipio orokorrak badituela salbuespenak: Kode Zibilaren 1280.1 artikulua arabera, dokumentu publikoa ematera behartu liteke beste alderdia; edo legeak eska dezake forma jakin bat: eskuarki, idatziz egitea (esaterako, ondasun higigarriak epeka saltzea 28/1998 Legearen arabera), edo, beharbada, eskritura publikoa egitea eta Jabetza Erregistroan inskribatzea (esaterako, txandaka aprobetxatzeko higiezina erosten bada, 42/1998 Legearen arabera).

(4) Sortzea. Salerosketa-kontratua adostasunarekin sortzen da. Beste kontu bat da gero betebeharrak betetzea eta, orduan, gauza eta prezioa ematearekin jabetza-eskubidea lortzea.

1.3 Saltzailearen betebeharrak

Saltzaileak bi betebeharrak nagusi ditu: *saltzailearen betebeharra da salmentaren objektu den gauza eman eta horren saneamendua egitea* (KZren 1461. art.).

(1) Gauza ematea da saltzailearen lehen betebeharra: *saldutako gauza eman dela ulertuko da, gauza hori eroslearen esku eta horren edukitzeapean jartzen denean* (KZren 1461. art.).

Lehenik, zer eman behar den zehaztu beharra dago:

(a) Gauza bera eta bere osagarri guztiak: *gauza zehatza emateko betebeharrak bere barruan hartzen du gauzaren erantsi guztiak ematekoa, nahiz eta erantsiok aipaturik egon ez* (KZren 1097. art.). Hain zuzen ere, kontratua sortu zen unean zeuden egoeran eman beharko dira (KZren 1095 eta 1468.1 art.).

(b) Gauzaren fruituak: fruituak erosleari dagozkio kontratua gauzatu zen egunetik aurrera, *nahiz eta oraindik jabea ez izan. Gauza entregatzen denean, jabe bilakatuko da* (KZren 1468. art.).

(c) Gauzaren gaineko titulartasuna bermatzeko eta defendatzeko egon daitezkeen ondasun-tituluak eta antzeko dokumentuak ere eman beharko dira (KZren 1464. art.).

Gauza emateko moduak Kode Zibilak arautzen ditu, 1462., 1463. eta 1464. artikuluetan.

Gainera, gastuei dagokienez, honako hauek ordaindu beharko ditu, besterik hitzartu ezean:

(a) Saldu den gauza ematekoak (KZren 1465. art.).

(b) Eskritura publikoa egiteak sortutakoak (KZren 1455. art.).

(c) Bere kasuan eta saldutakoa higiezin izanik, hipoteka baliogabetzeak sortutakoak eta balio-gehikuntzak (plusbalioak) eragindako zergak.

Halaber, saltzaileak gauzaren edo eskubidearen tituluak eman behar dizkio erosleari. Betebeharrak horiek izango ditu saltzaileak, beti ere, kontrakorik hitzartu ez bada (oso ohikoa baita hori ere).

(2) Bigarrena, saneatzeko betebeharra da: *saltzaileak erosleari begira erantzukizuna izango du: saldutako gauzaren edukitzea legezko eta baketsuaren gainean eta gauza horrek dituen ezkutuko akats edo hutsen gainean* (KZren 1474. art.). Beraz, gauzaren

egoerari dagokionez, bikoitza da saneatzeko betebeharra:

(a) Ebikzioz erantzutea (*evincere*: auzian irabazi), hau da, jabetza-eskubidea galtzea epai baten ondorioz: *ebikzioa gertatuko da, erosleari kentzen zaionean, epai irmoaren bidez eta erosketaren aurreko eskubide baten ondorioz, berak erositako gauza osoa edo horren zati bat* (KZren 1475. art.). Hiru betekizun eskatzen dira: epai bidez gauza osorik edo zati bat kentzea; eskubidea salmenta baino lehenagokoa izatea; eta demanda saltzaileari jakinaraztea. Ebikzio osoz edo partzialez erantzungo du saltzaileak.

Saneatzeko betebeharraren edukia hau da: saldutako gauzak ebikzio-unean zuen prezioa itzultzea; fruitu guztiak ere itzultzea; eta fede gaiztorik egon bada, kalteak eta galerak ere bai (KZren 1478. art.).

Ebikzioz erantzun beharra alderdien artean molda daiteke, alegia, akordioaren arabera handitu, txikitu edo ezabatu (KZren 1475. art.). Hala ere, saltzailea erantzukizun horretaz askatzeko ituna deuseza da, fede gaiztoz jardungo duen kasurako aurreikusten bada (KZren 1476. art.); fede onez izan bada, eragin mugatua izango du (KZren 1477. art.).

(b) Ezkutuko akatsez erantzutea: *saltzaileak betebeharra du saldutako gauzaren ezkutuko akatsak saneatzeko* (KZren 1484. art.), nahiz eta hark akatsen berri ez izan (KZren 1485. art.). Akatsak, betekizun gisa, ezkutukoa izatea eskatzen du, gauzaren akatsa bistan ez egotea, alegia; beraz, bistakoa bada, saltzaileak ez du erantzun beharrik. Hala eta guztiz ere, eroslea aditua bada edo bere lanagatik ikusten ez diren akatsak berehala antzeman beharko balitu, orduan ere ez du erantzun beharrik izango saltzaileak.

(c) Ezkutuko zamez erantzutea: *saldutako finka ageriko ez den zama edo zortasun baten bidez kargaturik badago eskrituran ezar aipatu gabe, eta zama horren izatera dela-eta ulertu behar bada erosleak ez zukeela gauza hori erosiko, karga horren berri izan balu, erosle horrek kontratuaren hutsalketa eska dezake, salbu eta kalte-ordain egokia jasotzea hobesten duenean* (KZren 1483. art.).

Akatsak, berez, izan behar du: gauza hitzartu zen erabilerarako desegoki egiten duena (KZren 1484. art.), edo erabilera hori asko gutxitzen duena, hainbestearino ezen erosleak jakin izan balu ez baitzukeen erosiko edo gutxiago ordainduko baitzukeen.

Ezkutuko akatsik egonez gero, erosleak aukera hauek ditu (KZren 1486. art.):

(a) kontratua uztea, bakoitzak gauza eta prezioa itzuliz (*acción redhibitoria*); (b) salneurria jaisteko eskatzea akatsaren proportzioan (*acción estimatoria o quanti minoris*). Gainera, saltzaileak akatsak ezagutzen bazituen eta ez bazizkion erosleari adierazi —beraz, fede gaiztoz jokatu badu—, kalte-galeren ordaina eskatzeko akzioa izango du. Akzio horiek eskatzeko epea sei hilabetekoa da,

gauza eman zitzaionetik kontaktzen hasita (KZren 1490. art.).

Araudi horretaz gainera, eroslea kontsumitzailea bada, bi urteko bermea izango du hark legez (23/2003 Legea).

1.4 Eroslearen betebeharrak

Erosleak salneurria ordaintzea izango du betebeharr nagusia: *erosleak betebeharra izango du, prezioa ordaintzeko* (KZren 1500. art.). Betebeharr horretaz gainera, zera egin beharko du: saldu den gauzaren garraioak sortutako gastuak ordaindu; eskrituraren lehenengo kopiaren gastuak ordaindu, eta Jabetza Erregistroan inskribatzeko gastuak ordaindu, beti ere kontraktorik hitzartu ez bada behintzat.

1.5 Kontratuaren dinamika

(1) *Arriskuak salerosketan*

Kontratua egin eta gero, saldutakoa emateko betebeharra dago; baina, eman bitartean, gerta liteke gauza galtzea edo hark narriadurak jasatea. Kasu horretan, erabaki beharko da nork hartzen duen bere gain galera edo narriadura horren arriskua.

Hasteko, kontuan izan behar da salmentatik sortutako betebeharr nagusiak elkarkariak direla eta, betebeharrei buruzko eraentza orokorraren arabera, norbaitek bere betebeharra ez badu betetzen, besteak bere betebeharra suntsiaraztea eska dezakeela; hartara, ez du izango bere betebeharra bete beharrik (KZren 1124. art.).

Baina, salerosketa-kontratuan arau bereziak ezartzen dira (KZren 1452. art.). Hain zuzen ere, erosleak jasaten ditu kontratua emateko betebeharraren arriskuak. Ondorioz, salerosketa sortu eta gero, eroslearen kontu da arretaz jardun duen saltzailearen eskuetan dagoen gauzaren berehalako galera; horrek esan nahi du, gauza jaso ez arren, erosleak prezioa ordaindu beharko duela, salneurria emateko betebeharrak bizirik jarraitzen baitu. Noski, legeak agindu hori ezartzen du saltzailearen errurik gabe galera gertatzen den kasuetarako.

(2) *Salerosketa bereziak*

(a) Eskubidea saltzea (eskubidea lagatzea); esaterako, jabetza industrial edo intelektuala ustiatzeko eskubideak.

(b) Enkante publikoz egindako salmenta: objektuen salmenta publikoa, preziorik altuena ordaintzen duenari.

(c) Frogatzeko edo entseatzeko salmenta (*ad gustum*): baldintza esekitzailerean saltzen da, hau da, erosleak gauzak balio diola edo ezaugarri jakin batzuk badituela frogatzea da baldintza (KZren 1453. art.). Egiaztatzeak, noski, berez objektiboa izan behar du, eta ez eroslearen eskura utzia bakarrik (KZren 1115. art.); beraz, esaterako makineriaren kasuan, adituek parte hartzea eska liteke.

(d) Merkataritza Xehekaria Antolatzeari buruzko 7/1996 Legeak, batetik, salmentak sustatzeko jarduerak arautzen ditu (*en rebajas, de promoción, de saldos, en liquidación, con obsequios, la oferta de venta directa*) eta, bestetik, salmenta berezi hauek aipatzen eta arautzen ditu:

1. Se consideran ventas especiales, a efectos de la presente Ley, las ventas a distancia, las ventas ambulantes o no sedentarias, las ventas automáticas y las ventas en pública subasta. 2. Las ventas de bienes muebles a plazos se regirán por su normativa específica.

(e) Ondasun higigarriak epeka saltzea: 28/1998 Legeak eraientza berezia ezartzen du honako kasu hauetan:

1. La presente Ley tiene por objeto la regulación de los contratos de venta a plazos de bienes muebles corporales no consumibles e identificables, de los contratos de préstamo destinados a facilitar su adquisición y de las garantías que se constituyan para asegurar el cumplimiento de las obligaciones nacidas de los mismos. 2. A los efectos de esta Ley, se considerarán bienes identificables todos aquellos en los que conste la marca y número de serie o fabricación de forma indeleble o inseparable en una o varias de sus partes fundamentales, o que tengan alguna característica distintiva que excluya razonablemente su confusión con otros bienes.

(f) Nahitaezko desjabetzea: interes orokorrak direla eta, agintari publikoak partikularrari gauzaren gaineko jabetza-eskubidea kentzen dio, bidezko prezioa ordainduz (Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legea, 1954ko abenduaren 16koa).

(3) *Salerosketako itunak*

Asko dira kontratatzaileek salerosketa-kontratura gehi ditzaketan klausulak, eta salerosketaren efektuak aldatzea dute xedetzat, baldintzak gehitzea, bermeak ezartzea, eta abar.

(a) Atzera erosteko ituna (*pacto de retroventa*): saltzaileak, saldu den gauza berriro eskuratzeko eskubidea erreserbatzen du (KZren 1507. art.).

(b) Itun komisorioa: epe bat ezarri eta epe hori agortzean salneurria ez bada ordaintzen, kontratua suntsitu egiten da; ondorioz, gauza itzuli egin beharko du erosleak.

(c) Jabetza erreserbatzeko ituna (*pacto de reserva de dominio*): saltzaileak jabe izaten jarraitzen du (ez du jabetza eskualdatzen) erosleak atzeratu den prezioa osorik ordaindu arte.

(d) Erosle onenaren aldeko ituna (*pacto al mejor comprador; additio in diem*): epe bat ezarri eta hura iragan bitartean, saltzaileak baldintza hobeak eskaintzen dizkion

besteren bat aurkitzen badu, salerosketa suntsitzeko ahalmena izango du.

(4) *Salerosketa bikoitza*

Salerosketa bikoitza kasu honetan gertatzen da: jabeak gauza bera bi pertsona desberdinei saltzen die aldi berean (KZren 1473. art.). Orduan, erabaki behar da zein eroslek eskuratuko duen gauzaren gaineko jabetza-eskubidea.

(a) Ondasuna higigarria bada, gauzaren edukitza fede onez jaso duena bihurtuko da jabe. Fede ona dagoela susmatu egiten da eta, beraz, kontrako frogatu egin beharko da (KZren 434. art.); higigarriaren edukitza izatea jabetza-titulutzat hartzen da (KZren 464. art.).

(b) Ondasuna berez higiezina bada, hurrenkera honetan: Jabetza Erregistroan lehenik inskribatzen duena (Hipoteka Legeko 34. art.); inskripziorik ez badago, gauzaren edukitza lehenik eskuratu duena; bi horien ezean, titulurik zaharrena duena.

Kasu guztietan, noski, kontuan izango da fede onez edo gaiztoz jardun diren salerosketan anitzetan parte hartu dutenak, fede gaiztoz jokatu duena ezin baita inoiz babestu.

2. TRUKEA

(1) *Kontzeptua*

Oinarrian, salerosketa truke mota bat da. Bietan, bi alderdik gauzak aldatzen edo trukutzen dituzte. Salerosketan, alderdi batek beti dirua emateko betebeharra du, eta beste alderdiak beste zerbait. Gainerako kasu guztietan trukea gertatuko da.

Legeak honela definitzen du: *trukea kontratua da, eta, horren bidez, kontratugileetako batek bere gain hartzen du gauza bat emateko betebeharra, beste bat jasotzeko* (KZren 1538. art.).

Salerosketarekin duen antzagatik, arauketa urria ematen da hari buruz:

(a) Batetik, suntsitzeari buruzko araua: *kontratugileetako batek jasotzen badu trukean berari hitzeman zaien gauza, eta egiaztatzen badu gauza hori ez dela nork eman eta pertsona horrena, ezin da kontratugilea behartu berak trukean eskaini zuzena ematera; eta nahiko izango du berak jaso zuzena itzultzearekin* (KZren 1539. art.).

(b) Bestetik, ebikzioari buruzkoa: *norbaitek ebikzioaren ondorioz galtzen badu trukean jasotako gauza, aukeran du berak trukean eman zuzena berreskuratu edo kalte-galeren ordaina erreklamatzea; baina berak eman zuzen gauza berreskuratzeko eskubidea erabili ahal izango du, gauza hori oraindik beste trukagilearen eskuetan badago bakarrik,*

betiere bien bitartean gauza horren gain hirugarrenak onustez eskuratzen dituen eskubideei kalterik egin gabe (KZren 1540. art.).

(c) Gainerakoan, salerosketari buruzko arauak aplikatuko dira: *titulu honetan beren arautzen ez diren gaietan, trukea arautuko dute salmentari buruzko xedapenek (KZren 1541. art.).*

Gerta liteke nahastuta ere agertzea: *salmenta-prezioaren zati bat dirua bada eta gainerakoa beste gauza bat, kontratua kalifikatuko da kontratugileen ageriko asmoaren arabera. Asmo hori agerrarazten ez bada, kontratua truketzat hartuko da, baldin eta prezio-zatiaren truk emandako gauzaren balioak gainditzen badu diruaren balioa edo horren baliokidearena; bestela, kontratua salmentatzat hartuko da (KZren 1446. art.).*

(2) *Ezargarriak*

Izaeraz da adostasunezkoa, aldebikoa, kostubidezkoa eta betebeharezkoa edo jabetza eskualdatzen duena.

Aunque la permuta tiene la característica de ser un contrato oneroso por efecto de la reciprocidad ya que, mediante la compensación de las ventajas y los inconvenientes, se da una equivalencia entre las entregas, sin embargo no requiere identidad de valor entre dichas prestaciones (AGE 1997/2/28).

(3) *Edukia*

Alderdien betebeharrei dagokionez, alderdi bientzat berdinak dira, biak behartzen baitira besteari gauza bat ematera. Gainerakoan, salerosketarentzat ezarritakoa aplikatuko da, beti ere, bateragarria bada.

3. DOHAINTZA-KONTRATUA

3.1 Kontzeptua eta izaera

Dohaintzan, norbaitek bere borondatez zerbait eskualdatzen dio beste norbaiti, horregatik ezer jaso gabe kontraprestazio moduan.

Legeak modu honetan definitzen du dohaintza: *dohaintza esku zabaltasun-egintza da, eta, horren bitartez, norbaitek beste inoren mesederako gauza dohainik xedatzen du, eta azken horrek onartu (KZren 618. art.).* Enpresaritzaren eremuan, ohikoak dira enpresek fundazioei egindako dohaintzak, hartara kenkari gisa erabili baitezakete emandakoa, fundazioei buruzko eraentzaren arabera.

Berez kontratua da, baina aldebakarrekoa; hau da, betebehar nagusi bat sorrarazten du alderdi bakar batentzat. Kontratu guztiek bezala, bi alderdien borondatea behar du baliozkoa izateko —eskaintza eta onartzea—. Beraz, bi subjektu daude: dohaintza-emailea, doako liberaltasun-egintza egiten duena; eta dohaintza-hartzailea, dohaintza jasotzea onartzen duena.

Beraz, funtsezko elementuak dira: (a) dohaintza-emailea pobretzea; (b) dohaintza-hartzailea aberastea; eta (c) liberaltasuneko intentziaz egitea (*animus donandi*). Horregatik, doakoak izan arren eta kontraprestaziorik gabe ondareko abantaila eman arren, maileguk edo fidantzek ez dute ondarean galerarik sortzen, eta ez dira dohaintzak.

Norbaiten ondarea gutxitzeak ekar diezaioke kaltea dohaintza-emaileari berari, eta haren senipartedunei eta hartzekodunei. Beraz, mugak jartzen dira ondasunak dohaintzan emateko:

(1) *Dohaintzaren barruan ezin dira etorkizuneko ondasunak sartu. Etorkizuneko ondasuntzat hartzen dira dohaintza-unean dohaintza-emaileak xedatu ezin dituenak* (KZren 635. art.).

(2) *Dohaintzaren barruan sar daitezke dohaintza-emailearen oraingo ondasun guztiak edo horietatik batzuk; dohaintza-emaileak berarentzat erreserbatu behar du beti, jabetza osoz nahi gozamenetz, bere inguruabarren arabera bizitzeko behar duen bestekoa* (KZren 634. art.).

(3) *634. artikuluan xedatutakoa gorabehera, dohaintzaren bidez ezin du inork jaso edo eman jarauntsiaren bidez eman edo jaso dezakeena baino gehiago* (KZren 636. art.). *Dohaintza-emailearen ondasunek haren heriotza-unean duten balio likidua zenbatu eta gero, dohaintzak ez-ofiziosak badira 636. artikuluan xedatutakoaren arabera, gaindikinaren neurrian urritu behar dira; urripena gorabehera, dohaintzak ondoreak sortuko dituzte dohaintza-emailea bizirik dagoela, eta dohaintza-hartzaileak fruituak bereganatuko ditu. Dohaintzak urritzeko, kapitulu honetan, eta kode honen 820. eta 821. artikuluetan xedatutakoa bete behar da* (KZren 654. art.).

(4) Ondasunak doako tituluz ematen direnez, horrekin hartzekodunen eskubideei maula egiten bazaie —egiteko unean hartzekodun direnei—, horiek kontratua hutsaltzea eska dezakete (KZren 1291.3 art.).

3.2 Dohaintza motak

(1) Bizidunen artean edo hiltzearen ondorioz gertatzen diren dohaintzak (*inter vivos* eta *mortis causa*). Kontuan hartzen da zeinen artean sorraraziko dituen efektuak, hau da, bizirik dauden pertsonen artean edo horietako bat hiltzen denean. Lehenengoa da benetako dohaintza; bigarrena, aldiz, oinordetzaren eremuan sartzen da: *dohaintzek dohaintza-emailea hildakoan sortu behar badituzte ondoreak, azken nahiaren xedapenen izaera dute, eta testamentuzko oinordetzari buruz ezarritako erregelak aplikatzen zaizkie* (KZren 620. art.).

(2) Dohaintza modala eta saritzeko dohaintza:

(a) Dohaintza modalean, dohaintza-hartzaileari bete beharreko ardurara bat ezartzen zaio (prestazio bat betetzea). Dohaintza horri muga bereziak ezartzen zaizkio, eta dohaintza-hartzaileak onartu ahal izateko hainbat betebeharrak galdatzen (KZren 625. art.). Halaber, erregela bereziak ezartzen dira ardurara betetzen ez den kasurako.

(b) Saritzeko egiten den dohaintza (*remuneratorio*): norbaiti bere merituengatik (saria ematea, besterik gabe) edo dohaintza-emaileari egindako zerbitzuagatik (beti ere ez badira zor galdagarriak) egiten zaion dohaintza da.

(3) Edukiaren ikuspegitik, izan daiteke:

(a) Dohaintza errealak: gauzaren gaineko eskubide errealak norbaiti ematea (jabetza, usufruktua, eta abar).

(b) Betebeharrezko dohaintza: kreditu-eskubidea norbaiten alde eratzea edo sorraraztea.

(c) Dohaintza liberatzailea: jadanik norbaiten aurka baden betebeharrak iraungiaraztea.

3.3 Elementuak

(1) Dohaintzan parte hartzen duten subjektuak dira:

(a) Dohaintza-emailea: ondasun baten gaineko jabetza-eskubidea eskualdatzen du eta, beraz, bere ondarea gutxitzen.

(b) Dohaintza-hartzailea: dohaintzan emandako gauza onartzen du eta bere ondarea aberasten, horren truk ezer eman gabe.

Gaitasunari buruz:

(a) Dohaintza-emailea. *Dohaintzak egin ditzakete kontratuak egin eta norberaren ondasunak xedatu ahal dituztenek* (KZren 624. art.). Ordezkarien bitartez ere egin daiteke.

(b) Dohaintza-hartzailea. Onartzeko nahikoa izango du gaitasun juridikoa; dohaintza onar dezake horretarako ezgaitua ez dagoen orok (KZren 625. art.). Onartzeko eskatzen den bakarra zera da: jakiteko, ulertzeko eta nahi izateko gaitasuna; horrelakorik ez balu, bere ordezkariak onartuko du haren ordezkariak (KZren 626. art.). Jaiotzeko dagoena ere izan daiteke dohaintza-hartzailea.

(2) Errealak. Gauzak nahiz eskubideak eman daitezke dohaintzan. Eskubideak kredituzkoak edo errealak izan daitezke: *dohaintzaren barruan sar daitezke dohaintza-emailearen oraingo ondasun guztiak* (KZren 634. art.).

Hala ere, muga hauek errespetatu egin behar dira: etorkizuneko ondasunak

ezin dira eman; eta dohaintza-emaileak dohaintza egiteko unean xeda ez ditzakeen ondasunak ere ez. Horri dagokionez, *dohaintzaren bidez ezin du inork jaso edo eman jarauntsiaren bidez eman edo jaso dezakeena baino gehiago. Dohaintza ez-ofiziosoa izango da neurri horretatik gorakoa den heinean* (KZren 636. art.). Horrekin, nahitaezko oinordetza babesten da; seniparteak, alegia.

(3) Formalak: kontratu formalak edo serioak da dohaintza.

(a) Dohaintzan ematen den ondasuna higigarria bada eta ahoz egiten bada, nahitaezkoa da berehala ematea (KZren 632. art.). Ez bada ematen, beharrezkoa da idatziz egitea, onartzea jasoz (KZren 632. art.).

(b) Ondasun higiezinentzat, eskritura publikoa egiteko eskatzen da (KZren 633. art.).

Dohaintza-kontratua sortzen da dohaintza-emaileak dohaintza-hartzailearen onartzearen berri jakiten duenean.

3.4 Efektuak

(1) Dohaintza-emailearen betebeharra: agindutakoaren jabetza-eskubidea eskualdatzea.

(2) Dohaintza-hartzailearen betebeharra: betebehar nagusirik ez dauka, kontratua aldebakarrekoa eta doakoa baita. Dohaintza modala bada —zama edo karga—, bete egin beharko du hartzaileak. Ez badu betetzen, dohaintza ezeztatzeke kausa izango litzateke.

3.5 Dohaintza ezeztatzea

Berez, dohaintza ezeztatzina da; hau da, egin eta gero, ezin da efekturik gabe utzi dohaintza-emailearen borondatez, ezin baita damutu. Hala ere, legeak jasotzen dituen kausak betetzen badira, ezeztatu ahal izango da (KZren 644. art. eta hurrengoak.):

(a) Dohaintza-emaileak umea izatea, nahiz eta hil ostekoa izan. Edo dohaintza egin zenean hiltzat jotzen zen umea bizirik azaltzea. Dohaintza ezeztatzeke akzioak bost urte iraungo du (KZren 646. art.), eta ume berria izan zuenetik edo hiltzat jotzen zena bizi zela jakin zenetik kontatuko da.

(b) Baldintzak ez betetzeagatik: *dohaintza-hartzaileak ez duenean bete hark berari ezarri dizkion baldintzetatik bat* (KZren 647. art.).

(c) Esker txarragatik: dohaintza-hartzaileak deliturik egiten badu dohaintza-emailearen, haren ohorearen edo haren ondasunen kontra. Halaber, mantenua ukatzen badio ere ezeztatu ahalko du dohaintza (KZren 648.1, 648.2 eta 648.3 art.).

Dohaintza zuzen ezeztatu bada, dohaintza-emaileari dohaintzan emandako gauzak itzuli beharko zaizkio edo, bestela, eman zirenean zuten balioa; edonola ere, hirugarrenek fede onez eskuratu badituzte ondasunak edo gauzaren gain eskubiderik badute, babestuta geratuko dira (KZren 645., 649. eta 650. art.).

XII. IKASGAIA

GAUZAREN GAINEKO EDUKITZA ESKUALDATZEKO KONTRATUAK

AURKIBIDEA. 1. Errentamendu-kontratua. 2. Mailegu-kontratua.

1. ERRENTAMENDU-KONTRATUA

1.1 Kontzeptua eta ezaugarriak

Kode Zibilak, errentamendu-kontratu esapide orokorrean, hiru kontratu desberdin hartzen ditu: gauzen errentamendua, obra-errentamendua eta zerbitzu-errentamendua (KZren 1542. art. eta hurrengoak). Aukera horiek direla eta, errentamendu-kontratuaren definizio orokor hau eman daiteke: errentamendu-kontratuaren arabera, alderdi batek, prezioa jasotzearen truk, betebeharrak hartzen du bestearen alde denboraldi batean: gauzaren gozamina ematea (gauza-errentamendua), zerbitzua eskaintzea (zerbitzu-errentamendua) edo obra jakin bat aurrera eramatea bere kontu (obra-errentamendua).

1.2 Motak

(1) Kode Zibilak gauzen errentamenduei buruz jasotzen duen araudia ez da bakarra. Ondasun higiezinaren errentamendua, partikularren praktikan ohikoena dena, lege berezi bidez arautzen da: Hiri-errentamenduei buruzko Legea eta Landa-errentamenduei buruzko Legea (aurrerago azalduko dira).

(2) Zerbitzu-errentamenduari dagokionez, berriz, Kode Zibilak aipatzen ditu morroien eta soldatapean lan egiten dutenen zerbitzuak (KZren 1583.-1587. art.); baina araudi hori materialki derogatuta dago, egun soldatapeko langileek eskaintzen dituzten zerbitzuen eraentza Lan Zuzenbidean topatzen baita. Hain zuzen ere, Langileen Estatutua (*Real Decreto Legislativo 1/1995, de 24 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley del Estatuto de los Trabajadores*) eta bere xedapen gehigarriak. Aldiz, profesio liberalen zerbitzuak (medikuak, abokatuak, ekonomistak, eta abar), oraingoz, zerbitzu-errentamenduei buruzko arauen menpe geratuko dira.

(3) Obra-errentamenduaren kontratua errentamendu-kontratuaren eskematik kanpo gelditzen da. Hala ere, ikasgai honetan, hiru mota hauek ikusiko ditugu.

1.3 Gauzen errentamendua

(1) *Kontzeptua*

Legeak ematen du kontzeptua: *gauzen errentamenduan, alderdietako batek bere gain hartzen du besteari gauzaren gozatzzea edo erabilera emateko betebeharra, epe zehatzarako eta prezio jakinaren truke* (KZren 1543. art.).

(2) *Ezugarriak*

- (a) Adostasunezkoa: sortzeko nahikoa da alderdien adostasun hutsa; ez da beharrezkoa gauzarik ematea.
- (b) Kostuzkoa: erabileraren truke, prezio ezaguna ordaindu behar da.
- (c) Aldebikoa: alderdi bientzat erutzen dira betebeharrak, berez elkarkariak.
- (d) Denboraz mugatua: iraupena aldi baterako da (KZren 1543. art.).
- (e) Trukakorra: alderdi bakoitzaren betebeharra bestearen kontraprestazioa da.

(3) *Elementuak*

(a) Pertsonalak:

(a') *Errentatzailea*. Gauza emateko betebeharra hartzen du, baina ez jabetza-eskubidea eskualdatzekoa, gauzaren erabilera eta gozamena baizik; beraz, gozatzeko eskubidea duenak ahalmen hori laga diezaioke beste norbaiti. Betebehar horretaz gainera, betebeharra du errentamenduan eman den gauzaren gozamen baketsua ahalbideratzeko.

(b') *Maiztterra*. Horrek, berriz, hitzartutako prezioa ordaintzeko betebeharra hartzen du.

Gaitasunari dagokionez, errentan zerbait ematea administrazioko egintza denez, kontratatzeko galdatzen den jarduteko gaitasun orokorra behar da errentamendu-kontratua egiteko. Horregatik, mugak ezartzen dira administratzen diren besteren ondasunak errentan emateko: *guraso edo tutoreek, adingabe edo ezgaituen ondasunei dagokienez, eta ondasunen administratzaileek ere, ahalorde berezirik ez badute, ezin izango dituzte gauzak errentan eman, sei urtetik gorako epe-mugarako* (KZren 1548. eta 323. art.).

(b) Errealak:

(a') *Gauza*. Errentamenduaren objektu izan daiteke edozein gauza (gorpuzduna edo gorpuzgabea, edo eskubideak). Higiezinak trataera berezia jasotzen dute (hiri-finkak eta landa-finkak); eraentza orokorra higigarriei aplikatzen zaie, beti ere gauza kontsumiezina bada: *erabileraren erabilera ez kontsumitzen diren ondasun suntsikorrak ezin dira kontratu honen gai izan* (KZren 1545. art.).

(b') *Prezioa*. Oinarrizko bigarren elementu erreala prezioa da: zehaztua edo, gutxienez, zehazgarria (KZren 1543. art.). Gainera, prezioa aldizka ordaindu behar da (egunak, hilabeteak, urteak, hitzartu denaren arabera) eta behin batean (KZren 1581. art.).

(c) *Formala*: baliozkoa izango da edozein modutan sortu dela ere. Dena den, badira salbuespenak lege berezietan, eta baita Kode Zibilean ere: *agiri publikoan agerrarazi behar dira: ondasun higiezinaren gaineko errentamenduak, horiek sei urtekoak edo hortik gorakoak badira eta hirugarrenari kalte egin behar badiote* (KZren 1280.2 art.); *ondasun higiezinaren errentamenduek ez dute ondorerik izango, ez badaude behar bezala inskribatuta Jabetza Erregistroan* (KZren 1549. art.).

(4) *Edukia*

(a) Honako hauek dira errentatzailearen betebeharrak:

(a') Maizterrari gauza ematea.

(b') Beharrezko konponketak egitea, gauza egokia izan dadin hitzartzen den erabilerarako (KZren 1558. art.).

(c') Maizterrari errentamenduaren gozamen baketsua bermatzea (KZren 1553. art.) eta gozamen hori eraso dezaketen egintzak ez gauzatzea (KZren 1544. art.).

(d') Ezin du aldatu errentamenduan eman den gauzaren forma (KZren 1557. art.).

(b) Honako hauek dira maizterraren betebeharrak:

(a') Errentamenduaren prezioa ordaintzea, hitzartu den terminoetan.

(b') Gauza erabiltzea familia on bateko gurasoaren arretarekin. Hitzartu den erabilera emango zaio (esaterako, ez utzi erabili gabe: lurra lugorri, industria ustiatu gabe), eta ez da aldatuko gauzaren xedea.

(c') Kontratua eskrituran jasotzeak sor ditzakeen gastuak ordaintzea.

(d') Jabeari berehala jakinaraztea gauzaren edozein usurpazio, edota horrek izan dezakeen edozein kalte. Halaber, gauzak behar duen edozein konponketaren berri ematea.

(e') Nahitaezkoak edo larriak diren konponketak jasatea, nahiz eta konponketak traba egin.

(f') Errentamendua amaitzen denean, gauza jaso zuen egoera berean itzultzea. Betebehar hori zuzen beteko dela bermatzeko eskatzen da; eskuarki, fidantza moduan bahituran ematen da diru kopuru bat.

Betebeharrak betetzen ez badira, beste alderdiak kontratua desegitea eskatu ahal izango du, eta kalte-galeren ordaina ere bai. Hala ere, aukeratzeko ahalmena du: kalte-galeren ordaina eskatu edo kontratuarekin jarraitu.

Maizterrak erantzun egin beharko du bere erruz gauzak narriadurarik jasan badu edo galdu egin bada (KZren 1563. art.). Bestalde, errentatzaileak gauzak dituen akatsei erantzuten die, saneatzeko betebeharra baitu.

(5) *Iraungitzea*

Kontratu oro iraungitzeko dauden kausa orokorrez gainera, errentamendua iraungitzeko kausarik normalena zera da: *errentamendua epe zehatz baterako egiten bada, aurretiaz finkatutako egunean amaituko da, agindeiaren beharrik gabe* (KZren 1565. art.).

Dena den, denbora iragaiteak bakarrik ez du berez harreman juridikoa suntsitzen, posible baita isilbidez luzatzea (*tácita reconducción*): kontratua amaitzen denean, maizterrak, errentatzailearen onarpenarekin, ondorengo hamabost egunetan gauzaz gozatzen jarraitzen badu, beste errentamendu-kontratu bat sortuko da (KZren 1566. art.).

Kontratua amaitu eta gero, maizterrak ez badu betetzen gauza itzultzeko betebeharra, hura *kaleratzea (desahucio)* eska dezake errentatzaileak. Horretarako legea bitartekoa edo akzioa da, maizterra zena behartu ahal izateko ondasuna uztera edo itzultzera. Hala eta guztiz ere, bitarteko hori erabili ahal izango da betekizun hauek betetzen badira (KZren 1569. art.): (a) kontratua iraungita egotea, errentamenduaren epea jadanik agortu delako; (b) hitzartutako errenta ez ordaintzea; (c) kontratuak ezarri dituen baldintzak ez betetzea; (d) errentamenduan eman zaion gauza hitzartu ez diren erabileretarako edo zerbitzuetarako erabiltzea.

(6) *Azpierrentamendua*

Maizterrak gauzaz gozatzeko ahalmena du; horregatik, ahalmen hori hirugarren bati laga diezaioke errenta baten truk; horri deritzo azpierrementamendua. Horrela, bigarren kontratu horretan —azpierrementamendua—, maizterra errentatzaile bihurtzen da eta hirugarrena maizter. Noski, hasierako errentamendu-kontratu nagusiak bizirik jarraitzen du, eta kontratu horretako maizterrak bere betebeharrak betetzen jarraitu beharko du.

Azpierrementamendua bidezkoa izateko, beharrezkoa da hasierako kontratuko errentatzaileak aipatze bidez eta idatziz emandako baimena izatea (KZren 1550. art.).

1.4 Hiri-errentamendua

Kode Zibilak hiru artikulua eskaintzen dizkio hiri-finken errentamenduari: Kode Zibilaren 1580., 1581. eta 1582. artikulua. Artikulu horietan xedapen bereziak ezartzen ditu balizko konponketak arautzeko eta kontratuaren iraupena zehazteko. Beraz, araudi urria aurreikusi zen bere garaian eta, gerora, lege bereziak emanez osatu izan da.

Gerra Zibilaren ondoren sortu zen etxebizitza-premiak errenten igoera ekarri zuen eta, horregatik, agintariak jendea ez kaleratzeko neurriak hartu zituzten: errentak izoztu, iraupena luzatu eta xedapen bereziak ezarri zituzten errentamenduak arautzeko, maizterraren alde. Araudia lege honetan bildu zen: *Abenduaren 24ko 4104/1964 Dekretua, zehinari jarraiki onartzen baita Hiri Errentamenduari buruzko Testu Bateratua*. Lege hori oraindik ere indarrean dago, bere babespean egindako kontratuek bizirik irauten duten heinean.

Geroago, Konstituzioak etxebizitza izateko eskubidea aitortu ostean eta hiri-errentamenduak bultzatzeko asmoz, *Boyer Dekretu* gisa ezagutzen den araua eman zen: *Apirilaren 30eko 2/1985 Errege Legegintza-dekretua, ekonomia-politikazko neurriei buruzkoa*. Dekretu horrek nahitaezko luzatzea ezabatzea eta legezko errentak berrikustea onartu zuen; araudi hori ere indarrean dago oraindik, eta bere babespean egindako kontratuek iraun egiten dute.

Egun, berriz, lege hau dago indarrean eta honen babespean egiten dira hiri-errentamenduak: *Azaroaren 24ko 29/1994 Legea, Hiri Errentamenduari buruzkoa*. Legeak helburu hauek lortu nahi ditu: hiri-errentamenduen merkatua indartzea; eta alderdien prestazioen artean bidezko oreka berrezartzea, batez ere indarrean zeuden kontratuen egoera eguneratuz. Horretarako, oinarri hauek ezartzen ditu:

- (a) Iraupena: alderdiek askatasuna dute kontratuaren iraupena ezartzeko, baina gutxieneko epeak errespetatuz.
- (b) Luzatzea: gutxieneko iraupena bete arte urtero nahitaez luzatuko da.
- (c) Errenta: hasierako errenta ezartzeko askatasuna emango da, baina eguneratzeko klausulak onartuz —KPIren arabera—.
- (d) Alderdien eskubide eta betebeharrak dagokienez, aurreko legeriari eusten zaio.
- (e) Ezindu fisikoak babesteko erabakiak hartzen dira.
- (f) Maizterrak lehentasunez eskuratzeko eskubidea du.
- (g) Kontratua egiteko, forma-askatasuna ezartzen da (ahoz edo idatziz).
- (h) Jabetza Erregistroan inskribatzeko aukera ematen da.
- (i) Nahitaezko fidantza ematea aurreikusten da.
- (j) 1995eko urtarrilaren 1etik aurrerako kontratuei aplikatuko zaie legea.

Legeak bi egoera oso desberdin bereizten ditu, bakoitzari trataera bat emateko:

ohiko etxebizitzaren errentamendua, eta etxebizitzarako ez den beste erabilera baterako errentamendua (negozio-lokala, aldi laburrerako errentamendua, bigarren egoitza izatea eta abar): *Lege honek ezartzen du hiri-finken errentamenduei aplikatu beharreko araubidea, horiek etxebizitzarako edo beste erabilera batzuetarako bideratzen direnean* (1. art.).

Lege bereziaren babesetik kanpo utziko dira eta, beraz, Kode Zibilaren arauetara meneratuko:

5. artikulua. *Salbuetsitako errentamenduak. Lege honen aplikazio-eremutik salbuetsita daude:*

- a. Atezain, zaintzaile, alokairupeko, enplegatu eta funtzionarioei euren kargua dela-eta edo emandako zerbitzuarengatik esleitutako etxebizitzaren erabilera.*
- b. Militarren etxebizitzaren erabilera, horien kalifikazioa eta araubidea gorabehera, euren legeria berezian xedatutakoaren arabera arautuko baitira.*
- c. Laborantza-etxea duen finka bat errentan emateko kontratuak, errentamenduaren helburu nagusia nekazaritza-, abeltzaintza- edo baso-aprobetxamendua bada. Kontratu horietan aplikatuko da landa-errentamenduei aplikatu beharreko legerian xedatutakoa.*
- d. Unibertsitateko etxebizitzaren erabilera, unibertsitateak berak, horien jabe edo arduradun izanda, beren beregi hala kalifikatu dituenen, baldin eta etxebizitzok esleitzen bazaiatzkie kasuan kasuko unibertsitatean matrikulatutako ikasleei, eta bertako irakaskuntza, administrazio eta zerbitzuetako langileei, horietako bakoitzaren eta unibertsitatearen artean ezarritako lotura dela bide; unibertsitatearen ardura izango da, kasuan-kasuan, etxebizitza horien erabileran aplikatu behar diren arauak ezartzea.*

4. artikulua ezartzen du aplikatu beharreko eraentzari buruzko arau nagusia:

4. artikulua. *Aplikatu beharreko araubidea*

- 1. Lege honetan araututako errentamenduak lege bereko I., IV. eta V. tituluetan, eta artikulua honen hurrengo paragrafoetan xedatutakoaren menpe geratuko dira nahitaez.*
- 2. Aurreko paragrafoan ezarritakoa errespetatuz, lege honen II. tituluaren xedatutakoak, eta, halakorik izan ezean, alderdien borondateak arautuko dute etxebizitza-errentamendua, eta, ordezko moduan, Kode Zibilean xedatutakoak.*
Xedapen horretatik salbuetsita daude luze-zabalean 300 metro koadrotik gorakoa duten etxebizitza-errentamenduak, edo hasierako errentaren urteko kopurua lanbide arteko gutxieneko alokairuaren urteko kopurua baino 5,5 aldiz handiagoa dutenak. Errentamendu horietan, alderdien borondatea, eta, halakorik izan ezean, lege honetako II. tituluaren xedatutakoa aplikatuko dira, eta, ordezko moduan, Kode Zibilaren xedapenak.
- 3.1. paragrafoan xedatutakoari kalterik egin gabe, etxebizitza-erabileraz besteko errentamenduetan, alderdien borondatea, eta, halakorik izan ezean, lege honen III. tituluaren xedatutakoa aplikatuko dira, eta, ordezko moduan, Kode Zibilean xedatutakoa.*
- 4. Lege honetako manuen aplikazioa baztertu nahi bada, baztertze hori egingarria delarik, berori beren beregi itundu beharko da manu bakoitzari begira.*

(1) *Etxebizitza-errentamendua*

Legearen eraginetarako etxebizitza zer den honela zehazten da:

2. artikulua. *Etxebizitza-errentamendua.*

1. *Etxebizitza-errentamendua badela uste da, errentariak eraikin bizigarri bat errentan hartzen duenean, eraikin horren lehen helburua etxebizitza iraunkorra izateko beharra asetzea dela.*

2. *Etxebizitza-errentamenduan aplikatzen diren arauak aplikatuko zaiizkie, orobat, altzariei, trastelekuei, garaje-plazei eta gainerako gelei, errentan emandako espazioei edo errentatzaileak berak finkaren eranskin gisa lagatako zerbitzuei.*

7. artikulua. *Etxebizitza-errentamenduaren izaera. Etxebizitza-errentamenduak ez du izaera hori galduko, nahiz eta errentariak errentapeko finkan etxebizitza iraunkorra izan ez, baldin eta bertan bizitza badira beraren ezkontidea, legez edo egitez banandurik ez dagoena, edo beraren mendeko seme-alabak.*

Gainera, ohiko etxebizitza izan arren, legearen babesik ez dute jasoko hauek: *Xedapen horretatik salbuetsita daude luze-zabalean 300 metro koadrotik gorakoa duten etxebizitza-errentamenduak, edo hasierako errentaren urteko kopurua lanbidearteko gutxieneko alokairuaren urteko kopurua baino 5,5 aldiz handiagoa dutenak. Errentamendu horietan, alderdien borondatea, eta, halakorik izan ezean, lege honetako II. tituluan xedatutakoa aplikatuko dira, eta, ordezko moduan, Kode Zibilaren xedapenak.*

Honela arautzen dira kontratuaren elementu nagusiak:

(a) Iraupena:

(a') Alderdiek nahi dutena ezar dezakete, baina bost urte baino gutxiago hitzartzen badute, maizterrak urtez urte bost urteraino luza dezake iraupena. Beti ere, errentatzailearen gozatzeko eskubideak hainbeste irauten badu, bestela kontratua iraungi egingo baita.

(b') Kontratua luzatzea: iraupena bete ostean, alderdiek ez badute ezer adierazten, urtez urte beste hiru osatu arte luza daiteke kontratua.

(c') Bost urtetik gorako iraupena duen kontratuan, bost urte iragan ostean maizterrak aukera izango du urtero kontratua bertan behera uzteko.

(d') Errentatzaileak bere jabetza-eskubidea besterentzen badu, jabe berriak kontratuaren iraupena errespetatu behar du, gutxienez bost urtean.

(e') Maizterra hiltzen bada, zenbaitek bere lekua har dezake kontratuan.

(b) Errenta

(a') Hasierako errenta askatasunez hitzartuko dute alderdiek.

(b') Gero, eguneratu daiteke lehen bost urteetan, KPIren arabera. Seigarren urtetik aurrera, eguneratzea alderdiek hitzartutakoaren arabera egingo da. Akordio hori ez bada existitzen, prezioen indizea aplikatuko da.

(c') Errentatzaileak ordainduko ditu etxebizitzak dituen gastuak, zerbitzuak

eta zergak, bestelakorik hitzartzen ez bada —ohikoena hori da—.

Edukiari dagokionez, berriz, eskubide-betebehar hauek aurreikusten dira:

(a) Errentatzailearentzat:

(a') Betebeharrak: ondasuna ematea; etxebizitza kontserbatzeko beharrezko konponketak egitea, beti ere narriadura maizterrari egozgarria ez bada; etxebizitza saltzeko asmoa balu, maizterrari jakinaraztea, eman zaion lehentasunez eskuratzeko eskubidea baliarazteko.

(b') Eskubideak: errenta kobratzea eta eguneratzeko eskatzea; etxebizitza hobetzeko obrak egitea; kontratua iraungitzeko eskatzea, legeak ezartzen dituen kausarik balego; etxebizitza abandonatu bada, kalte-galeren ordaina eskatzea; fidantza eskatzea.

(b) Maizterrarentzat:

(a') Betebeharrak: errenta ordaintzea; etxebizitzaren gastuak ordaintzea, horrela hitzartu bada; etxebizitza erabiltzeak sortzen dituen konponketa beharrak egitea; berari egotzitako ezohiko narriadurak ordaintzea; errentatzailearen baimenik gabe obrarik ez egitea eta, halaber, errentatzaileak etxebizitza kontserbatzeko eta hobetzeko obrak jasatea; fidantza ematea.

(b') Eskubideak: ezindua bada, etxebizitza egokitzeko eskatzea; etxebizitza besterentzen bada, lehentasunez eskuratzeko eskubidea.

Kontratua iraungitzeari buruz, berriz, arau hauek ezartzen dira:

(a) Errentatzaileak honako arrazoi hauengatik suntsiaraz dezake kontratua:

(a') Maizterrak ez duelako errenta edo fidantza ordaindu, eguneratzea barne.

(b') Maizterrak, haren baimenik gabe, etxebizitza azpierrementamenduan eman badu, laga badu edo obrak egin baditu.

(c') Molestatzen duten, arriskutsuak, kaltegarriak edo ez-zilegiak diren ekintzak egitea.

(d') Etxebizitza ez den beste erabilera baterako erabiltzea.

(b) Maizterrak kontratua suntsitu ahal izango du:

(a') Errentatzaileak ez baditu egiten etxebizitzak bertan bizitzeko behar dituen konponketak.

(b') Errentatzaileak etxebizitzaren erabileran asaldurak egiten baditu.

(c) Kontratua iraungi egingo da, baita ere:

(a') Errentatzaileari egozgarri ez zaion kausagatik galdu bada etxebizitza.

(b') Eskuduntza duen agintariak etxebizitzari buruzko hondamen-deklarazioa egiten badu.

(2) *Etxebizitzarako ez den beste erabilera baterako errentamendua*

Legearen eraginetarako, honela zehazten da etxebizitzarako ez eta beste

erabilerak zein diren:

3. artikulua. *Etxebizitza-erabileraz besteko errentamendua.*

1. *Etxebizitza-erabileraz besteko errentamendua badela uste da, eraikin bat errentan ematen denean aurreko artikuluan ezarritako erabileraz beste baterako.*
2. *Bereziki, izatera horretako errentamenduak izango dira udarako zein beste denboraldi baterako sinatzen diren hiri-finken errentamenduak, eta finka batean industria-, merkataritza-, eskulangintza-, lanbide-, aisia-, laguntza-, kultura edo irakaskuntza-jarduera bat egiteko sinatzen direnak, sinatzaileak gorabehera.*

Kategoria horretan sartzen dira bulegoen, komertzio-lokalen, pabiloien, biltegien, bulego profesionalen eta antzeko higiezinen errentamenduak. Beste modu batera esanda, negozio-lokalen errentamenduak.

Kontratu horiek ere alderdiek hitzartutakoa izango dute lehen arau. Horren ezean, legeak III. tituluan ezarritakoa aplikatuko zaie eta, etxebizitza-errentamenduei buruz ezarritako arauetatik, legearen 19., 21., 22., 23., 25. eta 26. artikulua ere aplikatuko zaizkie. Fidantzari buruzko arauak ere aurrekoaren berberak dira.

Errentamendu mota horretan, arau berezien beharra du lagatzeari eta azpierrementamenduan emateari buruzko aukerak, komertzioan oso ohikoa baita negozioak eskualdatzea. Hau da arau nagusia:

32. artikulua. *Kontratua lagatzea eta azpierrementamendua*

1. *Errentapeko finkan enpresa- edo lanbide-jarduera bat egiten denean, errentariak finka azpierrementan eman edo errentamendu-kontratua laga abal izango du, errentatzailearen adostasuna izan beharrik gabe.*
2. *Zatikako azpierrementamendua eginez gero, errentatzaileak errenta igotzeko eskubidea du indarreko errentaren 100eko 10ean; kontratua laga edo errentapeko finka osoa azpierrementan emanaz gero, igoera hori 100eko 20koa izango da.*
3. *Sozietate errentariak beste sozietate batekin bat egin, bera eraldatu edo zatitzearen ondorioz izandako errentari-aldaketa ez da lagapen gisa ulertuko, baina errentatzaileak eskubidea izango du, aurreko paragrafoan ezarritako errenta-igoera egiteko.*
4. *Lagapena nabiz azpierrementamendua errentatzaileari sinesgarriri jakinarazi behar zaizkio, horiek itundu eta hilabeteko epean.*

Subrogatzeko aukerari buruz, berriz, hauxe ezartzen da:

(a) Maizterrari buruz:

33. artikulua. *Errentaria hiltzea.*

Errentaria hiltzen bada lokalean enpresa- edo lanbide-jarduera egiten dela, jarduera horri eusten dion jaraunslea edo legatu-hartzailea errentariaren eskubide eta betebeharretan subrogatu abal izango da kontratua azkendu arte.

Subrogazioa errentatzaileari idatziz jakinarazi behar zaio, errentaria hil eta hurrengo bi hilabeteetan.

(b) Errentatzaileari buruz:

29. artikulua. *Errentan emandako finka besterentzea*

Errentapeko finkaren eskuratzaileraren eskubide eta betebeharretan subrogatuko da, salbu eta eskuratzailerak Hipoteka Legearen 34. artikuluko baldintzak betetzen dituenean.

Bukatzeko, maizterrak kalte-ordaina jasotzeko eskubidea izango du:

34. artikulua. *Kalte-ordaina errentariari.*

Finkaren errentamendua azkendu bada hitzarmenezko mugaeguna igarotzeagatik, eta finka horretan azken bost urteetan merkataritza-jarduerarekin bat egin bada jendeari saltzeko, orduan errentariak eskubidea du errentatzailearen kontura kalte-ordaina jasotzeko, betiere, errentariak adierazi duenean, epea agortu baino lau hilabete lehenago, kontratua beste bost urterako eta merkaturako errentaren truke berriztatu nahi duela. Merkaturako errenta izango da alderdiek ondore horretarako hitzartutakoa; itunik ez badago, berriaz, alderdiek izendatutako tartekariak ondore horretarako zehazten duena. Kalte-ordainaren zenbatekoa modu honetan zehaztuko da:

1. *Errentamendua agortu eta hurrengo sei hilabeteetan, errentaria udalerrri berean ordu arteko jarduera bera egiten hasten bada, kalte-ordainak barnean hartuko ditu lekualdatze-gastuak eta aurreko lokalarekin alderatutako bezeria-galerak erakarri kalteak. Bezeria-galera hori kalkulatzeko, kontuan hartuko da jarduera berriaren lehenengo sei hilabeteetan izandakoa.*

2. *Errentamendua azkendu eta hurrengo sei hilabeteetan, errentariak beste jarduera bat hasten badu, edo inolako jarduerarik hasten ez badu, eta errentatzaileak edo hirugarren batek garatzen badute, epe berean, errentariak finkan garatutako jarduera bera edo antzekoa, orduan kalte-ordaina hileko bat izango da, kontratuak irauten duen urte bakoitzeko, eta, gehienez ere, hemezortzi hileko errenta-kopurua. Errentariak egin duen jarduera dela eta, bezeria bereganatu badu, ulertuko da, aurreko paragrafoaren ondorioetarako antzeko jarduerak direla errentatzaileak edo errentari berriak bezeria hori erakartzeko eginikoak. Alderdiek egiten ez badute kalte-ordainaren zenbatekoari buruzko hitzarmenik, alderdiek izendatutako tartekariak finkatuko du zenbateko hori.*

1.5 Landa-errentamendua

Hiri-errentamenduen gisara, landa-errentamenduak ere babestu egin ziren Gerra Zibilaren ostean, landa-guneetan eta baserrietan maizter zirenen aldeko arauak emanez, bereziki ere kontratuen iraupena luzatuz eta errentak izoztuz.

Gaur egun egoera bestelakoa bada ere, indarrean dauden legeak hainbat dira eta, beraz, kontratu bakoitza zein legeren menpe geratzen den zehaztea izango da lehen arazoa:

- (a) Kode Zibilak arautzen ditu landa-errentamenduak.
- (b) *Ley 83/1980, de 31 de diciembre, de Arrendamientos Rústicos.*
- (c) *Ley 1/1992, de 10 de febrero, de Arrendamientos Rústicos Históricos.*
- (d) *Ley 19/1995, de 4 de julio, de Modernización de las Explotaciones Agrarias.*
- (e) *Ley 49/2003, de 26 de noviembre, de Arrendamientos Rústicos; modificada por la Ley 26/2005, de 30 de noviembre.*

Egun, landa-errentamendua egiteko kontratua arau nagusi hauen menpe geratzen da:

(1) Hauek dira landa-errentamenduak:

1. artikulua. *Landa-errentamendua*

1. *Landa-errentamendutzat hartuko dira finka bat edo gebiago, edo finkon zatiren bat, aldi baterako lagatzeko kontratuak, horietatik nekazaritza-, abeltzaintza- edo baso-aprobetxamendua atera dadin, prezio edo errenta baten truk.*
2. *Kontratuoi alderdiek esanbidez adostutakoa aplikatuko zaie, lege honen aurkakoa ez bada. Ordezko moduan, Kode Zibila aplikatuko da, eta, koderik ez badago, aplikatzeko modukoak diren erabilera eta obiturak.*
3. *Nekazaritza-, abeltzaintza- edo baso-ustiategien errentamenduek izaera bera dutela ulertuko da, eta horiei lege honen xedapenak aplikatuko zaizkie, euren izaerarekin bateragarriak badira eta alderdiek esanbidez besterik adostu ez badute.*

2. artikulua. *Ustiategiaren errentamendua.*

Ustiategiaren errentamendua dela ulertuko da, kontratuaren aurretik zein kontratua egitean, hura jada eratuta badago, errentamenduaren objektua ustiategia bera izan delarik, beraren osagai guztiekin, unitate organiko moduan, eta, alderdiek esanbidez agerrarazten badute hori, inbentario egokia erantsita.

(2) Bere jardueran, enpresa-askatasuna ematen zaio maizterrari:

8. artikulua. *Kontratuaren garapena*

1. *Landa-finken errentariak eskubidea du lugintza-mota zehazteko; hala ere, errentamendua amaitzean, finkek hartu zituen egoeran itzuliko ditu, eta lege honetan hobekuntzei buruz xedatutakoa kontuan hartu beharko du. Errentariari lugintzen edo produktuen destinoaren gain murrizketaren bat ezartzen dioten itunak deusezak izango dira, lurra pobretzea saihestu nahi dutenak eta lege- edo arau-xedapenen ondorio direnak izan ezik.*
2. *Lugintza-mota edo -sistema zehaztean, helburua eraldatu edo aparteko hobekuntzak egiten direnean, alderdien arteko esanbidezko hitzarmenaren bidez soilik egin ahal izango da hori, eta, hala denean, lege edo arau egokiak beteta.*
3. *Era berean, ustiategien errentamenduari dagokionez, errentariak erabateko autonomia du, kontratuaren arabera enpresa-jarduera egikaritzeko; baina betebeharra du ustiategiaren batasun organikoari eusteko, ustiategia osatzen duten osagai guztiei begira, eta errentamendua amaitzean berori errentatzaileari itzultzeko.*

(3) Gainera, hobekuntzak egiteko aukera ere ematen zaio:

20. artikulua. *Errentariaren konturako obrak eta hobekuntzak*

1. *Errentariari dagokio konponketa, hobekuntza eta inbertsioak egitea, horiek nekazaritza-empresaburuari jardueran aritzean dagozkionak badira, eta lege xedapenaren edo ebaspen judizial nabiz administratibo irmoaren ondorioz, edo, nekazaritza-empresaburuari ere jardueran aritzean ureztatzaileen erkidegoak ureztaketa hobetzeari begira egindako hitzarmenaren ondoriozkoak badira; hala eta guztiz ere, horregatik ez du eskubiderik izango errenta murrizteko ez errentamendua luzatzeko, alderdien arteko hitzarmenaren bidez edo lege-xedapenez edo ebaspen judizial nabiz administratiboaz besterik ateratzen ez bada.*

2. *Errentariak errentapeko lurren hormak, hesiak, palaxu biiziak edo hilak, zangak eta bestelako itxitura-moduak ken ditzaake, horiek ustiapen-unitate bereko finka bi edo gehiago bereizten badituzte; hala eta guztiz ere, errentamenduaren amaieran, gauzak jaso zituen bezala itzuli beharko ditu, Kode Zibilaren 1561. artikuluan xedatutakoaren arabera.*

3. *Errentamenduan zehar egindako hobekuntzak errentariaren kontura egin direla uste da.*

Hortik aurrera, errentamenduaren elementu nagusiak —iraupena eta errenta— zehatz-mehatz arautzen dira eta, halaber, kontratua amaitzeari buruzko kausak zehazten dira.

2. MAILEGU-KONTRATUA

Legeak kontzeptu hau ematen du: *mailegu-kontratuaren bidez, alderdi batek besteari ematen dio gauza suntsiezin bat, horrek epe zehatzean gauza erabil dezan, eta, ondoren, berari itzul diezaion; kontratu horri komodatu deritzo. Edo, bestela, dirua edo beste gauza suntsikorren bat eman daiteke, horren espezie eta kalitate bereko beste horrenbeste itzultzeko baldintzapean; kasu horretan, kontratuak mailegu izenari eusten dio soil-soilik (KZren 1740. art.).*

Beraz, bi mailegu mota daude:

(1) *Komodatoa*

Alderdi batek (komodato-emaileak) beste bati (komodato-hartzaileari) zerbait ematen dio, azken horrek erabili eta gero itzul dezan. Beraz, ez dio jabetza-eskubidea eskualdatzen, erabiltzeko ahalmena besterik ez.

Berez, ezaugarri hauek ditu: erreal da, existitzeko nahitaezkoa baita gauza ematea; aldebakarrekoa, komodato-hartzailearentzat bakarrik sortzen baititu

betebeharrak —erabili eta gero gauza itzultzeko betebeharra—; doakoa, izan ere *zerbitzu-sariren bat ordaindu behar badu erabilera jasotzen duenak, hitzarmenak komodatu izateari uzten dio*, beste kontratu bat izango litzateke —errentamendua— (KZren 1741. art.); iraupenez mugatua da, epealdi baterakoa. Esate baterako, gurasoek etxebizitza uztea ezkondu berri zaien seme edo alabari eta haren ezkontideari.

Hauk dira kontratua osatzen duten elementuak:

- (1) Pertsonala: batetik, komodato-emailea edo mailegu-emailea, gauzaren erabilera uzten duena, gauzaz gozatzeko ahalmena duelako; bestetik, komodato-hartzailea edo mailegu-hartzailea, gauza jaso eta itzuli behar duena.
- (2) Errealak: komodatoaren objektuak kontsumigarria ez den gauza izan behar du, jasotako gauza berbera itzuli beharko baita; higigarria edo higiezina izan daiteke.
- (3) Formalak: egiteko askatasuna dago, baina gauza ematen denean sortzen da.

Edukiari dagokionez, berriz, hauk dira alderdi bakoitzaren betebeharrak:

- (1) Komodato-emaileak, behin gauza entregatu eta kontratua sortu ostean, ez du beste betebeharririk.
- (2) Komodato-hartzaileak gauza erabiltzeko eskubidea du, baina fruituak eskuratu gabe (KZren 1741. art.), eta gauza jaso zuen egoera berdinean itzultzeko betebeharrarekin. Gauza gaizki erabiltzen badu edota galtzen badu, kaltearen erantzukizuna hartuko du (KZren 1744. art.).

Kontratuen iraungitzeko kausak kontuan izanda, nagusiki iraungiko da epea agortzean, erabilera amaitzean edo komodato-emaileak itzultzeko eskatuz gero.

Komodatoen artean, kasu berezia da prekariora: norbaiti zerbait uztea zertarako eta noiz arte erabiliko den finkatu gabe. Horrelako kasuei buruz, legeak zera aurreikusten du: *ez badira itundu komodatuaren iraupena eta mailegupeko gauzari eman beharreko erabilera, eta erabilera hori ezin bada zehaztu lurraldeko ohituraren arabera, komodatugileak gauza erreklama dezake bere borondatez. Zalantzarik izanez gero, komodatudunari dagokio froga* (KZren 1750. art.).

(2) *Mutua edo mailegu butsa*

Alderdi batek (mailegu-emaileak) beste bati (mailegu-hartzaileari) gauza suntsikor bat ematen dio, eta horrek mota eta kalitate bereko beste hainbat itzultzeko betebeharra hartzen du: *norbaitek dirua edo beste gauza suntsikorren bat maileguan hartzen badu, horren gaineko jabetza eskuratzen du, eta betebeharra du, hartzekodunari horren espezie eta kalitate bereko beste horrenbeste itzultzeko* (KZren 1753. art.). Gainera, *mailegu soila dohainekoa izan daiteke, edo interesak ordaintzeko itunarekin egin daiteke.* (KZren 1740. art.).

Kontratua berez erreala da, alegia, beharrezkoa da gauza ematea; aldebakarrekoa, mailegu-hartzaileak bakarrik baitu betebeharra; doakoa, interesak hitzartu eta kostubidez egiten ez bada behintzat; iraupenez mugatua, gauza emateko eta itzultzeko data jartzen baita. Gainera, gauza suntsikorraren jabetza-eskubidea eskualdatu egiten da, ez baita gauza bera itzultzen, baizik eta mota eta kalitate bereko beste bat.

Kontratua osatzen duten elementuak, berriz, hauek dira:

- (1) Pertsonala: mailegu-hartzaileak —gauza suntsikorra jasotzen duenak—, kontratatzeke gaitasun orokorra izan beharko du, eta emantzipatua adingabea bada, bere legezko ordezkariaren baimena beharko du. Mailegu-emaileak —gauzaren gaineko jabetza-eskubidea eskualdatzen duenak— kontratatzeke gaitasun orokorra eta maileguan eman den gauzaz xedatzeko ahalmena izan beharko ditu.
- (2) Erreala: gauzak berez suntsikorra izan behar du, ezen bere ordezkari mota eta kalitate bereko beste gauza bat itzuli behar baita. Esaterako, mailegurik ohikoena dirua ematea da.
- (3) Formala: askatasun-printzipioari jarraitzen zaio.

Edukiari dagokionez, berriz, hauek dira alderdi bakoitzaren betebeharrak:

- (1) Mailegu-hartzailearena: *hartzen duenak (...) betebeharra du (...) espezie eta kalitate bereko beste horrenbeste itzultzeko* (KZren 1753. art.); hori da bere betebeharr nagusia.
- (2) Mailegu-emaileak ez dauka betebeharririk.

Mailegu berezien artean zabalduena eta garrantzitsuena diruaren mailegua da, interesekin egindakoa. Horrela, mailegu-hartzaileak, jasotakoaren parekoa itzultzeko betebeharrak gainera, interesak ordaintzeko betebeharra ere izango du. Interesak ez baziren hitzartu eta mailegu-hartzaileak ordaindu bazituen, zera agintzen da: *ordainduta gero, ezin ditu interesak erreklamatu, ezta horiek kapitalari egotzi ere* (KZren 1756. art.). Gogoratu itzultzeko betebeharr hori diruzko betebeharra dela eta horrelakoentzat aurreikusitako arauak aplikatuko zaizkiola.

Mailegu soilen artean, eta finantziazio-sistema gisa, kasu berezia da *nauticum fenus* delakoa (*contrato o préstamo a la gruesa ventura* edo *préstamo a riesgo marítimo*): nabigazioa eta maileguan emandako diruaren interesa biltzen ditu. Mailegu-emaileak nabigazioaren dirua edo beste gauza suntsigarriak ematen dizkio ontzi-jabeari itsasoko garraioa egiteko; ontzi-jabeak eman zaiona itzuliko du sariarekin batera (*pretium periculi*), kaira ondo iristen bada, edo kalte-ordaina jasoko du, hondoratzen bada. Hartara, mailegu-emaileak hartzen ditu bere bizkar garraioaren arrisku guztiak. Kasurik ezagunenak Isabel Katolikoak eta Kristobal Kolonek egin zituzten Santa Feko Kapitulazioak dira; bertan dago

aseguru-kontratuaren aurrekari interesgarria.

XIII. IKASGAIA

SOZIETATE-KONTRATUA

AURKIBIDEA. 1. Kontzeptua. 2. Motak. 3. Eratzea. 4. Edukia. 5. Iraungitzea eta kitatzea.

1. KONTZEPTUA

Sozietatea zer den azaltzeko, pertsona juridikoa zer den azaldu behar da lehenik: elkarte bat sortuz batutako hainbat pertsona, inork bakarrik lortu ezin dituen xedeak gauzatzeko; beharrezkoa izango da guztien elkarlana. Elkartze motaren arabera, pertsona juridiko desberdinak era daitezke: elkartek, fundazioak, sozietateak, sozietate anonimoak, kooperatibak, eta abar. Beraz, pertsona fisikoek sortu duten erakundea pertsonatzat hartzen da —pertsona dela esatea fikzioa izan arren—, eta pertsona juridiko deritzo ordenamendu juridikoak onartzen eta babesten duelako.

Kode Zibilaren 35. artikulua: *Pertsona juridikoak dira: 1) Legeak aitortu dituen eta interes publikoa duten korporazio, elkarte eta fundazioak. Horien nortasuna hasten da zuzenbidearen arabera baliozkotasunez eratu diren unetik beretik. 2) Interes pribatuko elkartek, horiek zibilak, merkataritzakoak nahiz industriakoak izan, baldin eta legeak berezko nortasuna ematen badie, elkartekideengandik lokabe.*

Hartara, sozietatea pertsona juridiko gisa eratzen da eta, ondorioz, pertsonalitate propioa du. Hala ere, badaude sozietateak pertsona izatera iritsi ez eta pertsonalitate gabeak; horiei sozietate irregularrak edo egitatezkoak deritze. Azken horiek pertsonaz osatutako elkartek dira baina, elkarte gisa azaldu bitartean, bazkideek berez beren gain hartutako betebeharraren erantzukizuna hartuko dute: *sozietateek ez dute nortasun juridikorik izango, euren itunak isilpean gordetzen badira bazkideen artean, eta bazkide bakoitzak bere izenean kontratatzen badu hirugarrenekin; gainera, sozietate-mota horiek ondasun-erkidegoei buruzko xedapenek arautuko dituzte* (KZren 1669. art.). Egin duten kontratuaren bidez, ez dute pertsonarik osatu eta pertsonalitate berririk eratu.

Elkarte horiek xedetzat badute irabazi ekonomikoa lortzeko jarduera egitea eta irabaziak banatzea, berez sozietate dira. Beraz, helburuaren arabera bereizten dira:

- (1) Irabazi asmorik ez duten pertsona juridikoak: elkartek eta fundazioak. Horien helburua ez da ekonomikoa, bestelakoa baizik: kulturala, morala, laguntzailea, eta abar.
- (2) Irabazi asmoa dutenak: sozietateak. Aldi berean, zibilak edo

merkataritzakoak izan daitezke berez —akziokako sozietateak, erantzukizun mugatuko sozietateak, kooperatibak, eta abar—. Kontuan izan behar da irabazia ez dela beti dirua lortzea gero banatzeko, baizik etekinak lortzea; esaterako, kontsumo-kooperatibaren helburua da bazkideentzat produktuak preziorik onenean lortzea.

Testuinguru horretan, Kode Zibilak sozietatea kontratu gisa definitzen du, hau da, borondatezko akordio gisa. KZren 1665. artikulua kontzeptu hau ematen du: *sozietatea kontratua da, eta, horren bidez, bi pertsona edo gehiagok euren gain hartzen dute dirua, ondasunak edo industria erkidegoan jartzeko betebeharra, irabaziak euren artean banatzeko asmoarekin* (KZren 1665. art.).

Sozietateak ezaugarri hauek bete behar ditu:

- (1) Funts komuna osatzen da bazkideek egindako ekarpen guztiekin. Ekarpena izan daiteke materiala (dirua, gauzak edo ondasunak) edo industrialak (bazkidearen lana).
- (2) Helburua da banatzeko irabaziak lortzea: irabazi-asmoa dago (bestela, elkarkea litzateke); irabazia bazkide guztiena da komunean (KZren 1666. art.); eta, eskuarki, irabaziak edo galerak bazkideen artean banatuko dira.

Kontratuaren ezaugarriak, berriz, hauek dira:

- (1) Adostasunezkoa izatea: alderdien adostasun hutsarekin sortzen da.
- (2) Aldebikoa edo aldeanitzekoa: alderdi kontratatzaileentzat eskubideak eta betebeharrak sortzen ditu, eta horiek bi pertsona edo gehiago izan daitezke. Sortzen diren betebeharrak sozietatearen eta bazkidearen artekoak dira (KZren 1681. eta 1682. art.).
- (3) Kostubidezkoa: bazkide guztiek ekarpenen bat egin behar dute.
- (4) Trukakorra: baliokidetasuna dago bazkideen prestazioaren eta banatzea espero den irabazien artean.
- (5) Berez *intuitu personae* da: konfiantzan oinarritua dago eta bazkideak nor diren kontuan hartzen da sortzeko eta irauteko garaian (KZren 1700. eta 1704. art.).
- (6) Aurreranzko traktua: denboran zehar luzatzen den kontratua da, eta betebeharrak eta eskubide iraunkorrak ezartzen ditu.

2. MOTAK

- (1) Sozietate zibila eta merkataritzako sozietatea. Biek irabazia lortzea dute xede, baina hori lortzeko bide desberdinak erabiltzen dituzte. Merkataritzako sozietateak komertzio-egintzen eta industriaren bidez lortuko dituzte irabaziak. Zibilak, berriz, merkataritzakoak ez diren egintzen bidez. Merkataritzako sozietateari Merkataritzako Kodeak eta lege bereziek ezarritako arauak

aplikatuko zaizkio. Merkataritzan aritzen diren sozietateei buruzko arauak Merkataritza Zuzenbidearen eremuan azaltzen dira.

Hala ere, sozietate zibila egin daiteke merkataritzako sozietateen forma emanaz (KZren 1670. art.); baina, akziokako sozietateak eta erantzukizun mugatuko sozietateak arautzeari buruzko legeek hori onartzen ez dutenez, sozietate kolektiboan edo sozietate komanditarioen forma bakarrik har dezake sozietate zibilak arau horren arabera, merkataritzako sozietate baten forma hartu nahi izanez gero.

(2) Sozietate unibertsala eta partikularra. Hasteko, *sozietatea unibertsala edo banakakoa izan daiteke* (KZren 1671. art.).

(a) Unibertsalen artean bereizten dira: *sozietate unibertsala oraingo ondasun guztien gainekoa izan daiteke, edo irabazi guztien gainekoa* (KZren 1672. art.). Besterik adierazi ezean, irabazien sozietatea eratu dela joko da (KZren 1676. art.):

(a') *Sozietatea oraingo ondasun guztien gainekoa da, alderdiek erkidegoan jartzen badituzte, bai orain dituzten ondasun guztiak, euren artean horiek banatzeko asmoarekin, bai eta halakoekin eskuratzen diren irabazi guztiak ere* (KZren 1673. art.). Hau da, orain nork bereak dituen ondasunak gero bazkide guztien jabetzako bihurtzen dira, irabaziak sartuta; baina ez da hori gertatzen etorkizuneko ondasunekin (KZren 1674. art.).

(b') *Irabazi guztien gaineko sozietateak bere barruan hartzen du sozietatea bitartean bazkideek euren industria edo lanaren ondorioz eskuratzen duten guztia. Bazkide bakoitzak, kontratua egitean, ondasun higigarri edo higiezinak baditu, ondasunok jabari pribatukoak izateari eusten diote, eta sozietateari horien gozamina bakarrik eskualdatzen zaio* (KZren 1675. art.).

(b) Sozietate partikularrean, berriz, objektua zera da: *objektu izan daitezke gauza zehatzak, horien erabilera edo euren fruituak, enpresa jakin bat, edo lanbidean nabiz artean aritzea* (KZren 1678. art.).

(3) Profesionalek sortutako sozietateek trataera berezia dute, 2/2007 Legeak ematen diena, hain zuzen ere. Legearen 1. artikulua zera dio:

1. Las sociedades que tengan por objeto social el ejercicio en común de una actividad profesional deberán constituirse como sociedades profesionales en los términos de la presente Ley. A los efectos de esta Ley, es actividad profesional aquella para cuyo desempeño se requiere titulación universitaria oficial, o titulación profesional para cuyo ejercicio sea necesario acreditar una titulación universitaria oficial, e inscripción en el correspondiente Colegio Profesional. A los efectos de esta Ley se entiende que hay ejercicio en común de una actividad profesional cuando los actos propios de la misma sean ejecutados directamente bajo la razón o denominación social y le sean atribuidos a la sociedad los derechos y obligaciones inherentes al ejercicio de la actividad profesional como titular de la relación jurídica establecida con el cliente. 2. Las sociedades profesionales podrán constituirse con arreglo a cualquiera de las formas societarias previstas en las Leyes, cumplimentando los requisitos establecidos en esta Ley.

3. ERATZEA

Sozietate zibila eratzeko, elementu hauek bildu behar dira:

(1) Pertsonalak. Subjektuak kontratua egiten duten bazkideak dira. Denek xede berbera dute eta, kopuruz, bi edo gehiago izan daitezke (KZren 1665. art.). Kontratua egin eta gero, bazkide berriak elkar daitezke, baina gehitze hori beste kontratu baten bidez gauzatuko da; horretarako, beharrezkoa izango da bazkide guztien adostasuna, bestela ez baita kide berririk elkartuko (KZren 1696. art.). Parte hartzen dutenen gaitasunari dagokionez, berriz, kontratazko behar den gaitasun orokorra eskatzen da.

(2) Errealak. Sozietate guztien objektua jarduera da; jarduera horrek zilegia izan behar du eta bazkide guztien onuran ezarria (KZren 1666. art.). Objektua, beraz, zerak osatzen dute: bazkideen ekarpenek —horiekin osatzen da sozietatearen funtsa— eta ondoren lortutakoak —irabazia edo galera—.

(3) Formalak. *Sozietate zibila edozein forma erabiliz era daiteke, sozietate horretara ondasun higiezinak edo eskubide errealak ekartzen direnean izan ezik; kasu horretan, beharrezkoa izango da eskritura publikoa (KZren 1667. art.); sozietate-kontratua deuseza da, baldin eta horretara ondasun higiezinak ekartzen badira, horien inbentarioa egin gabe; inbentarioa alderdiek izenpetu behar dute, eta eskriturari batu behar zaio (KZren 1668. art.).*

4. EDUKIA

4.1 Barneko harreman juridikoak

Bazkideek dituzten betebeharrak eta eskubideetan, bi maila bereizten dira: batetik, bazkideen arteko harremanak eta, bestetik, bazkideak sozietatearekin dituen harremanak.

(1) Bazkideen lehenengo betebeharrak ekarpena egitea da. Horregatik, hauxe agintzen da: *bazkideak sozietateari zor dio bertara ekarriko duela bitzeman duen guztia (KZren 1681. art.).* Betebeharrak ez badu betetzen, bazkideak erantzun beharko du beste betebeharrak bezala eta ekarpenaren arabera: diruzko betebeharrak (interesak ordaintzeko betebeharrak), emateko betebeharrak (saneatzeko betebeharrak), lan egiteko betebeharrak (lanaren balioa ordaintzeko betebeharrak). Ekarpena egiteko betebeharrak du eta, egin ostean, komun bihurtuko da.

(2) Bestalde, bazkideak sozietateari kalterik egiten badio, kalte horiek ordaintzeko betebeharra izango du: *bazkide orok erantzukizuna du, sozietateari begira, bere erruz sozietate horrek izan dituen kalte-galerengatik, eta ezin ditu kalte-galerok konpentsatu bere industriaren ondorioz sozietateari eman dizkion etekinekin* (KZren 1686. art.). Horren parean, zera agintzen da: *sozietateak erantzukizuna du, bazkide orori begira, sozietatearentzat bazkide horrek ordaindu dituen kopuruengatik eta kopuru horiei dagozkien interesengatik; sozietateak erantzukizuna du, halaber, bazkideak onustez eta sozietate-negozioentzat hartu dituen betebeharrengatik eta sozietatearen zuzendaritzari modu banaezinean dagozkion arriskuengatik* (KZren 1688. art.).

(3) Bazkidearen eskubide nagusia sozietatearen irabazietan eta galeretan parte hartzea izango da. Irabaziak eta galerak hitzartutakoaren arabera banatuko dira; beraz, bazkide bakoitzak irabazietan izango duen parte-hartzea zenbatekoa izango den soilik hitzartu bada, orduan galeretan ere proportzio bera aplikatuko da. Hitzarmenik ezean, Kode Zibilak sozietatera ekarri denaren arabera banatzeko irizpidea ezartzen du —sozietateak arriskuak ditu eta bazkideek jasan beharko dituzte gerta daitezkeen galerak— (KZren 1689. eta 1691. art.).

4.2 *Sozietatea administratzea*

Kontratuak sozietatea nola kudeatu den eta nork administratu beharko duten ezartzen badu, hitzarmena errespetatu egin beharko da. Ez bada ezer hitzartu, orduan, Kodeak ematen dituen arauak ezarriko dira:

(1) Administratzailerik ez bada izendatu, bazkide oro izango da administratzaile. Beraz, sozietateko funtsaren gauzak erabili ahal izango ditu (KZren 1695. art.), eta sozietatearentzat betebeharrak har ditzake aldebakarreko jardunez. Halaber, bazkide orok besteek egin dutenari aurre egin ahal izango dio, jarduteko beharrezkoa baita guztien parte hartzea.

(2) Administratzailerik izendatu bada, administratzeko egintzak izendatutako horrek egingo ditu. Xedatzeko egintzak, aldiz, guztien artean erabakiko dira.

4.3 *Kanpoko harreman juridikoak*

Sozietateak harremana izango du hirugarrenekin, pertsona juridikoa denez, sozietate gisa jarduten baitu. Hirugarrenekin egindako harreman juridikoak, berez, hirugarrenaren eta sozietatearen artekoak dira. Bazkideengandik independentea izango da, eta sozietatea ordezkatzeko organoek egindako jarduerak lotuko dituzte sozietatea eta haren ondarea; zorren eta betebeharren erantzukizuna izango du sozietateak, alegia, bazkideek ez dute

izango sozietatearen betebeharren erantzukizunik. Horretarako, zera eskatzen da: *sozietatea hirugarren bati begira betebeharpean jar dadin, bazkideetatik batek burututako egintzen ondorioz, beharrezkoa da: 1º) Bazkideak izatera horrekin jardutea, sozietatearen kontura. 2º) Bazkideak, esanbidezko nabiz isilbidezko mandatuaren ondorioz, abalordea izatea, sozietatea betebeharpean jartzeko. 3º) Bazkideak bere abalorde edo mandatuaren mugen barruan jardutea (KZren 1697. art.)*

Hala ere, bazkideek, beren ekarpenaren proportzioan, modu subsidiarioan eta mankomunatuan erantzungo dute beren ondare pertsonalarekin, sozietatearen ondarea ez bada nahikoa sozietatearen zor guztiak ordaintzeko (KZren 1698.1 art.)

5. IRAUNGITZEA ETA KITATZEA

Berez, sozietate-kontratua kontratuak iraungitzeko kausa orokorren arabera iraungitzen da. Horietaz gainera, sozietatea iraungiko da, bereziki:

- (1) Bazkideen borondatek sortutako kausaren ondorioz:
 - (a) Sozietatearentzat hitzartutako epea bukatzean. Dena den, luza daiteke aipatze bidez edo isilbidez, guztien adostasunarekin.
 - (b) Hasieran jarritako helburua betetzen denean.
 - (c) Sozietatea eperik gabe sortu bada, edozein bazkidek fede onez eta garaiz uko egiteko ahalmena du, gainerakoei jakinaraziz.
- (2) Bazkideen borondatek kanpo dagoen kausaren ondorioz:
 - (a) Bazkideak hil bitartean: orduan, azken bazkidea hiltzean iraungiko da sozietatea.
 - (b) Gauza desagertzea: gauza galtzeak sozietatea iraungitzea ekarriko du.
 - (c) Xedea ezinezko bihurtzea: ezarritako xedea ezin bada lortu.
 - (d) Bazkideren bat hiltzea, ezgaitzea, zarrastel deklaratzeko edo kaudimen gabezia erortzea.

Behin sozietatea iraungitzen denean, kitatu egin behar da, alegia, dagoena banatu. Berez, iraungitze-kausa gertatzen denean, sozietatea ez da automatikoki iraungitzen. Sozietateak bizirik jarraituko du kitatu arte. Sozietatea erabat desagertzeko, kitatzeko prozesua gauzatu behar du. Eskuarki, sozietate-kontratua egiteko garaian hitzartzen dira sozietatea kitatzeari buruzko arauak eta modua, bereziki ondasunak nola banatu. Ez bada ezer hitzartu, Kode Zibilak agintzen du jaraunspena banatzeari buruzko erregelen arabera egin beharko dela (KZren 1708. art.).

XIV. IKASGAIA

BESTE KONTRATU BATZUK

AURKIBIDEA. 1. Zerbitzu-kontratua. 2. Obra-kontratua. 3. Mandatu-kontratua 4. Artekiritza-kontratua. 5. Gordailu-kontratua 6. Fidantza-kontratua 7. Amore-emate kontratua 8. Arbitraje-kontratua 9. Beste kontratu tipiko batzuk.

1. ZERBITZU-KONTRATUA

Zerbitzu-kontratuaren arabera, *alderdietako batek bere gain hartzen du beste alderdiarentzat zerbitzua egiteko betebeharra, prezio jakinaren truke* (KZren 1544. art.). Ezaugarrien artean, kontratua adostasunezkoa, aldebikoa eta kostubidezkoa da berez.

Kontratua osatzen duten elementuak, berriz, hauek dira:

- (1) Pertsonala. Zerbitzailea edo langilea, zerbitzua eskaintzen edo ematen duena; eta patroia edo jabea, zerbitzua eskatu eta gozaten duena. Gaitasunari dagokionez, ez dago arau berezirik.
- (2) Erreal. Zerbitzua bera da, alegia, jarduera gauzatzea. Jarduera berez izan daiteke materiala —eskulana— edo intelektuala; esate baterako, aditu batek aholkua ematea. Kontratuko objektu orok bezala, jarduerak posiblea, zilegia eta zehatza izan behar du. Beste alde batetik, horren kontraprestazioa prezio jakina izango da (eskuarki dirua), denboraren edo egindakoaren arabera zehaztua. Hala ere, beste irizpiderik ere erabil daiteke prezioa zehazteko; adibidez, aholkuaren ondorioz lortutako etekinak. Preziorik hitzartuko ez balitz, alorreko usadioen arabera zehaztuko da.
- (3) Formala. Besteetan bezala, forma-askatasuna onartzen da.

Edukiari dagokionez, berriz, hauek dira alderdi bakoitzaren betebeharrak:

- (1) Zerbitzu-emailearenak. Jarduera gauzatzeko kontuan hartu beharko ditu egiteko betebeharrak ezartzen diren arauak eta, kontratuaren edukia arabera, profesioeko usadioak. Haren lanbideari eskatzen zaion arreta jarri beharko du.
- (2) Zerbitzu-hartzailearenak. Kontraprestazioa ordaintzea eta jarduera betetzen laguntzea; esaterako, beharrezko informazio zuzena emanez. Lansaria eskatzeko akzioa hiru urtera preskribatzen da (KZren 1967.1 eta 2 art.).

Iraungitzearen ikuspegitik, abiapuntua arau hau da: *bizi arteko errentamendua deuseza da* (KZren 1583. art.), edozein zerbitzu mota dela ere. Beste kontu bat da zerbitzu-kontratua epemugarik gabe hitzartzea, ez baita betirakoa eta beti zerbitzu-emaileak denuntzia baitezake. Hortik aurrera, kontratu guztientzat ezarrita dauden iraungitze-kausa orokorrez gainera, hauek dira iraungitzeko kausa bereziak: zorduna hiltzea, hura kontuan hartu bazen kontratua

gauzatzeko; zerbitzu-emailearen borondatea epemugarik gabe gauzatu bazen; eta hitzartutako epea betetzea.

2. OBRA-KONTRATUA

Obra-kontratuaren arabera, *alderdietako batek bere gain hartzen du beste alderdiarentzat obra gauzatzeko betebeharra, prezio jakinaren truk* (KZren 1544. art.). Hainbat izen hartzen ditu praktikan: *contrato de empresa, contrato de ejecución de obra, contrato de industria*.

Zerbitzu-errentamenduan jarduera egitea bada betebeharra, obra-kontratuan emaitza lortzeko betebeharra da elementu nagusia. Beraz, jarduera gauzatzeaz gainera, kontratistak emaitza edo helburua lortzeko betebeharra du eta, beste alderdiak, prezioa ordaintzeko betebeharra. Obra edozein motatakoa izan daiteke, hala nola materiala, industrial, zientifikoa edo artistikoa; esaterako, koadroa margotzea, etxea eraikitzea, zaharberritzeko lana, itsasontzia egitea, auditoria egitea, ikerketa gauzatzea, edo kirurgia estetikoko ebakuntza egitea. Zenbaitetan obra-kontratua da, baina arau bereziek arautua: liburua argitaratzea, produktu baten publizitatea egitea, edo garraioa.

Dena den, Kode Zibilak bereizi egiten ditu: kontratua, non kontratistak obra egiteko bere lana edo industria jartzen baitu; eta kontratista, aurrekoaz gainera, materiala ere jartzen baitu.

Kontratua sortzeko, elementu hauek bildu behar dira:

- (1) Pertsonala: kontratista da obra egin behar duena eta komitentea obra enkargatzen duena; biek jarduteko gaitasuna behar dute.
- (2) Erreal: alde batetik, obra bera, berez posiblea, zilegia eta zehatza — zehaztuko duten inguruabarrak ezartzea komeni da, esaterako, eraikuntzetan proiektuan azaltzen dena—; eta, beste aldetik, prezio ziurra.
- (3) Formal: kontratua egiteko forma-askatasuna ezartzen da.

Edukiari dagokionez, berriz, hauek dira alderdi bakoitzaren betebeharrak:

- (1) Kontratistarenak: obra gauzatu eta hitzartutako epearen buruan komitentearen eskura jartzea (KZren 1592. art.). Aldi berean, erantzukizuna izango du: berea den eta beretzat lan egiten duten pertsonen ez-betetzearen gainean, eta obrak izan ditzakeen akats eta narriaduren gainean; obra eman bitartean, arriskuak ere bere kontura izango dira (KZren 1589. eta 1590. art.). Gainera, agian, materiala jarri beharra ere izango du (KZren 1588. art.).
- (2) Komitentearenak: obra egiten lagundu, obra jaso eta prezioa edo kontraprestazioa ordaintzea.

Kausa orokorren ondorioz iraungitzeaz gainera, honako kasu hauetan ere iraungi daiteke: (a) komitentearen aldebakarreko denuntzia, kalte-galerak ordaintzeko betebeharra bere gain hartuz (KZren 1594. art.); (b) kontratistaren heriotza, hura kontuan hartu bazen kontratua gauzatzeko (KZren 1595. art.); ezinezkotasun eratorria (KZren 1595.3 art.); eta (c) obra burutzea.

Eraikuntzaren eremuan, egun pertsona ugarik hartzen du parte eraikitzekeo prozesu osoan eta, hori guztia arautzeko, lege berezia eman da: 38/1999 Legea, azaroaren 5koa, eraikuntza alorra antolatzeari buruzkoa.

3. MANDATU-KONTRATUA

Mandatu-kontratua, izaeraz, gestio-kontratua da: alderdi batek (mandatu-hartzaileak) beste norbaiten (mandatu-emailearen) kontura egintza juridikoa egiteko betebeharra hartzen du. Berez, adostasunezkoa izateaz gainera, aldebakarrekoa izan liteke doakoa balitz, bestela ez; eta *intuitu personae* da, alderdiek elkarrengan duten konfiantzan oinarritzen baita.

Kontratua osatzen duten elementuak, berriz, hauek dira:

- (1) Pertsonala: mandatu-emaileak egintza juridikoa egitea enkargatzen du; eta mandatu-hartzaileak haren alde eta kontura gauzatzen du egintza.
- (2) Erreal: objektua da mandatu-emaileak mandatu-hartzaileari egitea enkargatzen dion egintza juridikoa; esaterako, bitartekaritza-lana, zerbait ordaintzea edo kobratzea, edo interesak administratzea.
- (3) Formal: hemen ere askatasunaren printzipioari jarraitzen zaio eta aipatze bidezkoa edo isilbidezkoa izan daiteke (KZren 1710. art.); halaber, dokumentu publikoan edo pribatuan egin daiteke.

Mandatuak izan daiteke:

- (1) Prestazioen arabera:
 - (a) Doakoa: besterik adierazi ezean, doako kontratua da.
 - (b) Ordaindua: eskuarki, enkargatutako zerbait egitea mandatu-hartzailearen lanbidea bada (KZren 1711. art.).
- (2) Emandako ahalmenen arabera (KZren 1712. art.):
 - (a) Orokorra: mandatu-emailearen negozio guztiak egiteko ahalmena ematen da.
 - (b) Berezia: negozio jakinak egiteko ahalmena ematen da.
- (3) Jarduteko moduaren arabera:
 - (a) Ordezkeri gisa: harreman juridikoak sortzen dira mandatu-emailearen eta hirugarrenen artean; mandatu-hartzaileak mandatu-emailearen izenean eta kontura jarduten du.

(b) Ordezkaritzarik gabeko mandatuan, ordea, mandatu-hartzaileak bere kontura jarduten du, baina ez bere izenean. Kontratuak eraginak izango ditu hirugarrenarentzat eta mandatu-hartzailearentzat.

Edukiari dagokionez, berriz, hauek dira alderdi bakoitzaren betebeharrak:

(1) Mandatu-hartzailearen betebeharrak:

(a) Mandatua betetzea: agindutakoa egitea (KZren 1718. art.), mandatu-emaileak eman dizkion jarraibideen arabera (KZren 1719. art.).

(b) Ezin ditu gainditu mandatuaren mugak (KZren 1714. art.). Gainditzen badira, mandatu-emaileak berretsi egin ditzake, behartuta geratzeko.

(c) Mandatu-emaileari jakinarazi behar dio nola doan mandatuaren betetzea. Mandatu-emaileari eman beharko dio beretzat jaso duen guztia (KZren 1720. art.).

(d) Mandatua ez gauzatzegatik mandatu-emaileari sortu zaizkion kalteen ordaina ematea. Ordaindutako mandatua bada, doluz eta erruz erantzun beharko du.

(2) Mandatu-emailearen betebeharrak:

(a) Mandatu-hartzaileari ordaintzea, bere lanbidea agintzen zaizkion zerbitzuak egitea bada (KZren 1711. art.).

(b) Mandatua gauzatzeko behar den dirua aurreratzea (KZren 1728. art.) eta mandatu-hartzaileak bere kontura egindako gastuen erantzukizuna hartzea.

(c) Mandatua betetzetik eratortzen diren gastuak eta kalteak ordaintzea. Kasu horretan, mandatu-hartzaileak atxikitze eskubidea izango du (KZren 1729. art.).

(3) Hirugarrenen aurrean hartutako betebeharrak:

(a) Mandatu-hartzailea: ordezkarik gisa ez bada jardun, kontratua egin duen pertsonarekin zuzenean behartuta geratuko da, gai pertsonala bailitzan (KZren 1717. art.). Mandatu-emailearen ordezkarik gisa jardun badu, kontratatu duen pertsonaren aurrean ez da erantzule izango, efektuak mandatu-emailearentzat izango baitira —mandatu-emailearen eta hirugarrenaren artean—.

(b) Mandatu-emailea: *mandatugileak bete behar ditu mandatariak mandatuaren mugen barruan hartutako betebehar guztiak* (KZren 1727. art.). Ordezkaritzako mandatua bada, hirugarrenarekiko harremana zuzena da; bestela, berriz, ez.

Iraungitzeari dagokionez, kontratu oro iraungitzeko kausez gainera, hauek jasotzen ditu legeak (KZren 1732. art.):

(1) Errebokazioz: mandatu-emaileak mandatua erreboka dezake.

(2) Mandatu-hartzaileak mandatuari uko egitea: mandatu-emaileari jakinarazi behar dio kontratua uzten duela.

(3) Mandatu-emailea edota mandatu-hartzailea hiltzea, porrot egitea edo kaudimenik gabe geratzea.

4. ARTEKARITZA-KONTRATUA

Erabileratik sortutako kontratu atipikoa da, zeinaren arabera norbaiten zeregina izango baita negozio juridiko bat gauzatzeko bi alderdi edo gehiago harremanetan jartzea (*mediación o corretaje*). Esate baterako, aseguru-kontratuak, eskuarki, artekari bidez egiten dira (*correduría de seguros*), horrek jartzen baititu harremanetan aseguru-etxea eta partikularra; gauza bera gertatzen da frontoian apustuak egiteko, apustu-kontratua bi partikularrek egiten badute ere, artekariaren gestioz egiten baitute; eta gauza bera burtsan akzioak erosi nahi izanez gero ere.

Auzitegi Gorenak definizio hau eman du: *contrato en virtud del cual una persona encarga a otra que le informe acerca de la oportunidad de concluir un negocio jurídico con un tercero o que le sirva de intermediario, realizando las oportunas gestiones para conseguir el acuerdo de voluntades en caminado a su realización, a cambio de una retribución.*

Kontratua atipikoa denez, lehenik alderdiek hitzartutakoa izango da kontuan eta, askotan, kontratazio-eremu horretan sortutako ohiturak; azken batean antzeko beste kontratuen arauak soilik izango dira aplikagarri, aplikatu badaitezke noski.

Negozio nagusia sortzen bada, artekariak saria kobratzeko eskubidea izango du, bere lanaren ordain gisa.

Esate baterako, aseguruaren alorrean, lege honek du indarra: *Ley 26/2006, de 17 de julio, de mediación de seguros y reaseguros privados*. Harremana honela definitzen du legeak: *las actividades a que se refiere el artículo 1 comprenderán la mediación entre los tomadores de seguros o de reaseguros y asegurados, de una parte, y las entidades aseguradoras o reaseguradoras autorizadas para ejercer la actividad aseguradora o reaseguradora privadas, de otra. A tales efectos, se entenderá por mediación aquellas actividades consistentes en la presentación, propuesta o realización de trabajos previos a la celebración de un contrato de seguro o de reaseguro, o de celebración de estos contratos, así como la asistencia en la gestión y ejecución de dichos contratos, en particular en caso de siniestro* (2.1 art.).

Beste zenbait eremutan, kontratua ez da definitzen, baina jarduera egiten dutenen antolaketa arautzen da: kolegiatutako agente artekariak edo merkataritza-artekaria (853/1959 Dekretua, maiatzaren 27koa), aseguru-artekariak (26/2006 Legea, uztailaren 17koa) eta higiezinaren gaineko jabetzaren agenteak (67/43/CEE Zuzentaraua eta 1988ko abenduaren 2ko Errege Dekretua).

5. GORDAILU-KONTRATUA

Kontzeptu hau ematen du legeak: *gordailua eratzen da, norbaitek inoren gauza jasotzen duenean, gauza hori zaindu eta itzultzeko betebeharrarekin* (KZren 1758. art.). Beraz, kontratu honetan, alderdi batek (gordailu-emaileak) beste bati (gordailu-hartzaileari) ondasun higigarria ematen dio, zaindu eta gero itzul dezan. Adibidez, segurtasunagatik banketxean bitxiak gorde badira, edo erositako petrolioa beste enpresa baten biltegian gorde bada.

Ezaugarriei dagokienez, berez erreal da, kontratua egiteko gauza gordailuan ematea beharrezkoa baita; doakoa, kostubidezkoa izan badaiteke ere — *gordailua dohaineko kontratua da, horren aurkako itunik izan ezan*—; eta aldebakarrekoa, doakoan gordailuan emandakoa itzultzeko betebeharra bakarrik sortzen baita, kostubidezkoan aldebikoa bada ere.

Honako gordailu motak bereizten dira:

- (1) Zibila eta merkataritzakoa. Lehenengoa Kode Zibilak arautzen du eta bigarrena Merkataritzako Kodeak. Azken horiek merkatarien artean egiten dira, eta gordailuan emandako gauzak merkataritzako objektuak izaten dira.
- (2) Judiziala eta judizioz kanpokoa. Judiziala da auzian dauden ondasunen bahiketa agintzen duenean epaileak (KZren 1785. art.); bahiketa judiziala deritzo eta Judiziamendu Zibilari buruzko Legeak arautzen du. Judizioz kanpokoa, aldi berean, nahitaezkoa edo borondatezkoa izan daiteke: borondatezkoa da benetako kontratua, gauza borondatez ematen baita gordailuan uzteko (KZren 1763. art.); nahitaezkoa izango da legearen aginduaren arabera egiten bada, eta legeak berak arautuko du (KZren 1781.1 art.).

Hauek dira kontratuaren elementuak:

- (1) Pertsonala: gordailu-emaileak ondasuna ematen du, eta gordailu-hartzaileak gauza jasotzen eta zaintzen du, hura itzuli arte.
- (2) Erreal: *gauza higigarriak bakarrik izan daitezke gordailuaren objektu* (KZren 1761. art.).
- (3) Formal: kontratua sortzeko nahi den forma jarrai daiteke.

Edukiaren ikuspegitik, hauek dira sortzen diren betebeharrak:

- (1) Gordailu-hartzailearenak. Garrantzitsuena gauza zaintzeko betebeharra da. Ezin du gauza erabili, gordailu-emailearen aipatze bidezko baimenik gabe. Baimen hori emanez gero, beste kontratu bat sortzen da: mailegua edo komodatoa (KZren 1768. art.). Gauza erabiltzen badu, kalte-galerak ordaintzeko betebeharra izango du. Azkenik, gauza itzultzeko betebeharra

izango du gordailu-emaileak eskatu bezain pronto (KZren 1766. art.); baina, atxikitzeke eskubidea ere badu.

(2) Gordailu-emailearenak. Doakoa bada, ez du betebeharririk izango. Kostubidezkoa bada, hitzartu dena ordaintzeko betebeharra izango du. Gauza zaintzeak sortutako gastuak ordaindu beharko ditu, eta kalteak ere bai (KZren 1779. art.).

Iraungitzeari begira, berezitasunik nabarmenena gordailu-emaileak eskatzean ematea da iraungitzeko modurik ohikoena.

6. FIDANTZA-KONTRATUA

Fidantza-kontratua berme pertsonala emateko kontratua da. Kontratu honen arabera, betebeharrak bateko hartzekoduna eta zorduna ez den beste hirugarren bat lotzen dira, zordunak bere betebeharra betetzen ez duen kasurako berak betetzeko betebeharra hartzen baitu: *fidantzaren bidez, norbaitek betebeharra du, hirugarrenaren ordean, zerbait ordaindu edo betetzeko, hirugarrenak hori egiten ez badu* (KZren 1822. art.).

Ondorioz, bereizi behar dira:

- (1) Betebeharrak nagusia: hartzekodunaren eta zordunaren artekoa, beren arteko harreman juridikotik sortua.
- (2) Betebeharrak osagarria: hartzekodunaren eta fidatzailearen artekoa, fidantza-kontratutik sortua; betebeharrak hau berez subsidiarioa da, galdagarria izango baita soilik zordunak bere betebeharrak nagusia betetzen ez duen kasuan.

Beraz, fidantza berez osagarria da, beste betebeharrak nagusi bati lotua baitago. Horretaz gainera, adostasunezkoa da, doakoa kontraktorik adierazten ez den bitartean, eta aldebakarrekoa.

Fidantza-kontratua, sortzeko moduen arabera, izan daiteke:

- (1) Hitzarmenezkoa: alderdien artean egindako kontratua bada.
- (2) Legezkoa: betebeharrak betetzea legeak ezartzen badu.
- (3) Judiziala: auzi batean betebeharrak epaileak ezartzen badiu alderdi bati (KZren 1828. art.).

Elementu hauek osatzen dute fidantza-kontratua:

- (1) Pertsonala: fidantza-kontratuan betebeharrak nagusiko hartzekoduna eta fidatzailea dira alderdiak; horiek kontratua egin dezakete zordunak parte hartu gabe, eskuarki hirurak bat eginda agertzen badira ere.
- (2) Erreala: kontratuaren objektua betebeharrak nagusia da, fidatzen dena; noski, betebeharrak nagusiak existitu eta baliozkoa izan behar du.
- (3) Formala: askatasun-printzipioa aplikatzen da, baina fidantzarik badela ez

da uste izango, eta aipatze bidez egin beharko da (KZren 1827. art.).

Kontratuaren edukia osatzen duten betebeharren artean nagusia fidatzailearena da; bermatutako betebeharrak nagusia zordunak ez badu betetzen fidatzaileak bete beharko du: *fidatzailearen betebeharra zordun nagusiarena baino txikiagoa izan daiteke, baina ez handiagoa, bai kopuruari begira, bai baldintzek dakartzaten kargei begira* (KZren 1826. art.); *ezin du barruan hartu berak jaso baino gehiago* (KZren 1827. art.). Hala eta guztiz ere, bi ñabardura egin behar dira:

(1) Desenkusa-onura (*beneficium excutionis*) ematen zaio; alegia, zordunak ez badu betetzen fidatzailea behartu daiteke ordaintzera, baina zordunak ordaintzeko nahiko ondasunik balu, fidatzaileak uko egin ahal izango dio ordaintzeko eskaerari: *ezin da fidatzailea behartu hartzekodunari ordaintzera, aurretiaz ez bada egiten zordunak dituen ondasun guztien eskusioa* (KZren 1830. art.). Finean, hartzekodunak, lehenik, zordunaren ondarea baliarazi behar du, eta hori agortu ondoren baliatu ahal izango du fidatzailearen betebeharra; bitartean, fidatzaileak badu aitzakia bere betebeharra ez betetzeko. Hala ere, desenkusa-onura ez da onartzen hainbat kasutan (KZren 1831. art.) eta fidantza judiziala bada (KZren 1856. art.).

(2) Fidantza berez solidarioa izan daiteke: orduan, desenkusa-onurarik ez da ematen, fidatzailea zordunarekin batera behartzen baita. Hau da, hartzekodunak, kreditua kobratzeko, zordunaren edo fidatzailearen aurka joatea aukera dezake.

Fidatzailearen betebeharra osagarria denez, zordunak duen betebeharra iraugitzearekin batera iraugiko da (KZren 1847. art.).

Zordunak betebeharra ordaindu ez eta fidatzaileak ordaintzen badu, hartzekodunaren posizioan subrogatuko da, eta haren kreditu-eskubidearen edukia osatuko dute ordaindutakoak eta eragindako kalte-galeren ordainak.

Betebeharrak ordaindu baino lehenago, fidatzaileak eska diezaioke zordunari fidantza kentzeko. Aukera hori izango du fidatzaileak kasu hauetan (KZren 1843. art.): (a) ordaintzeko demanda judiziala jaso badu; (b) porrot eginda edo kaudimenik gabe baldin badago; (c) epea agortu bada; (d) zorra galdagarria bada; (e) hamar urte igaro ondoren, betebeharra betetzeko eperik ez bada ezarri.

Bukatzeko, bi egoera aitatu behar dira:

(1) Fidantza-kidetzatza: betebeharrak nagusi berberaz erantzuteko fidatzaile anitz baldin badaude (KZren 1844. art.).

(2) Azpifidantza: *fidantza kontratua, zeinaren bidez fidantza obligazio bat bermatzen baita.*

7. AMORE-EMATE KONTRATUA

Arazoren bat duten partikularrek auzi-prozesua saihestu nahi badute, kontratu bidez konpon ditzakete beren diferentziak. Oso esapide zabaldua da honako hau: hobe da konponketa txar bat, auzi on bat baino. Eta hori defendatzeko arrazoiak mota askotakoak dira: pertsonalak eta ekonomikoak, bereziki. Horretara zuzendutako instrumentu juridikoa da amore ematea: *transakzioa kontratua da, eta, horren bidez, alderdiek, zerbait eman, hitzeman edo atxikiz, auzia hastea eragozten dute edo hasitakoari amaiera ematen diote* (KZren 1809. art.). Auzia hasita egonda ere kontratua egin daiteke, auziari amaiera jartzeko.

Amore-emate kontratuak ezaugarri hauek ditu: adostasunezkoa da; kostubidezkoa, alderdi bakoitzak zerbait lortzen baitu besteak lortzen duenaren truk; eta aldebikoa, alderdi bientzat, berez, elkarrekiko betebeharrak ezartzen baitira.

Edukiari dagokionez, berriz, hauek dira alderdi bakoitzaren betebeharrak:

- (1) Pertsonala: gatazka juridikoa duten subjektuak; jarduteko gaitasuna behar dute kontratua egiteko.
- (2) Errealak: alderdien arteko auzi juridikoa da; ezin izango dira kontratuaren objektu izan: *pertsonen egoera zibilarekin, ezkontzaren arazoekin, ezta etorkizuneko mantenuarekin ere* (KZren 1814. art.).
- (3) Formalak: kontratua egiteko forma-askatasuna dago.

Alderdiak behartuta daude kontratuan hitzartu dutena onartzera eta betetzera. Horrela, alderdientzat amore-emateak gauza epaituaren indarra du; alegia, epaia izango bailitzan errespetatu beharko dute (KZren 1816. art.).

8. ARBITRAJE-KONTRATUA

Amore-ematerik ez bada lortu edo ez bada lortu nahi, hirugarren baten esku jarri behar da auzia. Botere publikoak horregatik antolatzen du justizia funtzio publiko gisa, eta hirugarren hori, eskuarki, epailea izaten da; baina ez nahitaez. Auzia jar daiteke epaile ez den beste norbaiten esku; ohikoena aditu baten edo batzuen esku jartzea izango da.

Egun, lege honek arautzen du arbitrajea: *Abenduaren 5eko 36/1988 Legea, Arbitrajeari buruzkoa*. Legeak honela definitzen du: *contrato entre dos o más personas por el cual deciden someter una cuestión litigiosa, que existe entre ellos, a la decisión de uno o varios árbitros, cuya resolución se comprometen a acatar, excluyendo así toda intervención judicial*.

(1) Elementu pertsonalei dagokienez:

(a) Alderdiek, behartzeko gaitasun orokorra izateaz gainera, gatazkan duten objektuaz xedatzeko gaitasuna izan behar dute.

(b) Arbitroa, bere aldetik, pertsona naturala edota juridikoa izan daiteke; alderdiek gatazka konpontzeko ahalmena ematen diote arbitraje-kontratu bidez. Arbitroak izendatzea alderdiek zuzenean edo hirugarren batek egingo du. Arbitro kopuruak beti bakoitia izan behar du. Gainera, arbitroen izaeraren arabera, bereizi egiten dira:

(a') Zuzenbidezko arbitrajea: arbitroak jardueran dagoen abokatu izan behar du, gatazka zuzenbidezko arauen arabera konpondu behar baita.

(b') Ekitatezko arbitrajea: arbitro ezein pertsona gai izan daiteke, eta bere jakituri eta iritziarekin ebatziko du gatazka.

Arbitraje mota alderdiek hautatuko dute. Ez badute hala egiten, legeak ulertuko du ekitatezko arbitrajea nahi izan dutela; beraz, zuzenbidezkoa nahi bada, aipatze bidez agindu behar dute alderdiek.

(2) Elementu erreal. Kontratuaren objektua da alderdien artean sortu den edozein bat ez etortze, gatazka eragin duen ezein eskubide.

(3) Elementu formala. Idatziz jaso behar da, dokumentu pribatua nahiz publikoan. Askotan, kontratu bateko klausula moduan agertzen da. Idazkiak jaso beharko du: arbitrajearen menpe jartzeko borondatea; arazoa zehaztea; arbitro kopurua, beti bakoitia; arbitroek emandako erabakia betetzeko borondatea.

Prozedurari dagokionez, legearen arabera, alderdiek askatasuna dute prozedura zein izango den hitzartzeko; hau da, arbitroek gatazka konpontzeko jarraitu beharko dituzten pausoak adosteko. Hala ere, prozedura horrek fase batzuk izango beharko ditu nahitaez, legeak horrela agintzen baitu. Arbitroek alderdiek ezarritako epearen buruan eman beharko dute laudoa —erabakia—, baina gehienez ere sei hilabeteren buruan, legearen arabera; hala ere, epea luza daiteke akordio bidez.

Arbitraje-laudoak amaiera ematen dio arbitrajearen lehenengo instantziari, eta aukera dago helegitea jartzeko. Laudoak gauza epaituaren eragina izango du, irmo bilakatu eta gero: *el laudo se convierte en firme bien porque contra él no se ha interpuesto el Recurso de Anulación ante la Audiencia Provincial del lugar donde se hubiera dictado el Laudo, o bien que interpuesto tal recurso el mismo haya sido desestimado confirmándose el Laudo arbitral.*

9. BESTE KONTRATU TIPIKO BATZUK

(1) Garraio-kontratua. Garraiatzeko betebeharraren objektu izan daitezke

personak edo gauzak. Hartara, garraio mota bakoitzak legeri berezia du, eta bertan islatzen dira sortzen diren betebeharrak eta erantzukizunak. Esate baterako, Ley 16/1987, de 30 de julio, de Ordenación de los Transportes Terrestres: 1. *Se regirán por lo dispuesto en esta Ley: Los transportes de viajeros y mercancías, teniendo la consideración de tales aquellos realizados en vehículos automóviles que circulen sin camino de rodadura fijo, y sin medios fijos de captación de energía, por toda clase de vías terrestres urbanas o interurbanas, de carácter público, y asimismo, de carácter privado, cuando el transporte que en los mismos se realice sea público. Las actividades auxiliares y complementarias del transporte, considerándose como tales a los efectos de esta Ley, la actividad de agencia de transportes, la de transitario, los centros de información y distribución de cargas, las funciones de almacenaje y distribución, la agrupación y facilitación de las llegadas y salidas a través de estaciones de viajeros o de mercancías, y el arrendamiento de vehículos. Los transportes por ferrocarril, considerándose como tales aquellos en los que los vehículos en los que se realizan circulan por un camino de rodadura fijo, que les sirve de sustentación y de guiado, constituyendo el conjunto camino-vehículo una unidad de explotación.* 2. *Los transportes que se lleven a cabo en trolebús, así como los realizados en teleféricos u otros medios en los que la tracción se haga por cable, y en los que no exista camino de rodadura fijo, estarán sometidos a las disposiciones de los títulos preliminar y primero de la presente Ley, rigiéndose en lo demás por sus normas específicas. Serán de aplicación, no obstante, al transporte por cable las reglas establecidas en la disposición adicional tercera.*

(2) Edizio-kontratua: *por el contrato de edición el autor o sus derechohabientes ceden al editor, mediante compensación económica, el derecho de reproducir su obra y el de distribuirla. El editor se obliga a realizar estas operaciones por su cuenta y riesgo en las condiciones pactadas y con sujeción a lo dispuesto en esta Ley (RDLeg 1/1996, de 12 de abril, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Propiedad Intelectual, 58. art.).*

(3) Agentzia-kontratua. *Por el contrato de agencia una persona natural o jurídica, denominada agente, se obliga frente a otra de manera continuada o estable a cambio de una remuneración, a promover actos u operaciones de comercio por cuenta ajena, o a promoverlos y concluirlos por cuenta y en nombre ajenos, como intermediario independiente, sin asumir, salvo pacto en contrario, el riesgo y ventura de tales operaciones (Ley 12/1992, de 27 de mayo, sobre Contrato de Agencia).*

(4) Frankizia-kontratua. *La actividad comercial en régimen de franquicia es la que se lleva a efecto en virtud de un acuerdo o contrato por el que una empresa, denominada franquiciadora, cede a otra, denominada franquiciada, el derecho a la explotación de un sistema propio de comercialización de productos o servicios (Ley 7/1996, de 15 de enero, de Ordenación del comercio minorista).*

(5) Publizitate-kontratua. (Ley 34/1988, de 11 de noviembre, general de publicidad):

(a) Contrato de **difusión** publicitaria es aquél por el que, a cambio de una

contraprestación fijada en tarifas preestablecidas, un medio se obliga en favor de un anunciante o agencia a permitir la utilización publicitaria de unidades de espacio o de tiempo disponibles y a desarrollar la actividad técnica necesaria para lograr el resultado publicitario.

*(b) El contrato de **patrocinio** publicitario es aquél por el que el patrocinado, a cambio de una ayuda económica para la realización de su actividad deportiva, benéfica, cultural, científica o de otra índole, se compromete a colaborar en la publicidad del patrocinador.*

(6) *Factoring* kontratua. Berez atipikoa eta konplexua da: norbaitek bezeroekin dituen merkataritzako kreditu-eskubideak laga eta horiek kudeatzeko edo kobratzeko ahalmena ematen dio faktoreari, eta zenbaitetan, gainera, horiek kobratzea bermatzen du faktoreak.

